ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-12-24
ASTELEHENA
391. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Rezustari omenaldia Bergaran

Munduko txapeldun izan zen azaroan | 25

Beñat Rezusta . | JOSETXO ARANTZABAL

Altuna Arrasaten eta Kimu Oñatin, erakusleihoen artean politenak | 4

Olentzero gure herrietako kaleetan izango da gaur | 14-20

Mississippitik Arrasatera 'berri ona' zabaltzera, gospel doinuekin | 31

Aparteko eguraldia eta barrutia egoera onean izan zituzten txirrindulariek San Martingo lasterketan.

Ziklo-kros egun ederra

Aurreikuspenak bete eta Aitor Hernandez nagusitu zen Oñatin | 22

JOSETXO ARANTZABAL

Aspaldiko Santamas jendetsuena, Arrasaten

Ganadu feria. | JAGOBA DOMINGO

Eguraldi ona eta zapatua, giro ederra izan zen, bertako eta kanpokoekin | 11

Gezurrak esan izana egotzi dio udal gobernuak Bergara Garbiari

Dio alkatearen ahotan jarritakoak ez direla hark esanak | 4

Abenduaren 28an 2012ko urtekaria, eta urtarrilaren 7an 2013ko lehen zenbakia

Hilaren 28an *Debagoiena 2012* urtekaria jasoko duzue etxean. Hurrengo GOIENA urtarrilaren 7an, astelehena, argitaratuko dugu. Urte berri on!

DEBAGOIENA 2012 URTEKARIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 | JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Ginean irrati berritzailea sortzeko asmoa, gurean mamitua

- LEINN graduko ikasle batzuk dabiltza horretan
- Mamadou Diallo ginearra da proiektuaren liderra
- Berarekin lanean, debagoiendar batzuk dabiltza

Mamadou Diallo eta Jon de Andres, Arrasate Irratian. | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ginean ekintzailetzaren gaineko irratia egiteko proiektua Debagoienean jaio zen eta bertan dabil mamitzen. Hori lideratzen ginear bat dago, Mamadou Diallo, aspaldian Oñatin bizi dena; eta berarekin batera, lan-taldea osatzen, beste 10 lagun, horien artean debagoiendarrak. Hemendik milaka kilometrora ezarriko duten irrati proiektu hori gorpuzten joateko, Debagoieneko irrati batzuk bisitatzen ibili dira Mamadou eta lan-taldeko beste kide bat, Jon de Andres arrasatearra; horien artean, Arrasate Irratia bisitatu zuten.

Mamadou, Jon eta beste bederatzi lagunak Jump In Coop kooperatiba gazteko kideak dira. Gehienek Mondragon Unibertsitateko LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduko ikasketak egiten zeudela ezagutu zuten elkar, eta orain batera dihardute.

Mamadou Diallok "izaera ekintzailea" duela onartzen digu, eta grina hori irratiaren nortasunean ere igarriko da. Izan ere, ekintzailetasunaren gaineko irratia egin nahi du.

Unibertsitatearen modukoa

Honela aurkezten du Mamadouk berak lideratzen duen proiektua, berak asmatua: "LEINN lidergoa, ekintzailetza eta berrikuntza da, eta horixe da nire pasioa. Horregatik, berritzaile soziala izan gura dut, eta zerbait sortu. Nire ustez, Gineak, neure jaioterriak, bereziki behar du berrikuntza mota hori". Berrikuntza sozialerako irratia izango da, hortaz: "Ekintzailetzan zentratuko den irratia izango da, unibertsitatea balitz bezala, Ginean denek ezin dutelako unibertsitate-ikasketak egin. Eta, informazio faltagatik, Unibertsitatera joan ezean gauza ikaragarriak ezin dituztela egin pentsatzen dute. Horregatik, irrati horren bidez beste batzuek ideiak eman diezazkiekete, edo ideia badaukan bateren bati hura garatzeko aukera eman diezaiokete".

Horrelako espazioak eta edukiak Interneten dira gaur egun ohikoagoak, eta ez hainbeste irrati bidez. Baina Ginean, Mamadouren ustez, irratia da horretarako komunikabide mota egokiena, izan ere, "jende askok ez dauka Internetik ez hura erabiltzeko modurik, edo ez dakite erabiltzen". Ginean Internet oso mugatuta dago eta oso neurri txikian dago instalatuta: bakarrik jendearen %1engana ailegatzen da.

Horrez gain, AEBetako CIA agentziaren munduko herrialdeen datu-basearen arabera, Gineako biztanle gehienak analfabetoak dira: bakarrik 15 urtetik gorako ginearren %29,5ek dakite irakurtzen eta idazten.

Horregatik guztiagatik, irratia jende askok entzuten du.

Denak, inplikatuta

Irratiaren mundua ezagutzen eta Gineako irratirako zer behar izango duten pentsatzen Mamadouri laguntzen Jon de Andres arrasatearra ibili da. Berak dioen moduan, "LEINNen abantaila bat talde-lana da. Beraz, proiektuaren lidergoa Mamadouk duen arren, besteok ere parte hartzen dugu". Proiektu horretan inplikatu dira denok, eta Gineara joateko gertu ere badaude: "Orain urte bete inguru, bidaia hori egitea pentsatzen ibili ginen, eta irratia aitzakia ezin hobea izan daiteke", esaten du Jon de Andresek.

ESANAK

"Ekintzailetza eta berritasuna dira nire pasioak, eta berritzaile soziala izan gura dut, Ginean zerbait sortu"

MAMADOU DIALLO | EKINTZAILEA

"Irratia sortuko dugu; izan ere, Ginean jende askok ez dauka Internetik ez hura erabiltzeko modurik ere"

"LEINNen abantaila taldeko lana da, eta taldeko besteok ere parte hartzen dugu Mamadou babesten"

JON DE ANDRES | EKINTZAILEA

Mamadou Diallo, Ginean. | MAMADOU DIALLO

Ginea, natura aldetik herrialde aberatsa. | MAMADOU DIALLO

Nekazaritza indarberritu

Ekuatore Ginearekin eta Ginea Bissaurekin ez nahasteko, Gineari batzuetan Ginea Conakry edo Frantziar Ginea deitzen zaio. Hain zuzen, Conakry bertako hiriburua da, eta 2.000.000 biztanle inguru ditu. Bada, hantxe ezarri gura dute Jump In kooperatibakoek irrati berri hori. "Jendearengana ailegatzeko leku estrategikoa" dela esaten du Oñatin bizi den ginear horrek. Baina, bere iritziz, berrikuntza premia handiena ez daukate hiriek, baizik eta landa inguruneak, lehenengo sektoreak. Mamadou Dialloren nahia izango litzateke, beraz, nekazaritza berritzea eragingo luketen proiektuei eta ekintzaile horiei bultzada ematea. Beraz, paradoxa dirudien arren, hirian egongo litzateke herriak, landa ingurunea hobetzea helburu duen irratia.

Izan ere, landa-exodoa gertatzen da Ginean ere. Diallok azaltzen duenez, "Ginean, landa ingurunean bizi direnek, nekazariek eta ganaduzaleek, ez dute inongo laguntzarik jasotzen, eta askok dena bertan behera utzi eta hirira alde egiten dute. Eta hirian gero eta jende gehiago bizi da; ez dago hainbeste jende hartzeko gertatuta eta gainkarga gero eta handiagoa da; eta, bestetik, herriak ere galtzen irteten dira. Helburua da hori dena koordinatzea, jendea konturatu dadin herria ere aprobetxatu daitekeela".

Hala ere, lehen sektorea da oraindik handiena Ginean: 2006-ko estimazioen arabera, Gineako lan-indarraren %76 nekazaritzan dago, eta gainerako %23a, industrian eta zerbitzuetan. Eta, Mamadou Dialloren ustez, "hirugarren sektorera pasatu baino lehen, lehenengo sektoreari beste aukera bat eman beharko lioke jendeak. Bai; duda barik, lehenengo sektorea berritu behar da".

Elkar ezagutzeko lekua

Irratiaren hizkuntza frantsesa izan dadin erabaki dute Jump In kooperatiba gaztekoek. Frantsesa da Gineako hizkuntza ofiziala, eta berau erabiltzen da hezkuntzan, komunikabideetan eta harreman ofizial guztietan. Horrez gain, beste hizkuntza eta dialektu asko hitz egiten dira Ginean, baina horiek erabiltzeak "zertxobait zailduko luke" irratiaren helburuak eta lana, Diallok esaten digun moduan.

Eduki zehatzak zeintzuk izango diren oraindik ez dute erabaki. Ideia garatuago dutenean zehaztuko dituzte edukiak. Dena dela, Mamadouk argi dauka "hezkuntza eta ekintzailetza" izango direla gaiak.

Irrati hori entzuten duten ekintzaileek beste laguntzatxo bat ere izango dute, gainera: irratiaren ondoan, elkar ezagutu eta batzarrak egiteko lekua izango dute.

Mamadouri berari dagokionez, bere burua erdi oñatiartzat du dagoeneko. Debagoienera etortzea eta LEINN gradua egitea "kasualitatez" gertatu zela esaten du: "Lehenengo Frantziara eta gero Madrilera joan nintzen. Lanen bat topatu nuen, baina nire pasioa ikasten jarraitzea zen. Bilbora etorri nintzen, eta lagun batek Mondragon Unibertsitateaz kontatu zidan. Hemen nengoela, LEINN graduaren berri izan nuen eta bi aldiz pentsatu barik huraxe egitea erabaki nuen. Lagun asko egin ditut eta euskara ikasten nabil. Ni dagoeneko oñatiartuta nago; Gineara joango naiz, baina beharbada hemen bizi izango naiz".

Ginea, begirada baten

GINEA
Frantziaren kolonia izan zen Ginea 1958ra arte. Erregimen aldetik, errepublika presidentziala da. Hainbat gorabehera politiko izan ditu. 2010a ezkero, Alpha Condé da presidentea. 2010ean izan ziren Gineako lehenengo hauteskunde demokratikoak.

BI MILIOI BIZTANLE
10.800.000 biztanle pasa ditu Gineak. Hiriburuan, Conakryn, 2.000.000 inguru bizi dira.

HERRIALDE POBREA
Munduko herrialde pobreenetariko bat da, 1.100 dolarreko renta per capitarekin. Hala ere, oso aberatsa da baliabide naturaletan: munduko bauxita erreserben ia erdiak dauzka, eta burdina, urre eta diamante erreserbak ere badauzka.

KOMUNIKABIDEEN MUGAK
Irratia asko entzuten da. Mamadou Diallok dioenez, orain urte eta erdi hiruzpalau irrati zeuden; bat estatuarena, eta besteak pribatuak. Baina komunikabideek mugak zituzten botere politikoaren gainean hitz egiteko: gobernuaren aurka egiten zuten hedabideak itxi egiten zituzten. Gaur egun ere, Komunikazioaren Batzorde Nazionalak edukiak kontrolatzen ditu, Mugarik Gabeko Kazetariek salatu dutenez.

Ginearen kokapena.

Arrasate OPTIKA OPTOMETRIA

Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 25 98
www.arrasateoptika.com
arrasateoptika@euskalnet.net

Optometria konportamentala
•
Ukipen lente bereziak
•
Ikusmen terapia
•
Pertzepzio zailtasunak
•
Jatorrizko erreflexuak

Udal gobernuak salatu du alkatearen ahoan jarritakoa ez dela hark esana

- Harrituta daude Bergara Garbiakoek komunikabideetan egindako azken adierazpenekin
- Plataformari eskatu diote egian oinarritzeko eta exijitu diote publikoki gaia argitzea

Bergarako udal ordezkariek egindako prentsaurrekoko une bat. | IMANOL SORIANO

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

"Hilaren 21eko Goienan Bergara Garbia plataformak alkatearen ahoan berak esan ez dituen hitzak jarri ditu, hala nola, behartu egin behar dela jendea gauzak egiteko Frankok egiten zuen erara". Hitz horiekin hasi zuen prentsaurrekoa Jaione Isazelaia zinegotziak. Esan zuen "onartezina" dela edozein egoeratan "gezurrak" esatea eta alkatea "horrenbeste urtetan herri honen zanpatzailea izan denarekin konparatzea". Hauxe gaineratuz: "Harritu egin gaitu guztiz Bergara Garbia plataformako kideek komunikabideetan egindako azken adierazpenen inkoherentziak... Plataformari zilegitasun osoa aitortzen diogu nahi duen aldarrikapen eta protestak antolatzeko, baina eskatzen diogu egian oinarritzeko".

Egubakoitzean beste bilera bat egin zuten udaletxean alkateak eta plataformako kideek "Bergara Garbiakoek harridura azaldu zuten Goienan publikatutako hitzengatik, komunikabide honen akatsa izan zitekeela argudiatuz. Kontrastea egin ondoren Goienatik jakin dugu testu horren bidaltzailea Bergara Garbia izan zela" azaldu zuen Isazelaiak eta hauxe gaineratu zuen: "Exijitzen diogu Bergara Garbiari publikoki hau guztia argitzea".

Herritarrei lasaitasun mezua

Bestalde, herritarrei lasaitasun mezua bidali nahi izan zien Isazelaiak eta esan zuen Gabonen ondoren auzoz auzo bideratuko dituzten bileretan parte hartzera gonbidatzen dituztela.

Arrasateko Altuna eta Oñatiko Kimu izan dira erakusleiho irabazleak

Egubakoitzean Arrasaten eta zapatuan Oñatin banatu zituzten erakusleiho lehiaketako sariak

A.T. | ARRASATE / OÑATI

Arrasaten erakusleiho hauek izan ziren sarituak: lehenengo sariarekin Altuna lurrindegia, bigarrenarekin Traskilon txakurren ile-apaindegia eta hirugarren Karrikirri opari denda. Sarituek plakaz gain, 300 euro, 250 eta 200 jaso zituzten, hurrenez hurren. Boto emaileen artean 150 euro zozketatuko dira, gainera.

Peter Pan musikalaren harira, denda batean Peter Pan-en irudi bat egongo da gordeta. Zein erakusleihotan dagoen asmatzen duten guztien artean 150 euroko diru-saria zozketatuko dute, Bedelkarreko dendetan gastatzeko.

Oñatin lehenengo saritua Kimu loradenda izan zen, bigarrena Barue interiorismo denda, hirugarrena Sesiñena ile-apaindegia, laugarrena Amalur belar denda eta bosgarrena Kukumiku jantzi denda. Urtean zehar erakusleiho aldaketa gehien egin dituen dendarentzat sari berezia Maibi dendak eskuratu zuen eta publikoaren saria erakusleiho lehiaketan ere lehenengo saria eskuratu zuen Kimu loradendak jaso zuen.

Udalak 4.500 euro banatu zituen saritan: Kimuk 1.500 euro jaso zituen; Baruek, 1.000; Sesiñenak, 500; Amalurrek, 300; eta Kukumikuk, 200. Maibik, sari bereziagatik, 500 euro jaso zituen.

Bergaran urtarrilera arte

Erakusleihoak apainduta izan beharko dituzte dendek Bergaran urtarrilaren 7ra arte.

Guztira lau sari izango dira, lehenengo hirurak epaimahaiko kideek emango dituzte, eta laugarrena (100 euro) herritarrek.

Altuna dendako Jabier Inda Altuna, sariaz. | IMANOL SORIANO

Kimu loradendako Iban Gonzalez, sariarekin. | I.S.

Altuna lurrindegiko erakusleihoa, lehenengo saria Arrasaten. | GOIENA

Traskilon txakurren ile-apaindegiko erakusleihoa, bigarrena Arrasaten. | GOIENA

Kimu loradendako erakusleihoa, lehenengo saria Oñatin. | GOIENA

Barue interiorismo dendako erakusleihoa, bigarrena Oñatin. | GOIENA

Alkatea, Jakiundeko presidentea eta Olaso Dorreko presidenteordea herritarrei ongietorria ematen. | A.T.

Bergararrek harrera bikaina Jakiunderi

Herritarrei egoitza berria erakusteko, Olaso Dorrean ate ireki eguna egin zuen Jakiundek eguenean

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Lehendabizi, Bergarako Udalak harrera egin zion Jakiunde Akademiari udaletxean. Bertatik irtendakoan, Udal musika banda San Martin plazan alkate soinua jotzen hasi zen eta Olaso Dorrerainiko bidean musikaz lagundu zien. Dorrearen kanpoaldean aurreskua dantzatu zieten alkateari, Jakiundeko presidenteari eta Olaso Dorreko presidenteordeari eta plaka erakutsi ostean, herritarrei akademiaren ateak zabaldu zizkieten.

Adierazpenak

Alkateak esan zuen Bergara "ikasketen eta jakinduriaren habia" izan zela XVIII. mendean eta azpimarratu zuen jakindurian eta horren transmisioan dagoela gure etorkizunaren gakoa. Ramon Mendibil Olaso Dorreko presidenteordeak esan zuen egun oso berezia izan zela eguenekoa beretako. Eta era berean, Jakiundeko presidente Jesus Mari Ugaldek berretsi zuen "ohore handia" dela Bergaran izatea herriari zabalik dagoen akademia. Jakiundek eskaini dezakeena eta zintzoki egiten duena hauxe dela azpimarratu zuen: "Jakitunek herriarekiko duten konpromiso zintzo eta zabalarengatik Jakiundek etorkizun on bat, inor baztertu gabe eta sozialki justua, eraikitzen lagun dezake. Badu horretarako gaitasuna eta gogoa". Hizketaldiaren ostean Bergarako ereserkia jo zuen sokazko taldeak eta ondoren luntxa egon zen.

BLANKA NARBAIZA
BERGARA

"Luxu handia da bergarar guztiondako, harro egoteko modukoa. Ikusten dugunez gauza aprobetxagarria da gainera eta denok eskura izango dugu herrian. Oso dotoreak izan dira alkate soinua eta ereserkia ere".

JOXE MARI LARRAÑAGA
BERGARA

"Jakinduria bezalako gai garrantzitsua berreskuratzea oso inportantea da herri batendako. Obra berria oso ondo dago eta ea horrenbeste urte daukan eraikin honek beste horrenbeste irauten duen jakinduria zabaltzen".

Ireki dute Arrasaten Axerikoa zubia

Sei hilabetez itxita egon ostean, egubakoitzean zabaldu zuten

J.B. / A.T. | ARRASATE

Oinezkoentzat eta trafikoarentzat zabalik dago Arrasateko Musakolako sarrera, izan ere, amaitu dituzte zubiko lanok.

Axerikoa zubi berriaren ezaugarri nagusiak bistan dira: lehengoa baino zabalagoa da, gainetik zein azpitik.

Gaineko parteari dagokionez, bereziki oinezkoei egingo die mesede (Axerikoa baserrikoek batez ere), zubi berriak albo bietan izango duelako espaloia. Zubi zaharrak, berriz, ez zuen espaloirik Musakolako ermitaren aldean.

Epeak errespetatuta

Uztailean Axerikoa zubia bota zutenetik, lanak erritmo onean joan dira eta Udalak gogora ekarri gura izan du lanen epeak "zorroztasunez" bete direla eta aurreikusitako datan hasi eta bukatu direla. Gogorarazi dute, era berean, lanok Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziak gauzatu dituela, gune horretako uholde arriskua ekiditeko.

Lanen ostean zabalik dago Arrasateko Axerikoa zubia. | A.T.

Osina aldera sartzeko bidea zabaldu dute. | IMANOL SORIANO

Zirkulazioa normaltasunera

Obren eraginez, Arrasateko Musakolako sarrera moztuta egon da eta Aretxabaletatik zetozenak Osina aldera ezin izan dira sartu lehen sartzen ziren lekutik. Horiek Kaskonategiko biribilgunera (Eroskikoa) joan behar izan dira eta bertan buelta hartuta sartu dira Osina aldera. Garraio publikoan ere eragina izan dute obrek, baina dagoeneko moztuta zeuden sarrerak zabaldu dira eta trafiko guztia normaltasunera itzuli da.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI

KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

Udal langileei abenduko nomina edo ekaineko paga aurreratuko diete

- 20/2012 dekretuak abenduko aparteko paga murriztea agintzen du
- Debagoieneko udalek hori konpentsatzeko erabakiak hartu dituzte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Joan den astean erabaki zuten Debagoieneko udalek sektore publikoko bere langileei dagokien abenduko aparteko pagaren auzian nola jokatu. Espainiako Gobernuak uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuaren 2. artikuluak sektore publikoko langileen aparteko paga edo urteko 14. paga hori murriztea agintzen zuen.

Bada, Debagoieneko udalek irtenbide bera hartu dute, eta joan den astean egin ziren osoko bilkuretan jakinarazi eta formalizatu zen hori.

Hain zuzen, dekretua aplikatu egingo dutela eta derrigortuta egingo dutela esan dute udal agintariek; eta udal langileendako kalte ekonomikoa saihesteko, 2013ko aparteko ordainsariak urte erdi aurreratzea edo abenduko nomina aurreratzea erabaki dute.

Dekretuak bakarrik udal langileei eragiten die, eta ez kargu politikoei; hau da, liberatutako langile erregimenean dauden ordezkari politikoek. Baina horiek, langileenganako elkartasun gisa, urteko 14. pagari uko egitea erabaki dute. Horrela egingo dutela jakinarazi dute, esate baterako, Oñatiko eta Eskoriatzako alkateek eta beste zinegotzi batzuek ere.

Elgetako Udalak, bere aldetik, Bilduren udalen antzeko erabakia hartu zuen. Joan den egueneko osoko bilkuran, 20/2012 dekretua azaldu zuten jendaurrean. Gero, abenduko nomina aurreratzea erabaki dela (Elgetako udal langileek hilaren bukaeran kobratzen dute) eta 2013ko bi aparteko ordainsariak aurreratzen saiatuko direla esan zuten. Horrez gain, abenduko paga ordaintzeko izango zitekeen dirua fondo edo kutxa baten utziko zutela azaldu zuten udal agintariek osoko bilkuran.

Leintz Gatzagako Udalak ere ez du ordainduko 14. paga hori. Udal langile horiek dagoeneko abenduko soldata jaso dute eta uste dute ekaineko paga aurreratuta jasoko dutela 2013an.

Arrasaten, sei zinegotzi

Arrasateko alkateak bere dekretuan azpimarratu zuen "artikuluak oinarrizko izaera duenez, nahitaez aplikatu beharrekoa" dela. Arrasateren kasuan, abenduaren 21era aurreratuko da abenduko nomina ordaintzea, eta udal langileek urtarrilaren 5ean eta ekainaren 20an jasoko dituzte 2013ko ekaineko eta abenduko lansari berezien konturako aurrerakinak. Alkateak gaineratu duenez, "langile publikoek 2010az geroztik erosteko ahalmenean galera" izan dute.

Arrasateko udal gobernu taldean sei zinegotzik –alkatea barne– dute erabateko edo neurri bateko dedikazio erregimena, eta horiek uko egin diete 14. ordainketa horri.

Bergaran, urtarrileko nominak egingo du aparteko ordainsariaren lana, eta abenduaren 28an ordainduko diete udal langileei. 2013ko abenduko aparteko ordainsaria udan jasoko dute langileek.

Oñatin, Bildu zein EAJko zinegotziak ados zeuden dekretua "bidezkoa ez" eta "inposizioa" zela esaten. Han ere, udako aparteko paga urtarrilera aurreratuko diete udal langileei.

Aretxabaletan, 2012ko 14. ordainsaria ez ordaindu eta hori fondo batera bideratzea erabaki du Udalak. 2013ko ekaineko eta abenduko ordainsariak aurreratu egingo dituzte. Udal langileek desadostasuna aditzera eman zuten, idatzi baten, eta Gabonetako ordainsaria ordaintzea "borondate kontua" dela azpimarratu zuten. Baina alkateak gogorarazi du borondatea baduten arren, ordainduz gero prebarikazioan jausiko liratekeela.

Eskoriatzan, langileekin hainbat batzar egin dituzte udal agintariek, eta aurrerantzeko aparteko pagak urte erdi aurreratzea adostu dute.

Antzuolako udal langileek 26an, kobratuko dute abenduko nomina, eta datorren urteko aparteko pagak urtarrilaren 5ean eta ekainaren 20an kobratuko dituzte.

DATUA

14.
PAGA
Urteko 14. ordainketa da abenduko aparteko paga. 20/2012 dekretuak hori murrizten du sektore publikoko langileendako.

6
HILABETE
Kalte ekonomikoa saihesteko, udal langileei sei hilabete lehenago ordainduko dizkiete 2013rako aurreikusitako aparteko pagak.

Inor erroldatuta badagoela ziurtatzeko gomendioa

L.K. | ARRASATE

IBIa, Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga, dezente garestiago ordaindu beharko dute urtarrilaren 1ean inor erroldatuta ez duten Debagoieneko etxebizitzen jabe gehienek datorren urtean. Hala, Arrasaten, aurten baino %50 gehiago ordaindu beharko dute; Oñatin eta Eskoriatzan, %100 gehiago; eta Bergaran, %150 gehiago. Kostaldeko udalerri batzuetan ere badaude igoerak; adibidez, Zarautzen, %100 garestiagoa izango da hutsik dauden etxebizitzen IBIa; Zumaian, %50 garestiagoa.

Bada, COAPIk, Inmueble-Jabetzako Artekarien Gipuzkoako Kolegio Ofizialak, etxebizitza errentan emanda duten jabeek etxe horretan norbait erroldatuta badagoela ziurtatu dezaten gomendatzen du.

Ogasunarekin tratuan

Salbuespen batzuk daude –udal bakoitzaren ordenantzak zehazten ditu horiek– baina salgai edo alokagai eta hutsik dauden etxebizitzak ez dira horietako bat. COAPI Ogasunarekin lantzen dabil merkatuan dauden etxebizitza horiek salbuetsita geratzeko aukera.

Bestalde, Ogasunak ohartarazi du iruzurtzat joko dituela IBI garestiagoa saihesteko bakarrik egin diren erroldatzeak.

Salva Gonzalez | Kaleratzeak Stop! Debagoiena plataformako kidea

"Euren tasatzaileak erabili zituzten bankuek, eta neurriz kanpo tasatu zuten etxea"

Etxe-kaleratzeak gerarazteko iniziatiba aurkeztuko dute Espainiako Kongresuan

L.K. | ARRASATE

Salva Gonzalez Goiena *Magazinea*-ko ekonomia tartean izan zen.

Zenbat etxe-kaleratze egon dira Debagoienean, zuek dakizuela?

Informazio zehatzik ez daukagu. Bailaran, izan dira kasu batzuk, baina egon dira, baina gu enteratu gabe, jendeari lotsa ematen diolako guregana etortzeak eta hipoteka ezin ordaindu dabilela onartzeak. Oñatin, nik dakidanez, hiru kasu daude, eta Arrasaten, gutxienez, bi.

Sinadurak batzen zabiltzate...

Bai. Estatuan 750.000 inguru, badaukagu, baina zenbat eta gehiago, hobeto. Espainiako legebiltzarrean aurkeztuko ditugu.



Salva Gonzalez. | L.K.

Ze proposatzen duzue, bada?

Herri-iniziatiba parlamentarioa (ILP) bultzatu genuen. Lehenengo erreibindikazioa da etxebizitza ordain gisa ematea, atzeraegineko ondorioekin; kaleratzeak bertan behera geratzea; eta alokairu soziala, pertsona hori etxean geratu ahal dadin. Alokairu horren neurria, gure ustez, izan behar da beraiek kobratzen dutenaren %30. Bestalde, mozioak aurkezten gabiltza, eta astelehenean aho batez onartu zen Bergaran.

Bankuengana zuzendu zarete?

Bai. Donostian, Kutxabanken egoitza nagusian izan ginen, eta Ordizian ere bai. Ordizian, banketxeek bere tasatzaileak erabili zituzten eta tasazioa handiegia zen. Oso etxe zaharrak ziren. Gainera, etorkinei eman zizkieten maileguak. Diru-maileguak handiegiak ziren eta, etorkinak lan barik geratu zirenean, ordaindu gabe geratu ziren maileguak. Eta normalean, epaileak esaten duenean kaleratzea egin behar dela, bankuak ez du lehenengo saiakeran enkantean dirurik eskaintzen, ez eta beste inork ere; eta bigarrenean, bankuak aukera dauka etxe hori tasazio-prezioaren %60an eskuratzeko.

Langabezia-maila %16ra ailegatuko da 2013an

Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak aurreikuspen txarrak ditu Euskadirako eta Espainiarako

L.K. | ARRASATE

Euskal ekonomiak krisian jarraituko du 2013an, Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak iragarri duenez. Barne Produktu Gordina puntu bat jaitsiko da eta langabezia-maila %16 izango da.

Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxa kreditu kooperatibak eguaztenean aurkeztu zituen 2013ko ekonomiaren gaineko aurreikuspenak, eta, horien arabera, 2013 bukaerara arte ez da BPGa handituko.

Aurten baino okerrago

Abenduan BPGa %1 jaitsita, langabezia %14,9ko mailarekin eta 2,4 puntuko inflazioarekin bukatuko da, kooperatibak esan zuenez. Datorren urtean, bakarrik inflazioa ez da handituko.

Espainiarako aurreikuspenak ere eman zituen Euskadiko Kutxa-Ipar Kutxak: BPGa %1,4 txikitzea eta %27ko langabezia-maila.

Xabier Egibarrek, Negozio garapen zuzendariak, eta Azterketa saileko zuzendariak, Joseba Madariagak, eman zituzten datu horiek. Gaineratu zutenez, Espainiak erreskatea eskatuko duen edo ez aldatu egingo dira iragarpenak.

Adegi ere, ezkor

Adegi patronalak ere beltzez margotu zuen 2013a. Jose Miguel Aiertzak Euskadi Irratian esan zuenez, 2013a ere "atzeraldi" urtea izango da Euskadin eta Espainian, eta internazionalizazioa berriz izango da gakoa enpresendako.

Idoia Sara | MUko euskarazko gradu amaierako proiekturik onena

"Argi eta garbi, zintzotasunez hitz egin behar zaie heriotzaz umeei"

- Gure gizartean beldurrak eta tabuak oraindik ere badaudela azaleratzen du Idoia Sarak
- Heriotza umeekin lantzeko proposamena egin du: literatura eta ipuinak erabiliz eskolan

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Heriotzaren trataera eskolan izeneko lana saritu dute MUko ikasleen euskarazko gradu amaierako proiekturik onen moduan. Idoia Sarak psikopedagogia ikasketak egin ditu; hura da egilea. Bizipen pertsonal batek bultzatu du gai horri buruz idaztera:

***Heriotzaren trataera eskolan* izeneko gaia aukeratu duzu. Nolatan? Zerk bultzatuta?**

Bizipen pertsonal batetik abiatutako gaia da. Psikopedagogiako bigarren maila egiten ari nintzela, ustekabean bikotekidea hil zitzaidan. Garai hartan bi alaba genituen, 8 eta 2 urtekoak. Alabekin eta familian bizitzen ari ginen giroaz eta egoeraz oso kezkatuta nengoen. Hala, heriotzaren eta heriotzaren pedagogiaren inguruan irakurtzen hasi nintzen. Konturatu nintzen bibliografia dezente dagoela horren gainean; baina, bestalde, hutsune bat sentitu nuen familian eta eskolan. Irakasleak ez zekiten ongi nola heldu gaiari. Eta hala, hasi nintzen kezka guztiak batu eta gaia lantzen eta forma ematen. Ekarpen polita izango zela uste nuen eskolan lantzea heriotzaren gaia.

Eskoletan hutsunea dagoela diozu. Nola jokatzen da kasu horietan?

Nire esperientziaren arabera esan dezaket momentuari aurre egiten zaiola ahal den moduan. Heriotza hurbil gertatzen denean, irakasle bakoitzak ahal duena egiten du. Zoritxarrez, gehienetan ez gaude ongi prestatuta, beldurrak ditugu eta tabuak daude gizartean eta eskolatan. Ahal den moduan heltzen zaio. Askotan baliabide gutxirekin eta lagunen laguntzarekin tratatzen da, modu inprobisatuan; baina heriotzarena gai oso serioa da.

Gizartean tabu izaten jarraitzen du, batez ere umeekin berba egiterakoan.

Heriotzaz berba egitea ez zaigu gustatzen, ez da erreza. Eta tokatu arte ba ez dugu hitz egiten ezta ere gizartean. Gure gizartean dauden baloreak beste mota batzuetakoak dira. Ez zaigu gustatzen tristezia moduko sentimenduak erakartzen duten egoera. Orduan, existituko ez balitz bezala jarduten dugu, baztertu egiten dugu. Batzuetan babestu nahian ez eta garelako eroso sentitzen, beste gauzetaz mintzatzen gara eta ez heriotzaz. Ondorioz, kontrako efektua lortzen dugu.

Idoia Sara haur hezitzaile iruindarra, Arrasateko Otalora kalean. | MAIDER ARREGI

Babesik gabe uzten ditugu eta behar den giza eredua ez diegu ematen; ez ditugu emozionalki prestatzen, osasuntsu izaten. Oraindik ere hor dago gizartean jarrera hori.

Lan onen ardatz nagusiak zeintzuk dira?zein izan da prozesua?

Hasieran banekien gaia landu nahi nuela. Gai oso zabala eta konplexua da; eta ez nekien zehatz zer hartu zer utzi. Gehienbat gizarte mailan landuak daude dolu prozesuak. Baina garbi nuen hori ez nuela landuko. Horretarako espezialista daude eta ez nuen nire burua ikusten hor. Nire arloa gehiago da pedagogia, modu prebentiboa lantzea. Nireako, garrantzitsuena, heriotzaren pedagogia sustatzea eta bultzatzea zen. Heriotza gertakaria izan baino aurretiazko baldintzan aritzea, alegia. Proiektuaren marko teoriko batean azaltzen dut heriotzaren gaia tratatzearen garrantzia eta aldarrikatzen dut heriotzaren pedagogia, batzuek diote biziaren pedagogia dela ere; atala inportantea da.

"Umeei beldurrak transmititzen dizkiegu, eta hori ekidin behar dugu"

"Beste edozein gai moduan landu beharrekoa da: naturaltasunez"

Bestalde haurrei ere hitza eman nahi izan diezu.

Bai. Proiektuaren beste atal batean bost urteko umeek zer dakiten, zer uste duten heriotzaren inguruan jakin gura nuen. Gauza asko dakizkite, uste duguna baino gehiago. Horrek erakutsi zidan badela haien interesgunea. Dakizkiten gauza gehienak, erritoekin lotutakoak dira –hiletekin–; fantasiarekin ere nahasten dute heriotza –marrazkietan ikusitakoarekin–. Naturaltasun handiz hitz egiten dute heriotzaren inguruan gainera.

Interesatzen zitzaidan ere irakasleek eta hezkuntzako profesionalek zer zioten. Ea nire moduan ikusten zuten eskolan hutsune bat bazegoela. Galdetegi batzuen bitartez egin nuen ikerketa. Ondorioetan atera zen irakasleak baliabide gabe daudela, hain justu ere.

Literatura eta ipuinak.

Proposamen txiki bat egiten dut, literatura eta ipuinak erabiltzea heriotza lantzeko. Izan ere, eskola baliabide oso ona da liburuendako eta litueraturarendako. Sentimenduak nagusiki lantzen dituzten liburuak naturaltasunez eskoletan txertatzea eta lantzea gurako nuke.

"Umeek heriotzaren gainean guk uste duguna baino gehiago dakite"

"Irakasleei baliabideak falta zaizkie heriotza lantzeko"

Beste edozein gai moduan landu behar da?

Heriotzaren pedagogiak naturaltasunez hitz egin eta landu behar dela dio. Beste edozein gai balitz moduan. Haurrengan badago interesa eta horri erantzuna eman behar zaio. Nolabait, hezkuntza osatuago eta humanoago baten alde eginda.

Zer da gaizki egiten duguna?

Gure beldurrak transmititzen dizkiegu; hori ekidin behar da. Naturaltasunez eta zintzotasunez hitz egin beharko genuke; barrutik, sentimenduetatik. Onartu behar dugu denendako erantzunik ez dugula. Lasaitasunez hitz egin behar dugu umeekin; haurrak oso trebeak eta azkarrak dira eta ondo markatzen dute noraino jakin nahi duten. Argi eta garbi, zintzotasunez hitz egin behar zaie.

Aholku berak, adin ezberdinetako umeendako?

5 urtekoek eta 15ekoek ez dute berdin ulertuko; zalantzak ere ezberdinak izango dira. Baina moduak berdina izan behar du: zintzotasuna eta argitasuna. Kontuan hartu behar dira adin bakoitzaren ezaugarriak.

ZABALIK

JON ETXEBERRIA
http://goiena.net/iritzia/

Laugarren boterea

Azaroko hauteskundeak Kataluniako historian leku berezi bat izatera deituak ziren. Emaitzen ikuspuntutik ezin daiteke esan horrelakorik gertatu zenik (parte-hartze aparta izan ezik), baina kanpainan zehar bai gertatu zela aipatzea merezi duen gertakari garrantzitsu bat: *El Mundo* egunkariak Madrildik hauteskundeen emaitzetan eragiteko egin zuen ahalegina. Kazetari katalan baten hitzetan, "M-11 bat eragiten saiatu ziren", hildakorik gabe, hori bai, baina efektu berarekin: hauteskundeak baino egun gutxi batzuk lehenago herritarrengan inpaktu sakon bat sortzea beraien botoan eragin ahal izateko. Horretarako, ustezko txosten polizial bat filtratu zuten CiUko buruzagien iruzurrak agerian utziz (Suitzako kontuak). Ondoren demostratu da epailearen aurrean txosten hori faltsua dela eta ez zuela poliziak sortu, baina kanpainan zehar oihartzun handia izan zuen eta *El Mundo*-ren beraren inkesta baten arabera katalanen %60,7k sinetsi egin zuten notizia.

"Inkesta baten arabera, katalanen %60,7k sinetsi egin zuten notizia"

Zenbateraino izan zuen eragina emaitzetan? Ezin daiteke jakin, eta adituak ere ez datoz bat (batzuen ustez, Mas-en erorketa boto intentzioan lehenagotik omen zetorren). Dena den, berriz ere agerian jarri da komunikabideek duten botere itzela, eta botere hori fede onez edo txarrez erabiltzea beraien eskuetan bakarrik dagoela. Erresuma Batuan, *News of the World* egunkariak eskusibak lortzeko bidezkoak ez ziren bitartekoak erabiltzen zituela jakin zenean, komisio judizial bat martxan jarri zuten (Leveson Inquiry). Komisio honek bere ondorioetan komunikabideak erregulatzeko lege bat ezartzea proposatu du, orain arte bezala beraien "borondatean" bakarrik oinarriturik egon ez daitezen. David Cameron Lehen Ministroak oraingoz ez du onartu proposamena, eta komunikabideei beraien burua erregulatzeko proposamen serio bat egiteko epe bat eman die. Ez dago argi nola amaituko den gai hau, baina ez litzateke harritzekoa izango gurera ere horrelako zerbait iristea epe laburrean...

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

Oñatiko Bertso Eskola

Oñatiko Bertso Eskolakoek arrakastaz egin dute aurten ere herriko txapelketa. Bertsozale garenoi bertsoaz gozatzeko aukera eman digute, aretoak beteta maila ederra erakutsiz. Bertso Eskolakoen ekarpena, baina, saio zehatz batzuen ondorioz egiten dena baino handiagoa eta garrantzitsuagoa da, eremu zabalagoari eragiten diona. Haien lanak ikusarazten du dibertitzeko aukera, sormenerakoa, biltzeko modua, norberaren abildadeak erakustekoa, jolastekoa, gozatzekoa, kantatuz edo entzunez, eta euskaraz. Horrelako ekimenak dira, beste batzuen artean, jendarte bat bere hizkuntzara konektatuta egotea eragiten dutenak. Zorionak, beraz, eta segi horrelaxe!

KALE INKESTA

Ze iritzi duzu Gobernu eta lehendakari berriaren gainean?

MARIA ANGELES DE LA CRUZ
ARRASATE

"Eusko Jaurlaritza zuzentzeko pertsona aproposa ikusten dut Urkullu. Asko poztu nau Gobernu aldaketak".

GURUTZE MUJIKA
ARRASATE

"Eusko Jaurlaritzan zortzi sail izatea asko iruditzen zait. Politikariak, kopuru aldetik, soberan ditugu".

GARIKOITZ BARRUTIA
ARRASATE

"Gauza gutxi espero dut Gobernu berriarengandik. Beti betikoak dabiltza eta ondo legoke aldaketa, egoerak eskatzen du".

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA
ARRASATE

"Hauteskundeetan hori atera zen eta ondo dago, herriak aukeratu zuen-eta. Agintaldi gogorra izango da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Xabier Elorriaga, ETBren Anbotoko Mari

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

Ez, segurutik, ETBren historiaren langile-zerrendan ez da sekula Xabier Elorriagaren izenik agertuko. Seguru asko ez zuen sekula sartu-irteneko erlojuan fitxatu beharrik izan. Behar bada ez zen haren izenik kreditoetan inoiz agertu. Baina Xabier Elorriaga, Anbotoko Mari bailitzan, hantxe izan zen, hantxe izan genuen, ETBren haurgintza-minetan eta ondoko inude-lanetan.

ETBk hogeita hamar urte beteko ditu hilaren 31an.

Honezkero hainbat programa, saio, erreportaje, kronika eta elkarrizketa egin da sorrera haren oroitzapenetan eta ondoko egun, aste eta hilabeteetan ere ildo bereko gehiago egin ahal izango dira.

Orduko asmoak, egoerak, baldintzak, zailtasunak, eragozpenak, aukerak eta protagonistak han-hemenka gogoraraziko dira eta, inor gutxietsi gabe, beldur naiz ez ote den garai hartan bastidore artean izan genuen bakarrenetako maisuaren izena, beste behin, ahaztuko: Xabier Elorriaga.

Xabier Elorriagak (Maracaibo, 1944) 25 urte besterik ez zituen Euskal Herrira estreinako etorri zenean eta, gerra osteko lehen Eusko Jaurlaritzak (1980-1983) ETB sortaraztea erabaki zuenerako, kazetaritza-ikasketak eginak zituen, Bartzelonako Informazio Zientzien Fakultatean irakasle ziharduen, zortzi filmetan aktore-lanetan aritua zen eta *La brújula* programaren editore eta aurkezle zen TVEn.

Llabur-llabur esanda, guk denok elkarrekin baino esperientzia gehiago zuen Xabierrek kazetaritzaz, zinegintzaz eta telebistaz.

Martin Ibarbia eta biok lehen aldiz bildu ginen Xabierrekin, ETBren programazioaz hitz egiteko, 1982ko martxoan, Eibarko Udaletxean Mikel Larrañaga alkateak arbel eta guzti utzi zigun gela batean.

Xabier Elorriagak parte hartu zuen, Iñaki Beobiderekin batera, Donostiako Prim kalean eratu ziren lehen *casting* frogetan; Xabier Elorriaga izan zen ETBn "txoria" hautatzeko eta erabakitzeko bileretan; Xabier Elorriaga izan genuen argi-mutil, Gabon Zaharretan antenaratzeko 1982ko abenduan zehar presaka eta harrapataka burutu behar izan genituen katramila guztietan; Xabier Elorriaga izan zen ETBko kapitan pilotu, abenduaren 30an eta 31an, 48 ordu jarraian, bertatik ateratzeke eta batere oheratu gabe; eta, 1983ko lehen sei hilabeteetan, Xabier Elorriaga izan zen gure oilaloka Durangon, txita jaioberriok hegan ikasi-edo arte.

Ez, segurutik, ETBren historiaren langile-zerrendan ez da sekula Xabier Elorriagaren izenik agertuko. Seguru asko ez zuen sekula sartu-irteneko erlojuan fitxatu beharrik izan.

Behar bada ez zen haren izenik kreditoetan inoiz agertu. Baina Xabier Elorriaga, Anbotoko Mari bailitzan, hantxe izan zen, hantxe izan genuen, ETBren haurgintza-minetan eta ondoko inude-lanetan.

ETB zorretan zaio Xabier Elorriagari.

Gutxieneko aitormenen bat zor dio.

Eskerrik asko esatea baino

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Julen Iriondo
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

IRABAZLEAK

ZORIONAK, GUZTIOI!

FIDELTASUN SARIAK AISIA DEBA HOTELEKO BONOAK

A saria

Iñaki Larrañaga Alberdi
(Bergara)

B saria

Emazteak jaso zuen saria bere ordez

Jesus Mari Garitano Sanchez
(Bergara)

C saria

Mari Nati Olabek jaso zuen saria bere ordez.

Jose Antonio Jauregi Intxauspe
(Aretxabaleta)

C saria

Iñaki Azagirre Urizar
(Bergara)

A saria: Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin + spa zirkuitua)
B saria: Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gosaria eta spa zirkuitua
C saria: Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.

A saria

Amaia Altuna Sagasta
(Arrasate)

B saria

Arantzazu Barrutia Mitxelena
(Bergara)

SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

Mikel Lasa Erle
(Arrasate)

XBOX 360 + HALO REACH JOKOA

EROSKI

Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com*
goienakluba.com
Urteko kuota: **50 €**.

goienakluba“
Abantailaz betetako kluba!

HERRIAK

ONATI

Arantzazuko aterpetxea

- 46 lagunendako tokia izango du eta 2013an hasi eta bukatzea da asmoa
- Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak izango du kudeaketaren ardura

OIHANA ELORTZA | OÑATI

46 lagunendako tokia izango duen aterpetxea egingo dute Arantzazun, Gandiaga gunean. Proiektua eginda dago, eta obrak esleitzeko kontratua prestatzen ari dira orain. Asmoa da lanak datorren urtean hasi eta bukatzea.

Hasierako tokian

Arantzazuko eraberritze lanak egin zituztenean aurreikusi zuten aterpetxe bat egitea Gandiaga gunean, 2001ean. Orduan, baina, proiektuak ez zuen aurrera egin, finantziazio arazoak tarteko, eta orain emango diote forma orduko asmoari.

Eraberritzeko lanak diseinatu zuen Migel Alonso arkitektoaren Iruñeako Alonso, Hernandez ¬ Asociados S.L. enpresak egin du proiektua. "Eraikina bera frantziskotarrena da, baina erabileraren ardura Arantzazu Gaur Fundazioak dauka. Horko kide da Oñatiko udala, eta urtero egiten duen aportazioa proiektu zehatz batendako izatea eskatu zuen, eta aterpetxearendako izango da. Azaroan eman zuen udalak obrak egiteko lizentzia eta asmoa da 2013 hasieran esleitzea eta urtea bukatu aurretik amaitzea", azaldu du Arantzazu Gaur Fundazioko kudeaketa arduradun Juan Biain oñatiarrak.

Natura eta turismoa

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak kudeatuko du aterpetxea. "Helburua da natura eta turismoa lotzen dituen ekimenetara bideratzea aterpetxea. Logelak handiak dira, eta sukaldea izan arren, ez da jatetxe zerbitzurik egongo. Norberak prestatutakoa jateko tokia izango da jangela. Asmoa da aterpetxea erabiltzera gaueko eta goizeko lehen orduko zerbitzuetarako, eta eguna Arantzazu eta inguruaz disfrutatzeko izatea. Jatetxea edo logela txikiak gura dutenek, badute bestelako eskaintza Arantzazun, honek aterpe zerbitzua emango luke bakarrik", zehaztu du Juan Biainek.

Aterpetxea egunero eta orduoro zabalik egotea da asmoa, baina horren inguruko xehetasunak oraindik zehaztezke daude. "Kudeaketa, esan bezala, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak izango du, baina oraindik ezin da esan zenbat lagunek lan egingo duten hor, ze ordutegi izango duen edo zer zerbitzu eskainiko duten barruan", argitu gura izan du Biainek.

Aterpetxea egiteko lanak 330.000 euroko aurrekontua izango du eta urtebetean egitea aurreikusten dute.

Gandiaga 1 eraikinaren izkina baten dagoen eta laranjaz adierazi dugun horretan egingo dute aterpetxea. | O.E.

Dena solairu bakarrean

46 lagunendako tokia izango du aterpetxeak. Gandiaga guneko. sarrera nagusitik sartu, eta lehen pisuan egongo da, dena solairu bakarrean. Bakoitzak 12 litera izango dituen lau gela, jangela eta sukaldea izango ditu, komunez gain, mugikortasun arazoak dituztenendako egokituta egongo da. Garbigailuak jartzeko prestatuta egongo da.



Aterpetxearen maketa, 3Dn. | ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA

Lujanbio eta Elortza AEDk antolatutako bertso saioan. | ANDER MONEDERO

Urteaga eta Azkarraga-Urizar Maria Asun Iturberi saria ematen. | A.M.

Barazki azoka. | A.E.

Umeak Luxiferri begira. | ARANTZAZU EZKIBEL

Nafarroak eta Gipuzkoak aizkorarekin indarrak neurtu zituzten . | JAGOBA DOMINGO

Barazki lehiaketa herrian bertan

Maria Asun Iturbe Bedoñarrak irabazi zuen barazki lehiaketako lehenengo saria. Herriko saltokirik onenaren saria, berriz, Rakel Perez de Arenazarentzat izan zen eta Jose Lonbide aramaioarrak barazki ekologikoen saria jaso zuen.

ARRASATE

Eguraldiak lagunduta, giro aparta aspaldiko Santamasik jendetsuenean

Goizean goizetik ez zen girorik falta izan Arrasateko kaleetan, bertakoekin eta kanpotik etorritakoekin

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Goizean goizetik ez zen girorik falta izan Arrasateko kaleetan. Egubakoitzean motorrak berotuta eta Luixifer txerria ezagutu ondoren, zapatuan iritsi zen egun handia. Baserritar jantziak soinean, kalera irten eta talo eta txistorraz, artisau, animalia eta barazki azokaz eta kaleko giroaz gozatzeko eguna izan zen. Gainera, aurtengo Santamas eguna zapatua izan denez, kanpoko jende asko etorri zen Arrasateko egun handiaz gozatzera.

Santamasero bezala, ez ziren falta izan Iturengo Joaldunak eta herri kirolak Zaldibarreko pilotalekuan. Aurten, lehenengo aldiz, herriko alboka jotzaile talde batek, kalejira egin zuen eta, txalaparta eta pandero jole batzuekin batera, herriko plazan erakustaldi bikaina eskaini zuten.

Txerri dantza

Goizetik hasita, herriko dantzariek euskal dantzen erakustaldia egin zuten eta 13:30 aldera herriko plazan elkartu eta denek batera Txerri dantza egin zuten. Iluntzean ere, jaiei amaiera emateko, dantzariek erakustaldia egin zuten. Goizean bezala, herriko plaza bete egin zen Txerri eta Larrin dantzak ikusteko.

Dantzaren ostean Luxiferren txanda izan zen: txerri zozketako zenbaki saritua zein zen erabakitzeko garaia; 4.930 zenbakiaren jabearentzat izan zen Santamas eguneko saria.

GOIATZ MURUA
ARRASATE

"Horrelako egunek baserritarren lana ezagutu eta baloratzeko balio dute: animalien zaintza, ortuak eskatzen duen lan handia...".

ARANTZAZU LAGUNILLA
ARRASATE

"Kakorratzarekin egindako gauzak ekarri ditut: bufandak, txanoak... Jende asko etorri da postura eta salmentak ere ondo joan dira".

IBAI AKIZU
ARETXABALETA

"Eguraldiak kalera irteteko lagundu du gaur, orain txistorra apur bat jan, sagardoa edan eta bazkalordura arte dagoen giroaz gozatuko dugu".

MARIA ASUN ITURBE
BASERRITARRA

"Poza ematen du saria jasotzeak; egia esan, Arrasaten baserriak nahikoa desagertuta daudela ikusita, hemen gauden guztiok merezi dugu saria".

MIREN ARANBURU
OÑATI

"Aurten zapatua denez, etortzeko aukera izan dugu. Taloa hartzeko ilara handia itxaron behar izan dugu eta orain animaliak ikusiko ditugu".

Gabonetan ere...
Nik maite dut euskara

2012-2013 IKASTURTEA

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net
Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

UDAL EUSKALTEGIAK

Urtarrilean, berriro ere matrikula zabalik

Gaztetxearen inaugurazioan, dantzariak dantzatzeko prest eta atean bi gazte politikari mozorrotuta. | IMANOL SORIANO

Inaugurazioa ospatzeko bazkaria egin zuten gazteek. | A.T.

OÑATI

Inauguratu dute Antixenako gaztetxea

Zapatuan ospatu zuten inaugurazio festa; ekitaldiz betetako eguna izan zen eta 70 gazte elkartu ziren

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Zapatuan inauguratu zuten modu ofizialean Antixenako gaztetxea. Guztira, 70 lagun inguru elkartu ziren eta egun osoko egitaraua izan zuten.

Poteoan 12:00etan hasi ziren eta barazki erraldoien laguntza izan zuten gazteek, eurekin batera ibili baitziren porru burua, arto-burua, sukaldaria edota azenario erraldoia. Lagun horiek izan zituzten, garai batean sukaldaritza eskola izan zelako gaur egun gaztetxea den eraikina.

Eguerdian sukaldarien eskutik pregoia egin zuten eta bertan azaldu zuten gaztetxearen funtzionamendua asanblada bidezkoa izaten dela, matxismoa edota arrazismoa ez direla onartzen eta irudimen eta sormenari zabalik daudela.

Gazteetako bi politikari mozorrotu ziren eta ekitaldi ofizialetan bezala aurreskua dantzatu zieten politikariei herriko bi gaztek. Ondoren, zinta mozketa egin zuten.

Bazkaltzeko salda eta makarroiak hainbat saltsarekin izan zituzten eta arratsaldean jokoak eta dantzak izan ziren. Egunari amaiera emateko, kontzertuak izan zituzten Zurraia eta Frantseska taldeen eskutik.

Maria Apaolaza gaztetxeko kideak esan zigun eguna "oso ondo" joan zela eta pozik zeudela. Gaineratu zigun gaztetxeak jendea behar duela, bestela ez dela posible.

Kamisetak salgai

Inaugurazioarekin batera, gaztetxearen logotipoa ere aurkeztu zuten eta irudi horrekin egindako kamisetak eta kirol-jertseak salgai izan zituzten. Kamisetak zortzi eurotan eta kirol-jertseak 18 eurotan.

Patea saltzen zen postuak arrakasta izugarria izan zuen. | A.T.

BERGARA

Harrera ona izan du urteroko Napar Feriak

Lasai Toki elkarteko kideek irabazi dute aurten elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa

A.T. | BERGARA

Eguraldi ona lagun, giro ederra eta harrera ona izan ditu Bergarako XX. Napar Feriak. Napar Bidea izeneko kooperatibako kide diren bederatzi postu egon ziren zapatuan San Antonio plazan eta salgai izan ziren, besteak beste, honako produktuak: patea, turroiak, pastelak, barkilloa, almendrak, txorizoa, gazta eta patxarana.

Patxi Uribesalgo antolatzaile taldeko kideak esan zigun "oso pozik" daudela aurten feriak izan duen harrerarekin: "Bergararrek ohitura dute San Antoniora etortzeko, Gabonetarako produktuak erosten dituztelako bertan".

Sukaldaritza lehiaketa

Azken bost urteetan bezala, sukaldaritza lehiaketa ere egin zuten. Bost elkarte aurkeztu ziren eta patatak bakailaoarekin prestatzen onenak Lasai Toki elkartekoak izan ziren.

IÑIGO ZAITEGI
EPAIMAHAIKO ARDURADUNA
"Sukaldaritza lehiaketan oso zaila izan da nork irabaziko zuen erabakitzea, puntuazio oso parekatuak egon dira. Oso pozik gaude egunak emandakoarekin, eguraldiak ere lagundu digu".

BIXENTE PAGALDAI
BERGARA
"Gazta zati bat erosi dut, asko gustatzen zait-eta. Pintxo eta zuri pare bat ere hartu ditugu. Napar Feriara oso genero ona ekartzen dute eta Gabonetarako beti zerbait erosten dugu; txokolatea eta turroiak".

LUIS PAYROS
BERGARA
"Urtero etortzen naiz Nafar Feriara andrearekin batera. Gazta pixka bat erosi eta postuak ikusten buelta bat ematen dugu. Giro oso polita dago, urtero etortzen gara eta asko gustatzen zaigu".

PRESEN IBARZABAL
BERGARA
"Oso ondo doa goiza, urrutitik etortzen dira postuetakoak eta behin hemen egonda buelta bat ematea beharrezkoa da. Barkilloa, euskal pastela eta patea erosi ditut eta zezentxoak ikustera goaz orain".

ELGETA

30 jostailutik gora Elgetako Gabonetako truke merkatuan

Antolakuntzakoak pozik izandako erantzunarekin, lehenengo aldia izan baita

Plazan ipini zuten mahai bat, trukerako jostailuekin. | LARRAITZ ZEBERIO

J.B. | ARRASATE

Jostailu trukea egiten den lehen urtea izan da Elgetan eta 30 bat jostailu jaso dituzte, elkartrukerako, lehenengo honetan. Antolakuntzatik, hortaz, pozik daude lehen proba honetan izandako erantzunarekin.

Udalak antolatuta, azken asteetan jostailuak jasotzen ibili dira udaletxean eta domekan egin zuten trukea. Hain zuzen ere, 11:30ean hasi ziren jostailu eta jolasen trukearekin eta jostailu guztiak plazan ipini zuten mahai baten kokatu zituzten.

Hurrengora begira

Lehen urtea izanik, antolakuntzakoak pozik zeuden izandako erantzunarekin, plazan bertan. Hori bai, kontatzen dutenez, batek baino gehiagok atzo bertan izan zuen ekimenaren berri eta, gauzak horrela, ez ziren gutxi izan domekan bertan, egiten zebiltzana ikusita, jostailuekin gerturatu zirenak.

Hala, datorren urterako erantzun hobea espero dute antolakuntzatik, aurten gogoarekin geratu direnek hurrengo urtean parte hartuko baitute, errebote efektuarekin.

LEINTZ GATZAGA

425 gramo angula zegoen Korrikaren aldeko apustuan

J.B | LEINTZ-GATZAGA

Korrika batzordea osatu eta euskararen aldeko egitasmoa laguntzeko apustua eta poteoa antolatu zituzten barikurako Gatzagan. Porra deigarria egin zuten gainera, edukiontzi baten uretan zeuden angulen pisua asmatu beharra zegoen. 120 bat lagunek egin zuten proba eta benetako pisura gerturatu zena Ino Galparsoro arrasatearra izan zen. 425 gramo angula zegoen uretan eta 400 gramotik gorako zenbakia gutxik eman zuten. Apustua bi eurotan zegoen. Horrekin batera Korrika laguntzeko pintxo-poteoa ere izan zuten.

Batzordea, eratuta

Korrika geroago eta gertuago dago; martxoaren 14an hasiko da Andoainen. Gatzagan eratu dute taldea, hamarren bat lagunekoa. Urtarrilerako afaria antolatu dute eta izenematea zabalik dago dagoeneko.

Angulen edukiontzia eta emakumea begira. | IMANOL SORIANO

Olentzero iaz, Nafarroa etorbidean, *Portaloia* atzean duela. | NAGORE IRAOLA

Urteko egunik lanpetuena ikazkin maitatuenarentzat

Gaurko ere baserritar jantzita irteteko deia egin dute Olentzeroren Lagunek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gaur helduko da Olentzero. Urte osoan txintxo portatu diren neska-mutilak sarituko ditu Euskal Herriko ikazkin maitatuenak, eta bihurriak izan direnei, ikatz poltsa ekarriko die. Urteko egunik lanpetuena izango du Olentzerok, beraz. Eskerrak ondoan izango dituela haren mezulari leialenak: Txoronpio eta Txoronpia. Aurten ere, azken urteetan moduan, pertsonaia mitologiko baten laguntza jasoko dute Olentzeroren ohiko mezulariek.

Aurtengo protagonista Martin Abade izango da: "Komisiñoak ahaleginak egin ditu Olentzeroren jatorri mitologikoa herriari helarazteko eta horri eutsiz, aurten Martin Abade aukeratu dugu; haren kondaira Udala auzoan kokatzen da, gainera", adierazi du Santamasetako Komisiñoko Jokin Zubiriak.

Gabon kantez girotua

Auzoetan haurren gutunak jaso ostean, 13:15ak aldera Seber Altuben egingo dute geldialdia Txoronpio, Txoronpia eta Martin Abadek. Karroza inguruan joango diren haurrek, musikariek eta dantzariek Gabon kantak abestuko dituzte, "abesti errazak eta ezagunak": *Mesias sarritan* eta *Kanta dezagun denok*, besteak beste. Arratsaldean ere, Olentzeroren kalejira girotzeko kantuan arituko dira Herriko Plazara heldu arte: *Hator hator*, *Din dan don*, *Alaken*, *Kalera kalera*... Komisiñokoek baserritar jantzita irteteko deia egin dute gaurko ere.

GAURKO EKINTZAK

11:40 Txoronpiok, Txoronpiak eta Martin Abadek Munar, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte gutunak.

13:15 Gutunen bilketa Seber Altube plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Uarkapen.

18:00 Olentzeroren etorrera. Ibilbidea: San Andres, Maiatzak 1 plaza, Garibai, Maala, Portaloia, Erdiko kale eta Herriko Plaza.

19:00 Olentzeroren agurra, Mutil dantza eta Herri dantza Herriko Plazan.

Udal zerbitzuek ordutegi bereziarekin egingo dute lan aurten ere Gabonetan

Ludotekak eta erdiguneko Gaztegunea zabalik, haur zein gaztetxoendako denetariko ekintzekin

J.B. | ARRASATE

Hiribusak ohiko zerbitzua eskainiko abenduaren 24an eta 31n izan ezik; egun horietan 20:00etan amaituko da zerbitzua. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean ez da urbanorik egongo.

Biztanleen Arreta Zerbitzua ere itxita egongo da abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta abenduaren 24an eta 31n 08:30etik 14:00etara egingo dute lan. Gainerako egunetan ohiko ordutegian egongo da zabalik. Aukeako kirol instalazioei dagokienez, Uarkape eta Iturripe itxita egongo dira. Musakolako kiroldegia, berriz, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxiko dute bakarrik. Abenduaren 24an eta 31n goizez egongo da zabalik (07:00-14:00) eta gainerako egunetan ohiko ordutegian egingo dute lan, 07:00etatik 22:00etara. Emakume Txokoa itxita egongo da gaur hasi eta urtarrilaren 7ra arte. Udal biblioteka, ordea, gaur, bihar, abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Abenduaren 26, 27 eta 28an honako ordutegia izango du: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Urtarrilaren 3, 4 eta 5ean ere ordutegi hori izango du. Gazte bulegoa abenduaren 27an eta 28an, eta urtarrilaren 3an eta 4an egongo da zabalik, 11:00etatik 14:00etara. Azkenik, Sexologia zerbitzurik ez da egongo abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Bestela, ohiko ordutegia: astelehenetan goizez (10:00-13:00) eta martitzenetik eguenera arratsaldez (16:00-19:00).

Txatxilipurdin oporrik ez

Txatxilipurdiren ludoteketan ekintza bereziak egingo dituzte hilaren 26, 27 eta 28an. Urtarrilean ere, Txikilandia egon arren, zabalik egongo dira, 17:00etatik 20:00etara. Gaztetxoendako ekintzak ere izango dira Gaztegunean: txapelketak, tailerrak, euskal selekzioaren partidua ikusteko irteera... 12 eta 17 urte arteko gaztetxoek ez dute aspertzeko astirik izango, beraz.

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean ez da hiribusik egongo. | J.B.

Maika Makovskiren bizitasunak eta Mery Mayen freskotasunak bat egingo dute hilaren 28an, Amaian

J.B. | ARRASATE

Mallorcan jaiotako musikari entzutetsuak *Thank You For The Boots* diskoa aurkeztera dator Amaiara, hilaren 28an (20:00). Ikus-entzulea aho zabalik eta oilo ipurdiarekin uzten duen horietakoa da Maika Makovski, haren kantuak barruraino heltzen dira. Haren aurretik herriko musikari bat igoko da oholtza gainera: Mery May. Irlandako odola duen Arrasateko musikari gazteak freskotasuna ekarriko du Amaiara. Sarrera gehienak salgai daude oraindik *www.kutxasarrerak.net* webgunean.



Maika Makovski. | MUSICAPARAMARSUPIALES.COM

Zuzendaritza taldea berritzeko batzarra egingo du Besaidek

Besaide mendizale elkarteak urteroko Batzar Orokorra egingo du urtarrilaren 17an. 2012ko jardueraren azalpena eta 2013ko ekintza programa aurkezteaz gain, Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu behar da. Duela pare bat hilabete egungo zuzendaritza taldeak deialdia egin zuen jende berria erakartzeko: "Gonbidapena luzatzen dizugu, beldurrak alde batera utzi eta Besaide elkartera gerturatu, barne funtzionamendua nolakoa den ikusi eta Zuzendaritza Batzorde berrian parte hartzera animatzeko". Beraz, egun horretan ikusiko da jende berririk dagoen ala ez.

Porrotxek ikuskizuna eskainiko du Porrotxinekin batera urtarrilaren 4an, Txikilandia haur parkean

Txatxilipurdik joan den astean aurkeztu zuen Txikilandia Gabonetako haur parkea. Aurten hiru egun iraungo du eta adin ezberdinetako haurrendako denetariko jolasak izango dira. Urtarrilaren 3, 4 eta 5ean izango da, Uarkape pilotalekuan. Bada, Udalak jakinarazi duenez, ezusteko ederra izango da aurten: urtarrileran 4an, Porrotx Euskal Herriko pailazo ezagunaren bisita izango dute. Aurreratu dutenez, ikuskizun txiki bat egingo dute Porrotx eta Porrotxinek, bertaratutakoen gozamenerako.

Arrasateko Korrika batzordea urtarrilaren 10ean elkartuko da berriro, AEDren egoitzan

Korrika batzordearen bigarren bilera urtarrilaren 10ean egingo dute, AEDren egoitzan (18:30): "Abenduko deialdian eragile gutxi batu ginen. Dena den, badakigu oso garai txarra dela eta horregatik egiten dugu bigarren deialdi hau". Arrasatetik martxoaren 18an pasako da Korrikaren 18. edizioa, goizaldeko bostak inguruan. Egun horren bueltan antolatuko diren Korrika Kulturala, Korrika Txikia, Korrika Lagun kanpaina, materialaren salmenta eta bestelakoak zehazten hasteko egingo dute batzarra.

Rockarekin hasiko dute urtea 'Kooltur'-ekoek

J.B. | ARRASATE

Gabonetako etenalditxoa eta gero, urte berriarekin indarrak berriz hartuta etorriko da Kooltur Ostegunak kontzertu sorta, ohi bezala, egitarau aberats eta koloretsuarekin, eguenero-eguenero zerbait berezia eta desberdina eskaintzeko asmoarekin. Urtarrilerako iragarri dituztenak bi kontzertu dira: Porco Bravo eta Xabi San Sebastian band.

Rockaren bi aurpegi

Urtarrilaren 10ean joko du Barakaldoko Porco Bravo taldeak; urteko lehen kontzertua izango da, 3a ez baita saiorik egongo. 2011an aurkeztu zuten euren azkena, *Grooo!!!* izenekoa eta heavy ukituko punk eta hard-rockaren bidetik jarraitzen du laukoteak. Taldea lehenagotik ezagutzen ez dutenak ziurrenik ezustean harrapatiuko ditu Barakaldoko hauen *show* dibertigarri eta biziak.

Hurrengo eguenean Xabier San Sebastian bakarlari donostiarrak joko du bere taldearekin. *Erraiak* diskoa aurkezten dabil asteotan San Sebastian. Oraingoan, rock taldearekin, abesti gogor eta elektrikoagoekin etorriko da musikaria ohiko folka atzean laga barik.

Urte berrirako asmoak

Ikasturte berriarekin hasitako denboraldiarekin pozik daude antolatzaileak, beste behin ere, proposatutako emanaldiek izan duten harrera eta maila ona ikusita. Bat nabarmentzearren Iker Barandiaran antolakuntzako kideak Krissy Matthews blues gitarra jotzaile gazteak eskainitako kontzertu bikaina aipatzen du. Maila on horri eusten jarraituko dute urte berrian ere eta antzerki obraren bat eta nazioarteko talderen bat ekarri gura dute 2013an.

Xabi San Sebastian eta haren banda. | KAFEANTZOKIA.COM

Adjudikatu dute Takolo arteko bide proiektua

Garaia arteko errepide zaharreko gune publikoa eta ingurua urbanizatuko dituzte

U.M. | ARRASATE

Takolo eta Garaia arteko antzinako Gi-2620 errepidearen zeharbidea berriro ere urbanizatzeko proiektua idaztea adjudikatu du asteon Arrasateko Udalak. Asmatu S.L. enpresak egingo du lan hori eta 72.000 euro pasatxokoa da aurrekontua (BEZ barne). Obra egiteko, berriz, Udalak kalkulatu du 4-5 milioi euro beharko liratekeela (BEZ barik).

Idazketa

Idazketa fasean zehaztuko dira lanak izango dituen ezaugarriak eta proiektua idazteko epeari dagokionez, berriz, bost hilabete izango du Asmatu enpresak idatzitako proiektua entregatzeko. Hartara, egin beharko duen lan zehatza izango da Aramaio aldera doan errepideko lehengo zeharbideari atxikitako gune publikoa eta ondoko inguru osoa berriro urbanizatzeko proiektua idaztea.

Bidea gaur egun dagoenetan. | J.B.

Jaione Martinez eta Maria Amutxastegi | Skura Mobile

"Lehen webguneekin zena, orain aplikazioekin gertatzen dabil "

- Gailu eramangarrietarako aplikazioak sortzen dituzte Skura Mobile–en
- Gabonetarako prestatu dute kantatzeko aplikazio berezi bat

J.B. | ARRASATE

Arrasateko bi gazteek abiatutako enpresa martxa betean doa aurrera Garaia Berrikuntza Gunean. Eskuko telefono eta tablet-etarako aplikazioak egiten dituzte Eskura Mobile-en eta Gabon kanten Android aplikazio batekin eman dute ezagutzera euren lana. Ekintzailetasunaz, mugikorretarako aplikazioz eta lanaz jardun dugu eurekin.

300 deskargatik gora izan du Gabon kantuen aplikazioak.

Gure buruak ezagutzera emateko egin genuen eta harrituta gaude egin duen zaratarekin. Garaian urtero enpresetako kideek Gabon kantuen lehiaketa egiten dugu eta hortik otu zitzaigun. Astebetean pentsatu eta egin genuen.

Durangoko merkataritza jasotzen duen aplikazioarekin ibili zarete orain arte. Zelan joan da?

Epe luzerako proiektua da eta astiroago gabiltza. Orain Gabonetarako bertsio berezia atera dugu eta deskarga kopuru handia izan du.

Zer motatako bezeroak bilatzen dituzue?

Mugikorreko aplikazio bat izatea edozeinendako da interesgarria. Lehen webguneak egiten ziren moduan, orain aplikazioak egiten dira: katalogoa erakusteko, jatetxeetan menua jarri eta eskaria egiteko, langileen artean komunikatzeko... edozein erabilpen egin daiteke.

Webgune eta blogen uholdea etorri zen moduan, orain aplikazioena dator, beraz.?

Bai eta urte betean sekulako iraultza egon da, orain gure gurasoek eta guzti erabiltzen dituzte aplikazioak mugikorretan.

Skura Mobileko kideak, Garaiako bulegoetan. | J.B.

Ekintzaile hitza bolo-bolo entzuten dugu eta zuena da, hain zuzen, eredua, ezta?

Asko ikasi behar izan dugu eta urtebete besterik ez daramagu enpresa egitasmo honekin. Ikasketak amaitu aurretik garbi geneukan biok probatu egin gura genuela eta oso pozik gaude. Ate joka joan garen leku guztietan oso ondo hartu gaituzte eta lanerako gogoz gaude.

Gabon kantak, eskuko telefonoan

Android-erako gertu eta dohainik, deskargatu egin daiteke Play dendan (mugikorretik bertatik) Gabon kantak aplikazioa.

Edozein bazkari, poteo ala lagun taldetan falta ezin den aplikazioa da, Gabon kantarik ezagunenen letrak eta musika jasotzen baititu; ikasi eta kantatu ahal izateko. Internetera konektatu eta Google Play dendan aplikazioa bilatu besterik ez da behar.



Pantaila irudia. | GOOGLE PLAY

Gabonetako saskiak banatu ditu Ibai-Artek

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Gabonetako 100 saski banatu ditu bezeroen artean. Ibai-Arte txartela erabili izana saritu gura du promozioak: txartel horren erabiltzaileek –3.800 bat txartel daude– azken 20 egunotan erosketa egiteko unean bertan jakin zuten sarituak izan ziren edo ez. Barikuan egin zen banaketa.

ARIZMENDI

Gaur Olentzero eta Mari Domingi, eta bihartik aurrera umeendako ekintza gehiago

Txikienek gurasoekin batera Gabonak ondo pasatzeko ekintza ugari antolatu ditu Udalak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dagoneko jaitsi dira menditik Olentzero eta Mari Domingi kalera eta herriko neska-mutikoekin elkartzeko gogoz daude. Gaur goizean dute eurekin hitzordua, 11:30ean. Iaz egin zuten bezala, herriko hiru ikastetxeetako ikasleak elkarrekin aterako dira kantuan kalerik kale, Olentzero eta Mari Domingi lagun dituztela.

San Martin, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako haurrak aterako dira kantuan herria Gabon giroan murgilduz. Ikastetxe bakoitzak bere ibilbidetxoa egingo du lehenengo, eta 11:30ean Fraiskozurin elkartuko dira. Hortik aurrera, elkarrekin kantatuz ekingo diote bideari. Hain zuzen, Fraiskozurin izango dituzte zain Olentzero eta Mari Domingi eta haur guztiak elkartutakoan, hiru kantu abestuko dituzte, eta ondoren, hiru eskoletako ikasleek kalejiran jarraituko dute elkarrekin honako ibilbidea eginaz: Ibargarai kalea, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar ibiltokia, Barrenkale eta San Martin plaza.

Arratsaldean berriz aterako dira kalera Olentzero eta Mari Domingi. 19:00etan Udal biltegitik abiatuta, erdiguneko kaleetan barrena kantuan ibiliko dira eta San Martin plazara iritsitakoan, umetxoen gutunak batuko ditu Olentzerok, urtero egiten duen moduan.

Hurrengo egunetarako ere zenbait ekitaldi antolatu ditu Udalak (ikus beheko taula).

Umeak kantuan iaz. | MONIKA BELASTEGI

EGITARAUA

ABENDUAK 26

11:00-13:00 Ludoteka Munibe plazan jarriko dute.

17:30-19:30 Ume eta gurasoendako euskal kantu eta jolasen saioa, Zabalotegi aretoan. Ezinbestekoa da gurasoak umeekin jolastera gerturatzea.

ABENDUAK 27

11:00-13:00 eta 16:00-18:00 Ur jolasak Agorrosinen.

18:00 Teatro Paraisoren Lorategian antzezlana. 13 urte arteko umeendako. Sarrera, 4 euro.

ABENDUAK 28

11:00-13:00 Ludoteka Munibe plazan jarriko dute.

18:00 Taun-Taun taldearen Batuta antzezlana, Zabalotegin. 5 urtetik gorakoentzat. Sarrera, 4 euro.

ABENDUAK 29 ETA 30

19:00 Peten Pan musikala, Udal Pilotalekuan.

URTARRILAK 2

11:00-13:00 eta 16:00-18:00 Ur jolasak, Agorrosinen.

11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Tailerrak Agorrosinen.

11:00-13:00 Eskulanak Agorrosingo ludotekan.

17:00 Aurpegi margoketa, Agorrosingo ludotekan.

17:00 Dantza familian: jolasa, mugimendua eta irudimenaren bitartez, Agorrosingo ikus-entzunezko aretoan.

18:00 Haurrendako dantza: irudimena, mugimendua eta jolasa, Agorrosingo ikus-entzunezko aretoan.

19:00 Karaokea, Agorrosingo ludotekan.

19:15 Dantza ikuskizuna Arantza Iglesias irakasle eta dantzariarekin, Agorrosingo ikus-entzunezko aretoan.

URTARRILAK 3 ETA 4

11:00-13:00 eta 17:00-20:00:00 Jolas parkea Udal Pilotalekuan, 2 eta 10 urte artekoen umeendako. Eguneko sarrera 3 euro dira; bi egunetako sarrera, berriz, 5 euro dira.

URTARRILAK 5

17:00 Bizarzurik udaletxean umeen gutunak jasoko ditu. Arkupeetan San Joxepe elkartekokoek prestatutako txokolatea banatuko zaie haurrei.

19:00 Errege Kabalgata. Ibilbidea: Udal biltegia, Masterreka, Bideberri, Ibargarai, Herrilagunak, Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga eta Udal Biltegia.

Udalak etxetik kaleratutakoei laguntzeko konpromisoa hartu du

Alderdi guztiek eta Kaleratzeak Stop-ek adostutako mozioa onartu dute

M.B. | BERGARA

Etxe kaleratzeak salatzeko mozio bateratua onartu zuen aho batez azken ohiko osoko bilkuran udalbatzak. Gai-zerrendan Bildu, EAJ, PSE-EE eta Kaleratzeak Stop Debagoiena taldeen mozio bana zegoen, baina horiek alboratu, eta Kaleratzeak Stop Debagoiena taldeak Udaleko alderdi politiko guztiekin adostutako beste bat izan zen bozkatu zutena, eta aho batez aurrera egin zuena.

Mozio horren arabera, udalbatzak Madrilgo Gobernuari eskatzen dio Konkurtso Legea, Hipoteka Legea eta Prozedura Zibilaren Legea eta horiekin lotutako araudia alda dezala; hori guztia, "neurriz kanpoko klausulek eragiten duten babesgabetasunetik defendatzeko, eta, era berean, zordun zintzo eta ez dolozkoak, bizitzan bide berria hasterik izan dezan". Horregatik eskatzen dute "ohiko etxebizitzaren kasuetan, banketxeak hipoteka exekutatzen baldin badu eta etxebizitza bereganatu, zor osoa kitatuta gera dadila". Horrez gain, "egungo Hipoteka Legea aldatu arte benetako moratoria onartzeko" ere eskatzen du udalbatzak.

Kaleratuei lagundu egingo die

Onartutako mozioaren arabera, Udalak hitza ematen du aztertuko duela "praktika onen kodea beteko ez duen finantza erakundeekiko duen harremana". Bestalde, etxetik kaleratutako pertsona eta familiei informazioa emateko eta laguntzeko konpromisoa hartu du, eta etxea kentzeko mehatxupean daudenei, berriz, kaleratzea gelditzeko behar besteko aholkularitza ere emango die. Horretarako telefono zenbaki bat eta posta elektroniko helbide bat jarriko dute kaltetutako pertsonei kasu egiteko.

Era berean, Udalak konpromisoa hartu du "elkarlanean aritzeko kaleratzeak salatzen eta kaleratzeen aurka borrokatzen duten gizarte erakundeekin". Horretarako lantaldeak sortuko dituzte, larritasun handiko kaleratze prozesuan dauden pertsona eta familiei laguntzeko programa bat sortzeko aukera azter dezan. Hala, talde horiekin diagnostiko komuna egiteko konpromisoa hartu zuen udalbatzak, modu horretan, dagokion eremuetan urratsak eman ahal izateko.

Beste konpromiso bat ere hartu zuen udalbatzak. Hain zuzen, gaur egun erabiltzen ez dituen egoitza erabilerarako edo gizarte larrialdirako baliabideak aktibatzea herrian kaleratu dituzten familiei laguntzeko, betiere, ohiko etxebizitzetatik kaleratuak izan badira.

Hartutako konpromisoen berri, herriko banketxeei eta Madrilgo Gobernuari ere jakinaraziko diote, besteak beste.

Salba Gonzalezek, Kaleratzeak Stop Debagoiena taldeko kideak irakurri zuen mozioa bertaratutakoen aurrean, eta eskerrak ere eman zizkien alderdie mozio bateratua egin eta onartzeagatik.

Jabi Bengoa Ongizate zinegotziak ere hartu zuen hitza. Moziotik haratago, Kutxabankek burutzen dituen desjabetzeekin amaitzeko "EAJ alderdiak eragin dezakeela" esan zien talde horretako ordezkariei "Kutxabank politikoki euren esku" dagoelako. EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbidek bere aldetik, "Kutxabankeko zuzendaritza hautaketa prozesu baten ondorio" izan dela gogora ekarri eta gero, guztien artean adostutako mozioa "halakoak esanda zikintzea penagarria" iruditzen zitzaiola.

Miguel Altunak 27 ikastaro emango ditu lehen urte erdian

Miguel Altuna Institutuak gertu dauka langile eta langabeendako 2013ko lehen seihilekoan eskainiko dituen ikastaroak. Hobetuz programako ikastaroak dira eta %100 diruz lagunduta daude. Gainera, Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotuta daude. eta Eskaintza zehatza, *www.imaltuna.com* webgunean.

Pol-Polek urteko lehen mendi irteera egingo du urtarrilaren 1ean

Urtea hasi eta denbora galdu barik, lehenengo irteera egingo du Pol-Pol mendi taldeak. Hain zuen, urtarrilaren 1ean Itxumendira joan-etorria egingo dute. 09:00etan abiatuko dira udaletxeko arkupeetatik. Herritar guztiendako irekia da irteera eta dei egiten interesa duten guztiei parte hartzeko.

Guztia prest Peter Panen mundu magikoan sartzeko

Zapatuan bi emanaldi eskainiko dituzte pilotalekuan eta domekan beste bat

A.B. | BERGARA

Gabonetako hitzordu garrantzitsuenetako bat izango da, zalantza barik: *Peter Pan* musikala. Hasiera baten bi emanaldi aurreikusten ziren arren, sarrerak agortzen ari zirela ikusita beste emanaldi bat egitea erabaki zuten. Hortaz, zapatuan 19:00etan eta 22:30ean taularatuko dute musikala eta domekan, 19:00etan.

Peter Pan musikaleko aktore taldea entsegu saio batean. | JOSETXO ARANTZABAL

Herria zeharo girotuta

Bergararrak eguna iristeko irrikan daude. Izan ere, musikaleko arduradunek *Peter Pan-en* magia herri guztira zabaltzea lortu dute. Bedelkar komertzioen elkarteko dendariak eta herriko tabernariak ere inplikatu dira proiektuan.

Dendariek marrazki lehiaketa deitu zuten eta herriko ume eta gaztetxoek *Peter Pan*-en gainean egindako marrazkiak erakusleihoetan jarriko dituzte.

Egueneko pintxo-poteoan ere nabarituko da *Peter Pan*-en presentzia. Propio *Peter Pan*-en gaineko pintxo berezia emango dute tabernek, eta pintxo berezi hori, gainera, aste bukaeran ere izango da.

100 lagun taula gainean

Aitor Garitano 12 urteko bergararrak egingo du Peter Panen papera eta Wendyrena, berriz, Miren Gutierrezek. Agertokian, guztira, 100 lagun inguru izango dira, baina beste 100 herritar inguru ari dira atzean lanean.

Musikaleko piraten taldea. | JOSETXO ARANTZABAL

Ehun lagun inguru igoko dira taula gainera. | JOSETXO ARANTZABAL

San Pedro parrokiaren barrualdea ez da berrituko diru faltagatik

Martxoan amaituko dituzte eliza eraberritzeko lanak eta San Pedro egunean irekiko ditu ateak

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Eraberritze lanak zeharo amaitu gabe ireki beharko ditu ateak San Pedro parrokiak. 2011ko ekainean hasi zituzten lanak eta hiru fase aurreikusten ziren. Lehenengoan teilatu nagusia eta dorrea konpondu zituzten eta bigarren fasean gainontzeko teilatuak eta fatxada. Bada, hirugarren fasea, barruko eraberritze lanei zegokiena, momentuz bertan behera geldituko da diru faltagatik. "Erretaula eta beste egitura artistiko batzuk eraberritzea aurreikusten zen, baita argiteria aldatzea eta berogailua ipintzea. Horiek guztiak bertan behera gelditu dira momentuz", adierazi du Jon Molina parrokoak.

San Pedro berritzeko lanek hiru finantzazio iturri izan dituzte. Lehenengoa San Pedro parrokiaren patrimonioa. "Konbenio kalean eraikin bat geneukan eta baita Goenkalen ere. Horiek saldu egin genituen", dio Molinak. Bigarren iturria eliztarren eta norbanakoen ekarpenak izan dira eta hirugarrena erakunde publikoen diru-laguntzak. Azken hauek dira gehien murriztu direnak. Dena dela, parrokoak adierazi du ulertzen duela murrizketok gertatzea.

Guztiz eraberrituko ez duten arren lan batzuk egingo dituzte barruan; Zitzaren kontrako tratamendua egin dute eta argiteria hobetzeko lantxo batzuk ere egingo dira.

San Pedro egunean zabalik

Eraberritze lanak zeharo amaitu gabe baina, ekainaren 29an, San Pedro egunean irekiko ditu ateak berriro ere San Pedro parrokian. Bigarren faseko lanak martxorako amaituta egotea espero da eta ondoren denbora bat beharko da garbiketa lanak egin eta barrua egokitzeko.

San Pedro eliza. | ARRITXU BARRUSO

Amaia Txintxurreta | Disko jartzailea

"Gaztetxoak askotan taula gainera igotzen dira nirekin dantza egitera"

Errege bezperan, gauean, Munibe plazan egingo duten Dj jaialdian arituko da Amaia Txintxurreta

Bergarako gaztetxoek oso ondo ezagutzen dute Amaia Txintxurreta oñatiarra. Zabalotegiko DJ jaialdietan musika ipintzen du. Bada, urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, Munibe plazan egingo den jaialdian izango da, eta, beti bezala, dantzan ipiniko ditu Bergarako gaztetxoak.

Urte asko daramatzazu musikaren munduan murgilduta, ezta?

16 urterekin hasi nintzen lehenengo erromerietako musika talde batean abesten. Ordutik hona, talde ezberdinetan ibili naiz, eta iaz hasi nintzen DJ emanaldiak egiten. Ezkontzetan hasi nintzen, eta gero, Bergaran, Zabalotegin, DJ jaialdietara joateko proposamena egin zidaten, eta horretan nabil orain.

Ze musika mota gustatzen zaie Bergarako gaztetxoei?

Musika dantzagarria gustatzen zaien gehien bat. Oso gustuko dute dantzan egitea, eta, batez ere, koreografiak dituzten abestiak eskatzen dituzte: *Follow the lider, No rompas mas*... Irratian entzuten diren azkeneko *hit*-ak ere eskatzen dituzte sarri. Esan behar dut, gainera, Bergarako gaztetxoek berritasun guztiak ezagutzen dituztela.

Amaia Txintxurreta Zabalotegin Dj jaialdian. | JOSETXO ARANTZABAL

Sare sozialen bitartez ere gaztetxoek badaukate kantuak eskatzeko aukera, ezta?

Bai. Halaxe da. Udaleko Kultura Sailak tuentiko profila dauka eta DJ jaialdia dagoenean hitzordua sortzen dute, gaztetxoak bertara gonbidatzeko. Modu horretan, gazteek aldez aurretik kantuak eskatzeko aukera dute.

Noiz izaten dira DJ jaialdiak?

Zapatuetan izaten dira, 18:30etik 21:30ak arte. Hilean behin eta, batzuetan, baita hilean bitan ere. Aretoa bete-beteta egoten da beti. Doan den arren, atezainek edukiera kontrolatzen dute. Inguruko herrietako gazteak ere joaten dira Bergarara, Zabalotegira.

Errege bezperan egingo den jaialdia nolakoa izango da?

Bergaran Zabalotegitik kanpo egongo naizen lehenengo aldia izango da Errege bezpera. Munibe plazan gaztetxoendako afaria egingo da, nork bere afaria eramanda, eta gero, DJ jaialdia egongo da.

Bergarako gaztetxoak martxosoak al dira?

Bai. Jaialdia hasi eta berehala hasten dira dantzan. Nik koreografia batzuk prestatzen ditut, batuka eta horrelakoak... Baina gaztetxoek eurek ere prestatuta ekartzen dituzte koreografia batzuk. Gehienetan, taula gainean nirekin dantzan amaitzen dute.

Jaialdietan ipintzen duzun musika gustuko duzu?

Bai. Gustuko dut ipintzen dudan musika, eta niri ere dantzan hasteko gogoa sartzen zait. Jaialdiak niretako lana dira, baina oso gustura egiten dudan lana. Azkenean, neu ere festa horretan sartzen naiz. Uste dut horrela izan behar duela, gainera.

%4 handiagoa izango da 2013ko udal aurrekontua

Udalak 16,4 milioi euroko aurrekontua du 2013rako

O.E. / T.M. | OÑATI

Oñatiko udalak ia 16 milioi euro t´erdiko aurrekontua izango du 2013an, aurten baino %4 gehiago; guztira, 16.438.000 euro. Eguenean egindako osoko bilkuran onartu zuen aurrekontua osokoak, Bilduko aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin.

Komunikazio eta partehartzea, Barne antolaketa eta Aisialdi hezitzailea departamenduek, aurten baino diru gutxiago izango dute hurrengo urtean, baina gainerako sailek diru kopuru handiagoa izango dute.

Sarrerak eta gastuak, parean

Hurrengo urteko aurrekontua aurtengoa baino handiagoa izatea azpimarratu gura izan du Mikel Biain alkateak: "garai hauetan aurrekontua handitzea positibo ikusten dugu", adierazi zuen osokoa bukatu ostean. "Bestalde, aurrekontu egonkorra da. Hau da, sarrerak eta gastu aurruntak parekatuta daude, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu", gaineratu du. Aurrekotuak lantzen ibili direnak ere eskertu zituen alkateak osokoan: "pozik gaude 2013ko aurrekontua aurten onartu dugulako, eta eskerrak eman gura dizkiet azken hiru hilabete hauetan horretan lanean ibili diren lankide, herritar, eragile eta oposizioko kideei".

Lourdes Idoiaga EAJko bozeramaileak adierazi zuenez, hainbat puntutan ia adostasun osoa dute Gobernuko kideen planteamenduekin: "gizarte zerbitzuen arloan, adibidez, adostasuna handia da. Gainera, gure agintaldian planteatutako proiektuei jarraipena ematean, gure babesa izango dute". Hala ere, zenbait gabezia ere ikusten diote aurrekontuari, eta horregatik abstenitu dira. "Adibidez, guk proposatu dugu udalak jende gehiago kontratatzea langabeziari aurre egiteko. Gobernuak sei lagunen kontratazioa aurreikusten du. Badakigu Mankomunitatearekin beste aukera batzuk ere aztertzen ari dela, baina guk 15 lagun hartzeko proposamena egin dugu" zehaztu zuen Idoiagak.

ESANAK

"Sarrerak eta gastu arruntak parekatuta daude, eta hori garrantzitsua dela iruditzen zaigu"

MIKEL BIAIN | ALKATEA

ETEOren erabilera

Aurrekontuak jasotzen dituen ekimen nagusien artean dago, inbertsioetan konponketa lanei lehentasuna ematea, eraikuntzari baino. Hor sartzen dira, adibidez, Errekaldeko garajeen sarrerak egokitzea eta San Lorentzon, Aldapa taberna pareko plazatxoa konpontzea. Tenis pista tapatzea, kultura etxearen espazioaren egokitzapena eta ETEOko eraikinari emango zaion erabilera diseinatzea era 2013rako asmoen barruan daude.

Eguenean egindako osokoan onartu zituzten aurrekontuak. | O.E.

TAUL KOP

DEPARTAMENTUA	KOPURUA EUROTAN	2012KOAREKIKO ALDEA
Komkaz. + parte har.	177.822,00	-%13,07
Gizarte Zerbitzuak	1.864.993,65	+ %3,66
Kirola	1.250.412,50	+ %7,13
Kultura	1.047.348,47	+ %5,64
Barne antolaketa	5.982.634,53	- %3,44
Sozioekonomia	587.445,76	+ %7,59
Lurralde antolaketa	4.777.190,15	+ %15,61
Aisialdi hezitzailea	750.169,69	- %3,79

Basura poltsak jartzeko deitu du PaP Ez plataformak

O.E. | OÑATI

Etxeko balkoietan edo leihoetan papelez edo globoz betetako zabor poltsak jartzeko deialdia egin du Oñatiko PaP Ez plataformak. Modu horretara, atez ateko hondakin bilketa sistemaren aurkako protesta egin gura dute deitzaileek. "Bergaran egin duten moduan, Oñatin ere basura poltsak jartzeko animatzen ditugu herritarrak, atez ateko sistemaren aurka baina birziklapenaren alde gaudela adierazteko", argitu du Maribi Arregi plataformako kideak. "Errekalde auzoan ikusi genituen lehen poltsak, eta herritarren jarrera hori ikusita, deialdi publikoa egitera erabaki dugu plataformako kideok", gaineratu du.

Plataformatik adierazi moduan, atez ateko sistemaren aurkako sinadura bilketa bukatu dute, eta orain poltsak jartzeko deia luzatu dute.

Zabor poltsa balkoian. | O.E.

LIDE OSINAGA

Hazten doa gimnasia erritmikoa

Gimnasia erritmikoko taldea hazten doa Oñatin. Ikasturte hasieratik ona, kide berri bat baino gehiago sartu da taldera, eta beraz, gero eta gehiago dira gimnasia erritmikoa egiten dutenen taldean. Joan den eguenean, Gabonetako erakustaldia egin zuten Zubikoa kiroldegian, Lide Osinaga entrenatzailearekin batera.

Kirola, antzerkia, ur jolasak, musika ... Gabon oporretarako

Eguenean, 'Antzinako animalien artean' jarduera egingo dute Arrikrutzen, 3-8 urteko umeendako

O.E. | OÑATI

Oñatira ere etorriko da gaur Olentzero; 17:30ean helduko da Otadui zuhaiztira eta handik Foruen plazako bidea hartuko du, gero, herriko etxe guztietara heltzeko. Olentzeroz gain, baina, bestelako hitzorduak ere badira gaurtik utarrilaren 6ra arte.

ETEO zaharrean egiten dituzte Toberako entseguak. | O.E.

Kirol hitzorduen artean, esaterako, Debarroko eskola mailako eskupilota txapelketa jokatuko dute aste honetan Larrañan. Hilaren 28an eta 29an, berriz, futbito txapelketa egongo da Zubikoan Herrirak antolatuta, eta 30an, koadrilen arteko saskibaloi txapelketa Aloña Mendiren eskutik. Urtarrilaren 2an eta 3an, berriz, ur jolasak egongo dira umeendako igerilekuan, eta 3an eta 4an, umeendako parkea kiroldegian. Herriko musika talde ezberdinek hainbat kontzertu eta kanta emanaldi ere eskainiko dituzte Gabonetako oporretan; gaur iluntzean, esaterako, musika bandak Gabon kantak joko ditu Foruen plazan.

Tobera, 28an

Debagoiena eta Oñatiren arteko epaiketa satirikoa, Tobera izeneko herri antzerkia, iñuzente egunean izango da, 19:30ean Zubikoako pilotalekuan. Eta urtarrilaren 5ean, urteroko bertso saioa egongo da toki berean, gauean, 22:30ean.

ESKORIATZA

Etxegabetzeen aurrean neurriak hartzea onartu zuen udalbatzak egueneko bilkuran

Beñat Hercek ordezkatu du Iker Akizu zinegotzi ohia Leintz Udal Euskaltegiko udal ordezkari moduan

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Kaleratzeak Stop Deshaucios Debagoiena plataformak eskatuta aurkeztutako mozioa onartu zuten eguenean egindako osoko bilkuran; Elizateetakoak abstenitu egin ziren eta gainerakoek alde bozkatu zuten.

Plataformako kide bik mozioa irakurri zuten. Blanca Merchanek egungo egoeraren berri eman zuen, eta Sandra Muñozek honakoa eskatu zuten: Espainiako Gobernuari eta Gorteei hipoteken arauen aldaketa presaz onartzea eskatzea, eta horretan orain arte egindako hipotekei atzera eraginarekin aplikatzea etxea ordainean ematearen figura; legea aldatu arte benetako moratoria onartzeko exijitzea; banketxeei eskatzea kaleratzeak ekiditeko helburua izango duen plana martxan jartzea; hipoteka exekuzioak egiten jarraitzen duten banketxeetatik Udalaren fondoak ateratzeko neurriak hartzea; eta kaltetuei aholkularitza ematea eta ahal duen neurrian, laguntzea.

Bestalde, Leintz Udal Euskaltegirako ordezkari berria izendatu zuen Udalak: Beñat Herce alkatea berak hartu du ardura hori. Elizateetako zinegotzi eta Euskara saileko arduradun Iker Akizuk zen udal ordezkaria; haren dimisioarekin ordezkari berria aukeratu behar izan dute.

Herce, euskaltegiko ordezkari

Bilkura berean, behin betiko onartu ziren ordenantza fiskalak. Ibarraundik aurkeztutako alegazioari baietza eman ondoren onartu zituzten horiek; hain justu, unibertsitateko ikasleek museoko sarreran hobaria izatea eskatzen zuten museoko teknikariek.

Rosi Arkarazo da Elizateetako zinegotzi berria

Elizateak elkarteak zinegotzi berria du Eskoriatzako Udalean: Rosi Arkarazo. Eguenean egindako osoko bilkuran hartu zuen kargua Maringoak. Batzarra amaitzean jakinarazi zigun "Ilusioz" eta "gogoz" egin duela lan aurrerantzean Elizateetako zinegotzi Iñaki Madinabeitiarekin batera.

Iker Akizu ordezkatzen du Arkarazok. Legealdia hastean hartu zuen kargua Akizuk, eta azaroan egindako ohiko osoko bilkuran utzi.

Rosi Arkarazo, eguenean. | M.B.

ARETXABALETA

Juan Mari Agirreurretak irabazi du 'Argazkizkiak' helduen lehiaketa

Lehenengoz antolatu du Loramendi Elkarteak eta zortzi lagun aurkeztu dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Irudiak eta berbak bat egin dituen *Argazkizkiak* helduen literatura lehiaketa antolatu du Loramendi Elkarteak lehenengoz. Zortzi lagun aurkeztu ziren eta irabazlea izan da Juan Mari Agirreurreta *Bitakora* lanarekin; bigarren geratu da, Amaia Agiriano *Hodeien dantza* bertso sortarekin; eta hirugarren, Nerea Egurza, *Bocca della Verita*, hitz jolasarekin.

Lehiaketako irabazleak, eguenean. | MIRARI ALTUBE

Kalitate handiko lanak

Loramendiko Kultura taldeak deitu zuen lehiaketa eta epaimahaia ere bertako kideek osatu dute. "Ez da izan batere samurra lanak baloratzea kalitate handikoak izan direlako; lehenengoaren eta bigarrenaren artean hautatzea benetan zaila izan da", jakinarazi zuten eguenean, sari banaketa ekitaldian. Argazki bat eta hari egokitutako testua aurkeztu beharra zegoen; testua edozein generotako. Hala, irabazleak elkarrizketa egin zuen, bigarrenak bertsoak –seme alabekin kantatu zituen– eta hirugarrenak hitz jolasak.

Urtarrilaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira Aratusteak iragartzeko kartelak

Txapel Txinek buru berria estreinatuko du 2013an, eta dagoeneko gertatzen dabiltza

M.B. | ARETXABALETA

Aratusteetarako hilabete bi falta badira ere, horiek gertatzeko lanean dihardute dagoeneko Aretxabaletan. Gertu dute, esaterako, Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa; lanak urtarrilaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira Arkupen.

Edozeinek har dezake parte lehiaketa horretan, eta teknika librea izango bada ere, kartelak *Aratusteak Aretxabaleta 2013* testua eduki beharko du derrigorrez. Horretaz gainera, 50x70 zentimetro neurtu beharko du, eta digitalean aurkeztuz gero, DINA 3an aurkez daiteke. Kartelarekin batera, kartazal itxi bat aurkeztuko da ezizenarekin. Barruan honako datuak izango ditu: izen-abizenak, adina, helbidea eta telefono zenbakia. Lehiaketako irabazleak 200 euroko saria jasoko du; urtarrilaren 18an jakinaraziko da irabazlearen izena.

Lokalak erabilgarri

Bestalde, mozorroak gertatzen joateko lokalak ere erabili daitezke; joan den urteko berdinak dira: elementu txikiak egiteko Urbaltzeko plazatxoan dagoen Urkuluko lokala dago, eta karrozendako Azbetik GI-627 errepiderantz dagoena. Interesa dutenek Arkupetik pasa behar dira giltza hartu ahal izateko.

Txapel Txin ere gertatzen dabiltza; buru berria estreinatuko du-eta.

'Gaztainak erre artian...' Aretxartek gonbidatuta

Aretxarte merkatarien elkarteari esker gaztainak jan eta jan dabiltza aretxabaletarrak. Dagoeneko bi eguenetan izan da gaztaina-saltzailea Mitarte kalean eta datorren eguenean ere bertan izango da, azkenekoz.

Bestalde, bi lagun saritu ditu abenduan Aretxartek: Aurora Arantzabal eta Itziar Madinabeitia.

MIRARI ALTUBE

Kuku Mikuk familiendako tailerra egingo du hilaren 28an

Hilaren 28an familiei zuzendutako tailerra antolatu dute Kuku Mikun, 17:30etik 19:00etara; Gabonetako postalak eta zuhaitza erraldoia egingo dute. Gainera, ipuin kontalariak ere izango dira, euskaraz zein atzerriko hizkuntzetan.

Bestalde, urtarriletik maiatzera gurasoendako saioak egingo ditu Nerea Mendizabal psikopedagogoak. Interesatutakoek hilaren 28a baino lehen eman behar dute izena, *kukumikuelkartea@gmail.com* edo 650 93 96 93 telefono zenbakian.

Izotz pista, PINa, Euskal Selekzioaren festa eta azken jaia, gaztelekuan

Askotariko jaiak dituzte egunotan Aretxabaletako gaztelekuan. Hilaren 27an, izotz pistara joango dira; eta 28an, Bilboko PIN -era. Bietan 10:00etan irten eta arratsaldean itzuliko dira.

Hilaren 29an, Euskal Selekzioaren festa dute, gaztelekuan: partidua ikustearekin batera, gaztelekua apaindu eta aurpegia margotuko dute, 19:00etatik 22:00etara. Abenduaren 30ean, ostera, azken jaia egingo dute. Gaztelekuan entseatzen duten musika taldeek joko dute, besteak beste.

ELGETA

Inbertsioetan estutuko du gerrikoa Udalak 2013an

Eguenean onartu zuen udalbatzak 2013ko aurrekontua; Bilduk kontrako botoa eman zuen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

1.603.766 euroko aurrekontua onartu du Elgetako udalbatzak. Iaz egindako gastuarekin alderatuta dezente txikiagoa da, ia 750.000 euro gutxiago. Nagusiki inbertsioen atalean estutuko du gerrikoa Udalak bertan 660.000 euroko murrizketa eman baita.

Oxel Erostarbe alkatearen esanetan inoizko aurrekonturik parte-hartzaileena da, eta eskerrak eman dizkie ekarpenak egin dituzte eragileei. "Babesa emango diegu gaizkien pasatzen ari direnei aukera izango dutelako euren egoeraren arabera zerbitzu guztietan beherapenak izateko. Zerbitzu guztiak mantendu ditugu, eta egoera ekonomikoa horrelakoa izanda ere garrantzia emango diegu inbertsio txikiei, eta batez ere, daukaguna ondo mantentzeari".

Elgetako EAJko bi zinegotzien babesarekin egin du aurrera aurrekontuak. Patxi Basauri gustura agertu da: inbertsioetan dirulerro garrantzitsuenetako bat Basauri buru duen turismo alorreko ibilbide tematikora bideratu dute.

Bildu kritiko

Bildu, aldiz, oso kritiko agertu da aurrekontuarekin, eta kontrako botoa eman dute taldeko hiru zinegotziek. Hondakinen gaiarekin kontsulta eskatzen den moduan, aurrekontuarekin ere herriari galdetzeko eskatu dute. Adierazi dute ez direla aurrekontuaren parte sentitzen, eta desadostasuna azaldu dute alkatetzako soldata igoerarekin, udal webgunearen mantenu kostuarekin, ziburuak berritzeko dirulerroarekin, eta oro har aurrekontua definitzeko udal gobernuak izan duen jarrerarekin.

Bestelakoa erabakiak

Aurrekontua onartzeaz gain abenduaren 19an egindako osoko bilkuran bestelako erabakiak ere hartu zituen udalbatzak. Elgetako udalak bidea emango dio guifi.net proiektuari, eta proba epea amaituta beste urtebetez ariko da Aner Fernandez udaletxeko zereginetan. Elgetako udalak, bestalde, bat egin du urtarrilaren 12an euskal presoen eskubideen alde Bilbon egingo den manifestazioarekin.

ONARTUTAKO INBERTSIO NAGUSIAK

PROIEKTUA	DIRULERROA
Intxortako ibilbide tematikorako	61.900
Domingo Iturbeko lanak	22.000
Lasao kaleari saihesbidera irteera ematea	16.000
Kiroldegiko ziburuak berritzea	15.000
Julianen kioskoa berritzea	12.000
Haurreskolan lanak	10.000
Konpost komunitarioa	9.000
Asentzioko lanak	6.000
Kaleko mobiliarioa	6.000
Gasteziren argazki artxiboa digitalizatzea	3.500
Bizikleta garbitzeko gunea kiroldegian	2.500

Bildu ez da aurrekontuaren parte sentitzen

Aurrekontua urte osoko plangintza ekonomikoa izanik, Janire Lazkano bozeramaileak salatu du udal gobernutik ez dela ahalegin minimo bat egin aurrekontu proposamena herritarrengana helarazteko. Salatu du Bildu ez dela aurrekontuaren parte sentitzen. "Lehenengo ogasun batzordetik azkenera arte parte hartu dugu", azaldu du. Bi proposamen egin ditu Bilduk, eta "bat berak ere ez du isla eduki aurrekontuan". Gaineratu du: "Aurten aurrekontuak inbertsioetarako lekurik ez duela ematen jakiteak dezente lasaitzen gaitu, aurtengo kudeaketa ikusita".

EAJrendako planteamendu ona da

EAJko bi zinegotziek —Patxi Basaurik eta Maria Jesus Letek— babestu egin dute udal gobernuak aurkeztutako aurrekontu proposamena. "Udal gehienetan bezala hemen ere sos justuak daude, baina nik uste dut planteamendua nahiko ondo eginda dagoela", esan du Basaurik. Inbertsioak ere sartu direla ohartarazten du, "batzuk nahiko potenteak", gaineratzen du, eta bere ardurapean dagoen turismo batzordea aipatzen du. "Intxortako ibilbide tematikorako da inbertsioen ataleko dirulerro garrantzitsuenetako bat; ia 62.000 euro", zehazten du Basaurik.

ARAMAIO

Ekonomatoa egituratzeko proposamenak azalduko ditu Aramailur taldeak

Hilaren 27an egingo da aurkezpen bilera hiltegi zaharrean (18:30), ekarpenei erabat zabalik

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramailur kontsumo taldeak ekonomatoa egituratzeko proposamen zehatzak azalduko ditu eguen honetan, hilak 27, hiltegi zaharrean egingo duten aurkezpenean (18:30). Ekitaldi irekia izango eta beraz, oraindik ere taldeko kide ez direnek aukera izango dute ekonomatoaren funtzionamenduaren gaineko argibideak jasotzeko. Eta noski, parte hartzeko interesa duenari ateak zabalik egongo dira.

Finantziaziorako, bazkidetza

Egueneko bileraren arrakasta bermatzeko, proposamen zehatzen berri emango dute. Hasteko, irabazi asmorik gabeko elkarte moduan osatzeko urratsak zehaztu behar dituzte, beti ere Aramaio Basarri Barri fundazioaren barruan dagoen taldea dela aintzat hartuz.

Bazkidetza bidez finantzatzea da asmoa: "Bazkideek ekonomatoko produktuak kontsumitzeko eskubidea izango dute, baita ekonomatoaren inguruko erabaki guztietan parte hartzeko ere. Eta euren betebeharra izango da, aldi berean, ekonomatoa aurrera eramateko egin behar diren lanetan parte hartzea: txandak, garbiketa...", diote. Urteko kuota 15 euro izatea aurreikusten dute eta sarrera kuota beharrezkoa izango den aztertzeke dute oraindik. Horiek eta beste hainbat kontu eztabaidatuko dituzte eguenean.

Aramailur taldekoak martitzenero elkartzen dira hiltegi zaharrean. | J.B.

ANTZUOLA

Badatoz Olentzero eta Mari Domingi herrira

Goizean Olentzerok gurasoekin eta txikitxoekin kalejira egingo du; arratsaldean, ekitaldia

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urtero bezala, aurten ere Pausoka guraso elkarteak Olentzeroren kantu-kalejira antolatuko du. Herrian barrena gaur, abenduaren 24an, ibiliko dira Olentzero, gurasoak eta herriko txikitxoak.

Errekalde auzoan abiatuko da kalejira, 11:00etan hasita, eta 12:30ean bukatuko da Beheko auzoan, eguraldiak lagunduz gero. 10:30ean, euria bada, eskolako aterpean egingo da ekitaldia, 11:30ean hasita. "Bide batez, umeak ez ezik, gurasoei ere baserritar jantzita irteteko eskaera egiten diegu. Bestalde, Gabon zoriontsuak eta 2013 zoriontsua opa nahi genizkioke Antzuola herriari", azaldu digute Pausoka guraso elkartetik. Eta arratsaldean, 18:30ean, Olentzeroren eta Mari Domingiren jaitsiera egingo da San Josetik. Ondorengo ekitaldi nagusia Herriko Plazan egingo dute; euria eginez gero, jaitsieraren ondorengo ekitaldia eskolako patioan egingo da.

Umeendako ipuin saioa

Maite Franko ipuin kontalariak bi saio egingo ditu hilaren 28an, barikuan, Torresoroan. Lehena: 17:30ean, 3 eta 4 urtekoendako saioa. Bigarrena, 18:00etan, 5 eta 8 urtekoendako. *Gabon saririk onena* izeneko ipuin saioa eskainiko du Maite Frankok.

Antzuolarrak munduan

Antzuolarrak munduan zehar ekimenaren barruan, Xabier Legorburuk eta Ainhoa Lazkanok Australiara egindako bidaia ekarriko dute Olaranera, abenduaren 27an, 18:30ean.

LEINTZ GATZAGA

Gabon kantuekin girotuko dituzte herriko txokoak gaur Gurelekoek

2013ko egutegia banatuko dute, gainera; Sorginak emakume elkarteari eskaini diote hori

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko lagunek girotuko dute Gabon eguna, gaur. Hala, azken urteotako ohiturari jarraituta Gabon kantuan joango dira baserriz baserri eta kalez kale.

Umeak eta gurasoak, elkarrekin abestuko dituzte Gabonetan ohikoak diren kantak trikiti doinuak lagun dituztela. 09:45ean dute hitzordua San Migel plazan, eta bi taldetan banatuko dira, baserri guztietara ailegatu ahal izateko. Batzuek, Goierri auzorantz egingo dute, eta besteek, Olaun aldera. Ondoren kalean elkartuko dira guztiak, eta kantuan jarraituta bertako txoko eta bazterrak alaituko dituzte.

Behin goizeko lanak bukatuta eta Gabon giroan jarraitzeko gogoz Toki Eder elkartean bazkalduko dute guztiek, ume eta guraso.

'Sorginak' 2013ko egutegian

Gureleko kideak, baina, ez dira esku-hutsik joango; azken urteotan legez, Udalak ateratzen duen egutegia banatuko dute baserriz baserri. Orain arte Gatzagako baserrien argazkiekin osatu izan dute egutegi hori, baina aurten Sorginak emakume elkarteari eskaini diote. Izan ere, 2013an 25 urte beteko ditu elkarte horrek eta gatzagarrek gogoan izatea gura dute.

Komunitate izaten eta komunikatzen segituko dugu, zuei esker.

2013 on!

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

KIROLA

Ziklo-kroseko txirrindulariak bizikleta eskuetan dutela. | JOSETXO ARANTZABAL

Sarituak izan ziren gizonezko eta emakumezkoak kopa eta trofeoekin, lasterketen ostean. Alkatea eta antolakuntzako kideak ere a

ZIKLO-KROSA

Aitor Hernandezek irabazi du elite mailako lasterketa Oñatin

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Espero zen moduan, Orbea taldeko Aitor Hernandez ermuarrak irabazi zuen elite mailako ziklokros txapelketa Oñatin (53:42). Aurten, lehenengoz ospatu da maila horretako lasterketa San Martinen eta Hernandez faboritoak erraz lortu zuen garaipena. Hasiera batean, Egoitz Murgoitio, Javier Ruiz de Larrinaga eta Isaac Suarez txirrindulariak ere Oñatiko lasterketan parte hartzekoak ziren, baina azkenean Belgikara joan zirenez korritzera, Hernandezek ez zuen parekorik izan. 24 kilometro inguruko lasterketa egin zuten elite mailakoek eta bigarren gelditu zen Aketza Peña. Elite mailan emakumezkoetan, azkarrena izan zen Olatz Odriozola eta bigarren gelditu zen Maite Murgia.

Gizonezkoetan, 23 urtez azpiko kategoriakoek, 21 kilometro inguruko zirkuitua egin zuten domekan eta azkarrena Iñigo Gomez (49:07) izan zen. Bigarren geratu zen Jon Gomez.

Gazteak eta kadeteak

Gazteen mailan Eneko Corrales izan zen bizkorrena (37:32) 15 kilometroko zirkuituan. Atzetik, Alex Aranburu helmugaratu zen. 18. postuan, Sumofic-Igartua taldeko Julen Irizar geratu zen eta bi postu atzerago sartu zen talde bereko Jon Fernandez. Arrikrutzeko Iker Alberdik, berriz, 24. postua eskuratu zuen. Maila horretako emakumeetan Lierni Lekuona izan zen garailea eta bosgarren postuan sartu zen Oñatiko Maider Usandizaga.

Kadeteen mailan, ostera, Jokin Alberdi izan zen bizkorrena. Bigarrena izan zen Jon Gil eta hirugarren postua lortu zuen Arrikrutz taldeko Julen Umerezek. Umerez oso ondo dabil sailkapen orokorrean ere eta Oñatin lasterketa polita egin zuen. Talde bereko Xabi Aiastui 13. postuan gelditu zen; laugarren joan zen lasterketako une batzuetan baina matxura bat izan zuen eta korrika joan behar izan zen goitik behera bizikleta eskutan hartuta. Ekaitz Txintxurreta oñatiarrak ere ez zuen zorte handirik izan; irteeran katea atera zitzaion, errekuperatu eta zulaketa izan zuen eta gero erori ere egin zen. Hala ere, 26. geratu zen sailkapenean. Emakume kadeteetan Mireia Muñozek irabazi zuen.

Masterrak

Masterrek 15 kilometroko ibilbidea egin zuten. Master 30 kategorian Jose Juan Romero izan zen bizkorrena. Master 40 kategorian, ostera, Rafa Ruiz de Arkautek irabazi zuen lasterketa. Oñatiko azkarrena kategoria horretan Roberto Zugasti izan zen laugarren postuarekin eta zortzigarrenean gelditu zen Iñaki Barrena Aloña Mendikoa. Master 50 kategorian, Jose Lorenzo Esteban izan zen garailea eta aipatu behar da garai batean oso txirrindulari ona izan zen Jokin Mujika berriro itzuli dela lasterketetara, eta bigarren gelditu zen Oñatikoan. Zulaketa izan zuen Mujikak, baina bizikleta aldatu ere ez zuen egin; mutikoak bezala zulaketarekin sartu zen helmugara. 60 urtetik gorako bi ere lehiatu ziren.

Balorazio positiboa

Eguraldia lagun, balorazio oso positiboa egin du Ruper Arkauz Arrikrutz taldeko zuzendari eta lasterketako antolatzaileak; zirkuituan asfalto gehiago sartuta ere gustura daude. Joan zen astean zendu zen Iñaki Lejarretaren omenez, minutu bateko isilunea ere egin zuten San Martinen.



XABI AIASTUI
ARRIKRUTZEKO KADETEA

"Ondo hasi naiz baina azken aurreneko bueltan kanbioa apurtu dut eta nahiko atzean gelditu naiz azkenean. Pena izan da baina tira, zirkuitu polita izan da eta gustura ibili naiz, izan ere, aurten eguraldiak lagundu egin digu".

JULEN UMEREZ
ARRIKRUTZEKO KADETEA

"Gustura sentitu naiz. Hasieran lehenengo biekin joan naiz eta sentsazio onak nituen. Gero, bi horiek ihes egin didate eta atzetik zetorrenak harrapatu nau. Karrera guztia batera egin dugu baina azkenean ni heldu naiz lehenago".



JULEN IRIZAR
SUMOFIC-EKO GAZTEA

"Denboraldiko nire bigarren lasterketa izan da eta hasieran gogorra egin zait baina bukaerarako hobeto sentitu naiz. Zirkuituak bi zati zituen; basoan azkarra eta teknikoa, eta goikoa lokatz askokoa eta gogorra".

ROBERTO ZUGASTI
ALOÑAKO MASTER 40

"Bero egin du ziklo-kroserako eta zirkuitua oso azkarra zenez, ez zegoen errekuperatzeko denborarik. Hala ere, ondo joan da lasterketa. Orokorrean gogorra egin zait zirkuitua baina oso gustura ibili naiz".

GORKA IZAGIRRE
TXIRRINDULARI PROFESIONALA

"Oñatiko ziklo-kros lasterketarekin herri giroan gozatzera etorri gara anaia eta biok Ormaiztegitik. Zirkuitua gustatu zait; polita da eta ondo dago. Giroa ere primerakoa, urtean zehar egoten ez garenekin ere egon gara".

OÑATI KIROL SARIAK | 2012 urteko kirolari onenak | 26

gertzen dira irabazleekin batera. | J.A.

Aitor Hernandez eliteko irabazlea helmugara sartzear zegoela. | J.A.

Gabonetako txanoaz. | J.A.

Zirkuituko goiko aldean, bidea lokaztuta. | J.A.

San Martingo zirkuituko zati azkarrean bi txirrindulari lehian. | J.A.

Aiala taldeko eliteko Asier Bolivar txirrindularia bizikleta eskuetan duela. | J.A.

Maider Usandizaga Arrikrutz taldeko emakumea. | J.A.

LASTERKETAREN SAILKAPENA

ELITEA GIZONAK
1. Aitor Hernandez
2. Aketza Peña
3. Erlantz Uriarte

ELITEA EMAKUMEAK
1. Olatz Odriozola
2. Maite Murgia
3. Amaia Martioda

23 URTEZ AZPIKOAK
1. Iñigo Gomez
2. Jon Gomez
3. Ion Ander Insausti

GAZTE GIZONAK
1. Eneko Corrales
2. Alex Aranburu
3. Adrian Gartzia

GAZTE EMAKUMEAK
1. Lierni Lekuona
2. Paula Lanz
3. Yaiza Agirre

KADETE GIZONAK
1. Jokin Alberdi
2. Jon Gil
3. Julen Umerez

KADETE EMAKUMEAK
1. Mireia Muñoz
2. Enara Lopez

MASTER 30
1. Juan Jose Romero
2. Santiago Garrido

MASTER 40
1. Rafa Ruiz de Arkaute

MASTER 50
1. Jose Lorenzo Esteban

MASTER 60
1. Jesus Maria Alzola

A.T.

AITOR HERNANDEZ
ORBEAKO ELITEA

"Zirkuituaren ezaugarriak oso ondo etorri zaizkit Oñatiko lasterketa irabazteko"

Aurreikuspenak beteta, Aitor Hernandez Ermuko txirrindulariak irabazi du elite mailako Oñatiko ziklo-kros lasterketa, pozik zegoen Hernandez.

Zer moduz ibili zara Oñatiko lasterketan?

Oñatikoan parte hartzen dudan lehenengo aldia izan da aurtengoa eta lasterketa polita izan da, zirkuitu ederrarekin. Nahiko azkarra da orokorrean ibilbidea eta goian zona nahiko teknikoa zegoen lokatzarekin; bertan atera zitezkeen desberdintasunak gainontzeko lehiakideekin. Zirkuituaren ezaugarriak oso ondo etorri zaizkit irabazteko.

Faboritoa zinen eta aurretik joan zara gainera lasterketa guztian.

Bai, taldetxo bat aurretik irten gara eta segituan hasi gara txirrindulari batzuk elkarrekin joaten. Lokatzazko goiko zona horretan lehena sartu naiz eta distantzia pixka bat atera ahal izan diet lehiakideei orduan. Distantzia hori mantentzea lortu dut helmugara arte eta irabaztea lortu dut.

Denboraldi oso ona daramazu gainera.

Bai, Oñatikoarekin 13. garaipena lortu dut denboraldi honetan. Orain hilabete bat gelditzen zait lasterketa garrantzitsuekin; Euskadiko Txapelketa, Super Prestigioko azken lasterketa eta Espainiako Txapelketa ditut aurretik.

Zapatuan Kantabrian izan zinen beste lasterketa batean.

Treto herrian izan nuen lasterketa eta pozik nago hori ere irabaztea lortu nuelako.

Datorren asteburuan ere beste lasterketa batzuetan hartuko duzu parte, ezta?

Zapatuan Kantabriako Puente Viesgon izango naiz Super Prestigioko lasterketa korritzen. Domekan, berriz, Ormaiztegin lehiatuko naiz.

Zein izango da zeure helburua lasterketa horietan?

Lasterketetako helburua beti da irabaztea.

Oxel Apraizek partiduko bigarren gola sartu zuen. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Iker Sanchez eta Oxelen golei esker Aretxabaleta nagusi

Ander Fernandez gazte aretxabaletarrak UDArekin debuta egin zuen

EMAITZA

ARETXABALETA
2-0
TRINTXERPE

ANDER MONEDERO | ARETXABALETA

Merezitako garaipena lortu zuen Aretxabaletak Trintxerperen aurka. Gainera, atzokoa garaipen garrantzitsua izan zen, Hernanik Real Unionen aurka galdu ostean, liderrari hiru puntu murrizteko balio izan zion.

Nahiz eta Aretxabaleta partiduaren jabe izan, talde donostiarrak izan zuen norgehiagokaren lehenengo aukera garbia: bigarren minutuan, eskuin hegaletik jokaldia egin eta Danik baloia langara bidali zuen. Hori izan zen Trintxerpek partiduan izan zuen aukerarik garbiena.

Minutuak aurrera egin ahala, etxeko taldea jokoan nagusitzen hasi zen eta 20. minutuan Aretxabaletak lehenengo aukera izan zuen: taldean egindako jokaldi on baten ondorioz, donostiarren areara heldu eta aurrelariak ezin izan zuen errematatu. Hurrengo jokaldian, Aretxabaletak baloia arean sartu eta defentsak gaizki defendatu, baloia atxabaltar bateri iritsi eta atzelariak bere errematea eskuarekin geratu zuen: penaltia eta Sanchezek ez zuen huts egin. Gola egitearekin batera, Aretxabaletak baloia lasaiago jokatzen hasi zen eta 29. minutuan, korner batean bigarren gola sartzea lortu zuten. Aretxabaletako jokalari batek buruz egindako errematea zutoinean jo eta Oxelek baloia hartu eta sareratzea lortu zuen. Lehenengo zatia bukatu baino lehenago, Oxelek hirugarrena egiteko aukera izan zuen baina atezainak ondo geratu zuen arrasatearrak buruz egindako errematea.

Bigarren zatian, berriz, Aretxabaletak baloiaren jabetza luzeagoa izaten hasi zen eta kanpotarrak gero eta urduriago jokatzen hasi ziren.

Ander Fernandezen debuta

61. minutuan egin zuen Ander Fernandez gazteak lehenengo taldearekin debuta eta zortzi minutu beranduago, bigarren penaltia eragin zuen. Ausardiaz, baloia hartu eta penaltia bota zuen, baina atezainak baloia geratzea lortu zuen. Hortik aurrera, etxeko taldea partidua noiz bukatuko zain geratu zen.

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Asier, Gartzi, Etxabe, Aitor, Kerman,Igartua, Sanchez, Eraña, Oxel, Iker Orueta eta Jokin. Baita ere: Ibai Hernandez, Ander Fernandez, Aitor Perez, Oinatz eta Gillen.

Trintxerpe: Asier, Dani, Igarreta, Iker Sarriegi, Ritxar, Nebay, Fran, Ion Arrazola, Ekaitz Giraldez, Cris Alonso eta David Jimenez. Baita ere: Casillas, Hipolito, Jacob, Francis eta Tizon.

Beste: Epaileak Ritxar kaleratu zuen 54. minutuan.

ALBERTO ALBISTEGI | ARETXABALETAKO ENTRENATZAILEA

"Penaltia eragin eta jaurti egin du, jarrera hori duten jokalariak gustatzen zaizkit"

A.M.

Partiduaren bukaeran, jokalariek egindako lanarekin Alberto Albistegi pozik agertu zen.

Garaipenarekin pozik?

Bai, taldeak egindako lanarekin eta emaitzarekin pozik nago. Partidua osotasunean ikusita, merezitako emaitza dela uste du. Pena da, azken minutuetan, egindako aldaketa kopuruaren eta falta kopuruaren ondorioz, zerbait galdu dugula, baina partidu ona izan da. Gainera, gaur Ander Fernandezek debuta egin du eta hori pozik egoteko beste arrazoi bat da.

Lastima Fernandezek penaltia huts egitea?

Pena bat da, baina bere jarrera txalogarria dela iruditu zait. Penaltia eragin du, ausarta izan da eta jaurti egin du. Jarrera hori duten jokalariak gustatzen zaizkit.

"Taldeak egindako lanarekin eta emaitzarekin pozik nago"

10en aurka jokatzen hasi zaretenean baloiaren jabetza luzeagoak izan dituzue.

Markagailua alde genuen eta jabetza handiagoak izaten saiatu gara baina haizeak eta zelaiak ez digu dakigun moduan jokatzen utzi.

Sailkapenaren aurrealdean egoteko emaitza ona.

Bai, gainera hurrengo partidua Oiartzunen aurka dugu eta gero Beti Gazte hartuko dugu. Horrekin lehenengo itzulia bukatu eta sailkapenean nola gauden ikusiko dugu. Hala ere, guk gure bidea jarraitu behar dugu, talde gaztea dugu eta azken partiduen emaitzak ikusita gora goazela dirudi. Horrela lan egiten jarraitu behar dugu, aurrekoek duten aldea murrizten.

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondrak eta Bergarak berdindu, Aloñak galdu

A.M. | ARRASATE

Debagoieneko Ohorezko Erregional mailako Mondrak eta Bergarak etxetik kanpo puntu bana lortu zuten eguenean eta zapatuan jokatutako partiduetan. Aloña Mendik, berriz, domekan 2-0 galdu zuen Donostian Berioren aurka jokatutako partiduan.

Eguen arratsaldean puntu garrantzitsua lortu zuen Mondrak Azpeitian (2-2). Nahiz eta erakutsitako jokoarengatik gehiago merezi, arerio zuen baten aurka ez galtzeak garrantzi handia du. Mondrak markagailuan bi aldiz aurre hartu zuen, baina azkenean, ezin izan zuten abantaila mantendu. Txonan eta Andoni izan ziren talde zuri-morearen golegileak.

Nahiz eta sailkapenaren beheko aldean egon, Bergarak ezin izan zuen Urolaren etxean hiru puntuak eskuratu (0-0). Ohorezko Erregional mailako gol gutxien sartu dituen taldea da Bergara eta gol falta hori defentsako lan onarekin konpentsatzen dute, ligan gol gutxien jaso duen bigarren taldea baita, baina horrelako partiduetan gol falta hori agerian geratzen da. Nahiz eta gola sartzeko aukerak egin, ezin izan zuen Urolaren atea zulatu.

Aloñak galdu

Aloña, berriz, esku hutsi bueltatu zen atzo Berioren aurka jokatutako partiduan (2-0). Partidu orekatua izan zen, baina donostiarrek izan zituzten aukerak aprobetxatzen jakin zuten. Nahiz eta oñatiarrek partiduaren zati handi baten nagusi izan, ate aurrean ez ziren fin ibili.

GAZTE MAILA

Luis Herzogen omenezko futbol txapelketa Bergaran

Luis Herzogen omenez, gazte mailako lau taldek futbol txapelketa jokatuko dute Bergaran. Txapelketan egongo dira Bergara, Reala, Aretxabaleta eta Eibar. Hala, hilaren 29an 16:15ean Bergarak eta Realak lehenengo finalaurrekoa jokatuko dute Ipintzako futbol zelaian. Abenduaren 30an, domeka, berriz, Eibarrek eta Aretxabaletak bigarren finalaurrekoa jokatuko dute, 17:00etan. Eta Luis Herzogen omenezko txapelketako finaleko partidua urteko azken egunean, abenduaren 31n izango da 16:00etan, Agorrosineko futbol zelaian.

ARETO FUTBOLA

1 eta 4 galdu zuen Eskoriatzak, aukerak izan zituen arren

Lagun Onak eraginkorrago izan zen etxekoak baino, golez gain ez baitzuen aukera asko sortu

JULEN IRIONDO | ESKORIATZA

Partidu amaierako emaitzak ez zuen kantxan ikusitakoa oso ondo erakusten. Etxekoek gol gehiago egiteko modua izan zuten, egoera garbietan huts egin zuten-eta askotan; kanpokoek, berriz, lau gol egin bazituzten ez zen izan askoz aukera gehiago sortu zituztelako, edukitakoetan fin ibili zirelako baizik.

Lehenengo zatian Eskoriatzarena izan zen baloiaren jabetza. Baina bi alditan, etxekoak erasoan zirela, baloia galdu eta kontraerasoan bizkarra harrapatuta, gola egin zuten azpeitiarrek.

Bigarren zatiari ondo ekin zioten eskoriatzarrek, eta hamar minutu oso biziak eta onak izan zituzten. Ritxarrek egin zuen 1 eta 2koa, bigarren zutoinean jaurtiketa bat jaso eta baloia sareetara bultzatuta. Handik aurrera ere jaun eta jabe izaten jarraitu zuen Eskoriatzako taldeak, eta aurrena berdindu eta gero aurretik jartzeko adina gol aukera izan zituen. Baina punteria faltak batzutan eta Lagun Onaken atezainaren lan onak besteetan, merezitako saririk gabe geratu ziren eskoriatzarrak.

Sari gabeko ahalegina

Zorte eskaseko jokaldi batean 1 eta 3koa egin zuten kanpokoek, eta egindako ahalegina eta gero halako zigorra jasotzeak kalte egin arren, beste bi alditan zutoina ere jo zuten etxekoek. Baloiak ez zuen sartu nahi. Eta 1 eta 4koa ere egin zuten azpeitiarrek.

Hamalau jardunaldiren ostean atzeko postuetan da Eskoriatza, soilik bi partidu irabazita, zazpi punturekin. Zorionez, Eguberrien osterako espero dute berreskuratzea egun min hartuta duten jokalari sorta, eta taldea indartuta partiduak irabazten hastea.

Golak egiterakoan ez ziren fin ibili zapatuan eskoriatzarrak. | IMANOL SORIANO

Bolinagaren aurrean makurtu egin behar izan zuen oraingoan Rezustak. | IMANOL SORIANO

PILOTA

Bolinaga Rezusta baino gehiago Santamasetan

Rezustak Bergarako pilota sailaren omenaldia jaso zuen domekan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Aurten ez da Arrasateko Santamasetan profesional mailako partidurik izan, baina Frantzian jokatutako azken Munduko Txapelketan egondako lau pilotarien arteko lehiak ase zituen Uarkapen batutako pilotazaleak.

18 eta 22 irabazi zieten Jakak eta Bolinaga arrasatearrak Arrieta eta Rezusta bergararrari. Bi debagoiendarrek lehia polita izan zuten atzeko koadroetan. Rezustak jo handia erakutsi zuen, batez ere ezkerrez, baina Bolinagak ongi eutsi zion.

Lehia ez zen atzean hautsi, eta bi aurrelariek izan zituzten errematerako aukerak. Ausart ibili ziren bai Jaka eta bai Arrieta, eta huts batzuk ere egin zituzten arren –atzean ere izan ziren hutsak– jokaldi politak ikusi ziren aurreko koadroetan: dejadak, airez txokoan utzitakoak, ezker gantxoak... denetik. Urdinak aldearekin ibili ziren partiduaren zati handienean; amaierako emaitzak ere hori erakutsi zuen.

Partidua eta omenaldia

Domekan, berriz, Gabonetako txapelketako finalak jokatu zituzten Bergaran –12 denera; gazteetan Aristik 18-Diezek 6 eta nagusietan E. Muguruzak 3-Rezustak 18–. Finalak amaituta Rezustak pilota sail osoaren eta Udalaren omenaldia jaso zuen –oroigarri bana eman zioten–, Munduko txapelarengatik.

Abel Barriola izan zen Bergarako finalen sari banaketan. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOIA

Soraluce BKEk berdindu egin du Hondarribiarekin neurketa kaskarrean

Partidua 33 eta 33 amaitu zen. Lehenengo zatian kanpokoak ibili ziren hobeto. Etxekoen 5-1eko defentsak ez zuen emaitzarik eman eta Hondarribia, golak erraz eginez, 15 eta 17 ari zen irabazten atsedenaldian. Bigarren zatian 6-0eko defentsa egiteko agindu zien Josetxo Muniategik bere mutilei, eta kanpokoei gehiago kosta zitzaien gola egitea. Bergara bi lagun gutxiagorekin zela, Hondarribikoak ez ziren zuten bi goleko aldea handitzeko gai izan; are gehiago, egoera horretan berdintzea lortu zuen Bergarak. Bi gol aurretik ere jarri zen, baina kontraerasoan asmatu ez eta Hondarribia gai izan zen berriz ere berdintzeko.

ERRUGBIA

Lehenengo amaituko du Arrasatek urtea, Hernani B-ri irabazita

22 eta 15 irabazi zuten Igor Isasiren mutilek domeka eguerdian jokatutako partidua. Gaizki hasi zuten etxekoek lehia, lo, eta atsedenaldira 0 eta 10 galtzen ailegatu ziren. Aldageletan hitz egin eta bigarren zatian iratzarri ziren aurrealdeko gizonak –hiru laurdenetakoek partidu txukuna jokatu zuten oro har–, eta hasi ziren puntuak batzen. Partiduari berrekin eta lasterrera lortu zuten etxekoek lehen entsegua, Arrasatekoak piztu, hernaniarrak behera etorri eta beste hiru gehiago egin zituzten, irabazteko. Sailkapeneko lehen postuan amaituko dute, hortaz, urtea.

SASKIBALOIA

Gazte mailako torneoa Arrasaten, Gabonetako txapelketak Bergaran

Cornella, Getafe, Donostia, Logroño eta Burlatako taldeak lehiatuko dira, etxekoarekin batera, hilaren 26tik 28ra, Ointxeren Gabonetako V. txapelketan. Eguazteneko partiduak arratsaldez izango dira, eguenekoak egun osoz eta egubakoitz eguerdian amaituko da txapelketa. Bergaran, berriz, benjamin eta alebin mailetako Gabonetako 3x3 txapelketa jokatuko da eguaztenean frontoian, 9:30ean hasi eta goiz eta arratsaldez. Hilaren 29an –neskak– eta 30ean –mutilak–, berriz, infantilen torneoa izango da kiroldegian, 9:15ean hasi eta eguerdira bitartean.

HOCKEYA

Patin gaineko 4x4 hockey torneoa Bergaran, hilaren 3an

Urtarrilaren 3an, Bergarako Labegaraieta kiroldegian eta Hanka Labanka taldeak antolatua, Gabonetako I. patin gaineko 4x4 hockey torneoa, izango da,1999 eta 2004 urteen artean jaiotako neska-mutikoentzat. Izena Agorrosinen eta kiroldegian eman daiteke, propio jarritako kutxetan, abenduaren 27a baino lehen. Goizez eta arratsaldez jokatuko da txapelketa, 9:30etik eta 16:00etatik aurrera. Infantil, alebin eta benjamin mailetan banatuta ariko dira parte-hartzaileak. Antolatzaileek adierazi dute patinak eta babesak norberak eramatea derrigorrezkoa izango dela.

PILOTA

Neskentzako paleta txapelketa azkarra, 27an Aretxabaletan

Hamabi neskak hartuko dute parte eguenean Aretxabaletako udal pilotalekuan jokatuko den nesken paleta txapelketa azkarrean. LHko 3. maila eta DBHko 4. maila arteko neskak ariko dira lehian. Lehiak buruz burukoak izango dira, eta pilotari bakoitzak ahalik eta partidu gehien jokatzeko helburuarekin antolatu dute txapelketa. Kategoria bakoitzeko txapeldunek abenduaren 29an Donostiako Atano III.a frontoian beste eskualde batzuetako irabazleen kontra indarrak neurtzeko aukera izango dute, Eguberrietako txapelketa azkarren azken fasean.

OÑATI KIROL SARIAK

Marisol Ramos eta Jone Elortza, biak Munduko txapeldun, saritu dituzte

Aloñako atletismo saila, Alberto Lera eta Eskola Kirola ere bai

Oñati Kirol Sarietako saritu guztiak, ekitaldiaren amaieran. | JULEN IRIONDO

Alberto Lera, Ainhoa Martinekin. | J.I.

Marisol Ramos eta Jone Elortza, Mikel Biain alkatearekin. | J.I.

Aloña Mendiren atletismo saileko kideak, oroigarriarekin. | J.I.

JULEN IRIONDO | OÑATI

Kirolariz bete zen egubakoitz iluntzean Oñatiko udaletxeko osoko bilkuren aretoa, amaitzera doan urtean gehien nabarmendu direnak saritu zituzten-eta.

Banakako sariak Marisol Ramos atletarentzat eta Jone Elortza sokatiralariarentzat izan ziren, epaimahaiak bakarra aukeratu ezin-eta. Izan ere, biak izan dira Munduko txapeldun 2012an: Ramos maratoi erdian, Finlandian –Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapeldun ere bai, modalitate eta luzera desberdinetan–; Elortza goma gaineko txapelketan, 500 kilokoan, Gasteizko Badaiotz taldearekin, Eskozian –zilarra ere bai 540 kilokoan, eta Euskal Herriko txapelketa bi pisuetan–.

Entrenatzaile lanagatik emandako saria Alberto Lera karatekarentzat izan da aurten, hainbat urtetan egindako lan isilagatik.

Norbanakoez gain, baina, taldeak ere saritu zituzten: talde onenarena Aloñako atletismo sailarentzat –149 domina aurten–, egindako lanaren eta lortutako emaitza onen ondorioz, Espainiako kros txapelketan taldeka lehiatua aurrenekoz; eta Eskola Kiroleko koordinatzaile eta gurasoentzat ere saria, urteetako lanagatik.

Aipamen bereziak

Aipamen bereziak, azkenik, Udana Motor Taldearentzat eta AMET, Aloña Mendiko espeleologia taldearentzat izan ziren.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Aurrera-Oiartzun	2-3
Aretxabaleta-Trintxerpe	2-0
Ostadar-Beti Gazte	3-0
Lagun Onak-Mondra	2-2
Hondarribia-Touring	3-1
Berio-Aloña Mendi	2-0
Urola-Bergara	0-0
Real Union-Hernani	2-0
Zarautz-Tolosa	1-0

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Hernani	36	15
2	Real Union	33	15
3	Aretxabaleta	29	15
4	Oiartzun	29	15
5	Berio	26	15
6	Hondarribia	26	15
7	Bergara	26	15
8	Touring	22	15
9	Tolosa	21	15
10	Zarautz	17	15
11	Aloña Mendi	17	15
12	Aurrera	16	15
13	Mondra	16	15
14	Lagun Onak	15	15
15	Trintxerpe	14	15
16	Beti Gazte	13	15
17	Urola	12	15
18	Ostadar	12	15

HURRENGO JARDUNALDIA

Zarautz-Trintxerpe
Oiartzun-Aretxabaleta
Beti Gazte-Aurrera
Mondra-Ostadar
Touring-Lagun Onak
Aloña Mendi-Hondarribia
Bergara-Berio
Hernani-Urola
Tolosa-Real Union

ERREGIONAL PREFERENTEA

Antzuola-Zestoa 2-0

I. ERREGIONALA

Bergara-Aretxabaleta 2-2
Arizmendi-Soraluze ---

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Aurrera ---
AloñaMendi-Orioko 0-0
Bergara-Urola 3-0

GAZTEEN 1. MAILA

Anaitasuna-Aloña Mendi 2-2
Arizmendi-Soraluze 0-1
Aretxabaleta-Bergara 3-3

OHOREZKO KADETEAK

Aretxabaleta-Aloña Mendi 3-0
Tolosa-Bergara 2-0
Lazkao-Arrasate 0-0

EMAKUMEEN EUSKAL LIGA

Arizmendi-Gasteizko Neskak 0-10

GAZTE EMAKUMEAK KOPA

Mondra-Urnieta 2-4
Bergara-Oiartzun 1-2
Aloña Mendi-Ikasberri 2-1

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONALA

Soraluze BKE-Hondarribia 33-33
Egia-Ford Mugarri Arrasate 28-29

EUSKADIKO TXAP. EMAK.

Egia-Aloña Mendi 37-20

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Bergara-Ordizia 29-30
Arrasate Atsedena

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Berezao Aloña-Karibe Zaharra 29-23
Ormaiztegi-Arrasate 26-18

EUSKAL LIGA KAD. EMAK.

Aloña Mendi-Zuazo ---

KADETEAK, EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi B-Urola 24-4

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Bide Bide Donosti 78-66

SENIOR GIZONEZKOAK

MU.-Astigarraga 79-65
Soraluce BKE-Bosteko 49-50

SENIOR GIZONAK, 2. MAILA

Orioko-Aloña Mendi ---

SENIOR GIZONAK, 3. MAILA

MU.B-Cafes Aitona 26-80

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Bera Bera Gros 36-47

GAZTEAK ERRENDIMENDUA

MU A-Hernani 59-52

GURE KIROLA
GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK ASTELEHENERO, 20:03, 23:56



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Iñaki Uribe-Etxebarria | Eskoriatzako San Silbestre lasterketako antolatzailea

"Asmoa ez da eliteko atletak batzea, eta bai eskoriatzarrak korrika egitera animatzea"

- Abenduaren 31n San Silbestre lasterketak egingo dituzte Eskoriatzan eta Oñatin
- Eskoriatzan nagusien lasterketa 17:30ean egingo dute eta Oñatin, 16:30ean

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Urteko azken eguna lagunartean korrika eginez agurtzea da Oñatiko eta Eskoriatzako San Silbestreak prestatzen dabiltzanen helburua. Iñaki Uribe-Etxebarria (Eskoriatza, 1987) dabil beste lagun batzuekin batera Eskoriatzako hitzordua prestatzen, eta garbi du helburua: "Herrian egun horretan giro polita sortzea, eta herritarrak kirola egitera animatzea". Gainera, Eskoriatzako hitzorduak badu berezitasunik, ibilbidearen lehenengo kilometroak korrikalari guztiek batera egiten dituztelako, eta lasterketako azken miliak Manuel Muñozen izena darama.

Bost urte egingo ditu Eskoriatzako San Silbestre lasterketak, baina azken bi urte hauetan bultzadatxoa eman diozue.

Bai, herri mailako lasterketa hau bultzatu nahi dugu, aitzakia aproposa delako urteko azken egunean Eskoriatzako kaleetan giro polita sortzeko. Ez ditugu elite mailako atletak nahi, hori ez da helburua, eta bai herritarrak proban parte hartzera animatzea. Nagusi bat baino gehiago dago ibilbidea osorik amaitzen ez duena, eta zer? 500 metro gustura egiten baditu, gu pozik. Jai-giroa sortzea da asmoa.

Nondik nora dator urteko azken egunean lasterketa antolatzeko ohitura hori?

Egunotan begira ibili naiz, eta antza sasoi batean Frantzian urteko azken egunean korrika egiteko ohitura handia zuten. Gero, 1924. urtean Brasilgo Sao Paulo hirian hasi ziren lasterketa hori egiten, eta ordutik hona asko hedatu den kirol hitzordua da, eta Eskoriatzan ere ez dugu atzean geratu gura [Barre].

Azal iezaguzu zer prestatu duzuen hilaren 31rako.

Goizeko 10:30ean gaztetxoen lasterketaren aurretik herriko plazan batuko ditugu, eta bakoitzak bere dortsala marrazteko aukera izango du. Ondoren, gaztetxoekin Intxaurtxuetara joango gara, handik hasiko delako lasterketa. Gaztetxoen lasterketa 12:00etan hasiko dugu, eta kiroldegitik plazara arteko 500 metroez gain, plaza inguruko kaleetan hainbat itzuli egingo dituzte, adinaren arabera. Ondoren, 12:30ean txistor-jana egingo dugu.

Eta arratsaldean nagusien hitzorduak izango dira.

Bai, ea goizean haurrak ikusita arratsaldean gurasoak animatzen diren. 17:25ean brindisa egingo dugu, xanpainaz, eta 17:30 hasiko da nagusien lasterketa. Ibilbideak 7 kilometro inguru ditu, herri barruan, baina lehenengo kilometroak denok elkarrekin egingo ditugu lasai-lasai. Ondoren, lasterketa amaitzeko milia bat geratzen denean, kilometro eta erdi pasatxo, aurrera egin nahi duenak libre izango du, eta horien artean egongo da jokoan II. Milia Eskoriatzarra, Manuel Muñoz saria. Eta amaitzeko luntxa egingo dugu.

Zer egin behar da lasterketa horietan izena emateko?

Goizean eta arratsaldean, lasterketak hasi aurretik plazan egongo gara izenak hartzen, eta bertara gerturatzea baino ez dago. Hala, ea eskoriatzarrak animatzen diren, aurreratu moduan, urtea jai-giroan amaitzeko.

Iñaki Uribe-Etxebarria, eguaztenean, Ibarraundin, lasterketako kartelarekin. | XABIER URTZELAI

Aurkezpeneko une bat, Javi Corvalekin eta hainbat gaztetxorekin. | X.U.

Oñatin ere San Silbestre proba

Antxintxiketan Atletismo Taldeak antolatuta, Oñatin ere *San Silbestre 12 ixa 13* lasterketa egingo dute abenduaren 31n.

Gaztetxoen lasterketa 16:00etan hasiko dute, eta nagusiek 16:30ean izango dute hitzordua. Bada, lasterketan parte hartzeko, proba hasi baino apur bat lehenago hartuko dituzte izenak (3 euro). Urtero moduan, ibilbideak zazpi kilometro izango ditu, Oñatiko erdiko kaleetan zehar.

Iazko lasterketaren irteerako unea. | XABIER URTZELAI

Pubertaro atarian den neska gaztea. | LST1984

Pubertaroaren hasiera urtebete aurreratu da

Jabier Agirre pediatrak pubertate goiztiarraren ondorioak azaldu ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Pubertate goiztiarraren inguruan idatzi du *Guraso.com* atarian Jabier Agirrek. "*Pediatrics* aldizkarian argitaratutako azterketa baten arabera, pubertaroaren hasierako adina urtebete aurreratu da azken hamarkadan", dio Agirrek, eta azaltzen du pubertate goiztiarra esaten zaiola garapenaren lehen seinaleak zortzi urte aurretik agertzen direnean neskatoetan, edo bederatzi urte aurretik mutikoetan. Gehiago dio: "Bizitzaren etapa horretan garai egokia iritsi aurretik sartzeak, trastorno psikologikoak, neskaren hazkundea moteltzea, eta beste gaitz batzuk jasateko arriskua ekar ditzake".

Tratamendua dauka

Pubertatearen seinaleak zeintzuk diren azaltzen du Agirrek bere artikuluan, baita seinale horiek behar baino lehenago agertzeak ekarri ahal dituen ondorioak ere. "Aurrerapen horren azken arrazoia oraindik ezezaguna den arren, badira, itxuraz, joera hori eragin dezaketen faktore batzuk". Haurdunaldian ugaztunen plazentarekin egindako kosmetikoak erabiltzea, jaiotzako pisu txikia, eta loditasuna dira faktore horiek. Tratamendua badagoela dio Agirrek, eta pediatrak baloratu behar duela errezetatu ala ez. Gurasook ere adi ibili behar dugu.

Txikilandia 2012: hiru egun euskaraz jolastu eta dibertitzeko

L.Z. | ARRASATE

Txatxilipurdi elkarteak 22. urtez antolatuko du Txikilandia, eta kontuan izanik urtero 1.500 pertsona inguruk gozatzen duela Txikilandiaz, ez da hitzordu makala. Aurten, urtarrilaren 3tik 5era bitartean egingo dute Txikilandia Arrasaten.

Aurtengo berrikuntzak

Uarkapen frontoian zabalduko ditu ateak aurten ere Txikilandiak, baina kantxan espazio gehiago edukitzeko tailerrak eta familia txokoa jatetxean eta Kzguneak zeuden tokian egingo dituzte. "Hala, lau puzgarri izango ditugu aurten kantxan", adierazi dute Txatxilipurditik. "Irrien lagunen puzgarri guztiak izango ditugu Txikilandian, eta guztiek —txiki zein handi— izango dute denetan ibiltzeko aukera". Beste nobedadeetako bat gazte eskaintzak dira; 8-12 urte bitartekoei bereziki zuzenduak. "Goizero balanze-bike handiak izango ditugu, eta arratsaldero, berriz, rokodromoan ibiltzeko aukera eskaladan adituak diren hezitzaileen laguntzarekin". Arrasateko gaztetxeak, berriz, serigrafia tailerra eskainiko du gaztetxean bertan. Urtarrilaren 3an izango da, 17:00etan hasita. Urtarrilaren 5ean, berriz, igerilekuan bi txanda antolatu dituzte: 11:00etatik 14:00etara 0-6 urte bitartekoendako; eta 12:00etatik 14:00etara zazpi urtetik gorakoendako. Prezioak mantendu egin dituzte. "Zailtasunak zailtasun Txikilandiak euskalduna, dibertigarria, hezitzailea eta herrikoa izan gura du", esan dute Txatxilipurditik.

Haurrak, iaz, Txikilandian. | JONE INUNTZIAGA

Aldundiak online ikastaroa ipini du martxan gurasoak sare sozialen inguruan formatzeko

L.Z. | ARRASATE

10 eta 18 urte bitarteko ikasleen %71-k onartzen du sare sozialen batean dagoela. Aldiz, guraso askorendako berria den fenomeno baten aurrean gaude. Ikerketa batek dioenez %40ak ez daki seme-alabak sare sozialetan dauden edo ez.

Gurasoen artean zein hezkuntza komunitatean kezka oso handia dela ikusita Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuko Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritzak, hezkuntza sare eta guraso elkarte ezberdinen laguntzarekin, ikastaro oso bat jarri du abian.

Bideo tutorial batean adingabeak babesteko eta sarearen alde onak eta txarrak ezberdintzen laguntzeko irizpideak jasoko dituzte parte-hartzaileek.

Online ikastaroaren edukiak

"Ikastaroak sare sozialak zer diren eta nola funtzionatzen duten azalduko du. Komunikaziorako tresna hau zertarako erabiltzen duten azaltzen duten gazteen testigantzak biltzen ditu", adierazten dute Aldunditik. "Ikastaroak arriskuen berri emanez eta hauei aurre nola egin erakutsiz jarraitzen du aurrera (...). Gainera, ciberbullinga edo jazarpen digitala ere lantzen du. Gure seme-alabei norbaitek sarean enbarazu egiten badie edo norbaitek argazki desegokiren bat igotzen badu, zer egin ere azaltzen du tutorialak". Bideo tutorialaren bidez, arazo honen parte diren sektoreek, gaiaren inguruko punturik garrantzitsuenak ezagutu ditzakete. Bideoa honako helbidean aurki daiteke: *saresozialaketaadingabeak.igipuzkoa.net*.

Francesco Tonucci: "Haurrei jolasten utzi behar zaie"

L.Z. | ARRASATE

Francesco Tonucci psikopedagogo italiarrari *Hik Hasi* aldizkarian egindako elkarrizketa ekarri dugu *Guraso.com* atarira. Haurren Hiria egitasmoaren sortzaileak azaltzen du hiri modernoek zenbateraino murrizten duten haurren autonomia.

Orduak pantaila aurrean

Tonuccik ezin du argiago hitzegin: "Bizitzaren formaziorako funtsezkoak diren esperientziak desagertzen ari dira haurren bizipenetatik. Horrek eragin dramatikoak ditu haurtzaroan eta gizartean". Adierazten duenez hiri modernoan haurrak ez dira etxetik bakarrik ateratzen -etxean gelditzera behartuta daude- gurasoek beldur direlako. "Haurraren autonomia edo askatasunaren murrizketa ia erabatekoa da, eta gurasoei ez zaie axola haurrak ordu asko pasatzen badu pantaila baten aurrean".

Arriskua desagertu egin da

Adituak haurrendako kaleko espazioa berreskuratzeko beharra aldarrikatzen du. "Jolasaren oinarrizko esperientzia gauzatzeko beharrezkoa da umea etxetik atera ahal izatea gurasoen edo helduen kontrol zuzenik gabe: lagun bat aurkitzea, jolasa erabakitzea eta arauak adostea, jolaserako leku egokia aukeratzea, nahikoa denbora libre izatea, ahalik eta gehien disfrutatzea eta umeak etxera bueltatzeko gogorik ez sentitzea. Jolasaren bidez izaten dute umeek hazkunderik handiena beren garapenean".

Haurrak uneoro helduek lagunduta egoteak ez dela komenigarria uste du Tonuccik. "Arriskua desagertu egin da umearen bizitzatik, eta arriskuari eta oztopoari aurre egiteko esperientzia ezagutzen ez duen umeak ezinezko duen hori esperimentatzeko desioa eta beharra pilatzen du bere baitan; desio pilaketa hori obsesibo bilakatu eta nerabezaroan lehertu ohi da", dio Tonuccik. "Beldur eta kontrol zorrotzak medio, oso esperientzia arraroa eskaintzen ari gara gure umeei, eta hazten direnean are gehiago sufritzeko oinarria jartzen ari gara". Haurren Hiria egitasmoaren bultzatzaileak gurasoak animatzen ditu haurren autonomia bultzatzera. "Guraso askok uste dute beren umea tuntuna dela, ezgaia. Ero bati begiratzen zaion moduan begiratzen didate galdetzen diedanean zergatik ez den beren haurra eskolara bakarrik joaten".

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

guraso.com

KULTURA

Aretxabaletako akordeoi kontzertuko une bat. | IMANOL SORIANO

Oñati abesbatza Agustindarren elizan. | IMANOL SORIANO

Bergarako Udal Banda, zapatuko emanaldian. | IMANOL SORIANO

Gabon kantuak, luxuzko jantziz apaindu zituzten zapatuan

- Sasoiko kontzertu bereziak egin zituzten Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan
- Abesbatza, orkestra eta bandetan dagoen maila altuaren froga izan zen beste behin ere

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Gabonak eta kantua batera doazela esan daiteke eta Gabon kanten errepertorioa luzea eta ezaguna da gurean.

Gabonetako kontzertuek ere ez dute tradiziotik gutxiago eta gurean ere horren froga zapatu gauean izan genuen Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan. Gabon kantek bai eta film eta operetako pieza ezagunek ere osatu zituzten zapatu gauetako errepertorioak, elizan, antzokian ala frontoian, aulkian geratu eta bertan gozatzeko moduko abesti ezagun eta ederrak guztiak, inondik ere. Galaz jantzi zituzten gabon kantuak zapatuan eta froga izan zen gureko abesbatza, orkestra eta bandek benetan erakusten duten maila altuarena. Bergaran herriko musikarien topaketa handia izan zen –kopuruz eta kalitatez–, Aretxabaletan akordeoiena eta Oñatin abesbatzak izan zuen protagonismo osoa.

Akordeoiak Aretxabaletan

Arkupeko aretoan Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak egin zituen Gabon bezperetako girotze lanak. Lehenengo bakarlariek jo zuten, Unai Mendikutek eta Maria Zubimendk, eta ostean orkestra guztiak jo zuen. Sasoi honetako kontzertuetan egiten den moduan Gabon kantak eta soinu bandetakoak eta bestelako abesti ezagunak ere jo zituzten zapatuko hitzorduan.

Gabon giroa Agustinoetan

Oñatin, iluntzeko mezaren ostean, Oñatiko abesbatzaren eskutik, Gabon kantarik kuttunenak herriko ahotsik ederrenetakoekin entzuteko aukera izan zuten. Ekitaldi xume eta txikia izan zen baina ederra, zalantza barik. Loli Ordokik zuzenduta, *Atozte Kristauak* (*Adeste fideles*), *Sehaska baten* eta *Haurtxo txiki eta eder hori* abestu zituzten, besteak beste. Goxotasun eta behar besteko indarrez abestu zituen Oñati abesbatzak kantu ederrok eta entzuleen laguntza ere izan zuten.

Luxuzko emanaldia Bergaran

Bergaran luxuzkoa izan zen Gabonetako kontzertua, luxuzkoa parte-hartzaileengatik eta luxuzkoa musika bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak eta Orfeoiak aukeratu zuten abesti sortarengatik. Bete egin zen pilotalekua zapatu gauean, gutxiagorako ere ez zen-eta. Udal Musika Bandakoek ireki zuten gaubela *The Adventures of Baron Munchausen* lanaren fantasia eta komediarekin. Ostean etorri zen Aritzeta abesbatzari egokitu zitzaion dagokion sasoia gogora ekartzea, eta Bastidaren *Belengo estalpe txiki batian* izan zen Gabonei egindako keinua. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako Bergarako orkestra sinfonikoak pieza herrikoi eta alaiagoak aukeratu zituen eta amaiera handia baino lehen, Orfeoia jaialdiko zatirik solemneenaz arduratu zen, Verdiren lanik ezagunenekin. Amaieran parte-hartzaile guztiek elkarrekin kantatu zuten *Pirates of the Caribbean* filmeko *At World's End* ezaguna.

Labur bezain potente, kantu berriek estreinu arrakastatsua izan zuten

Lan berria aurkeztu zuen Never Surrender laukoteak etxean barikuan

J.B. | ARRASATE

Gaztetxerako bidea zuzen hartu zuten barikuan bai taldekoek zein jarraitzaile saldoak, aretoa goraino bete arte, bai behintzat. Festa izan zen gaztetxekoa, taldearen disko berria aurkezteko festa handia.

Arrasateko laukoteak lan berria etxean, ofizialki eta ospakizun egunetan aurkeztu zuen eta jasotako erantzuna, espero bezala, ikaragarria izan zen. Guztiek esperotakoa zen hori.

Forma betean

Momentu ezin hobean daude Never Surrenderrekoak, nabari zaie hori. Disko berria, indar berriak eta zale dedikatuak dauzkate. Durangoko Azokan aurkeztu zuten diskoa, Ahotsenea guneko ekitaldirik arrakastatsuenetako baten, eta argi zegoen Arrasatekoa ez zela gutxiago izango.

Agian, zerbait izatekotan, luzeagoa izan zitekeen kontzertua, ordubete pasatxo besterik ez baitzuten jo, baina jotakoa zuzena, bizia eta indartsua izan zen eta bistan geratu zen laukoteak gauzak argi dauzkala. Izerdi litroak oholtza geinean eta baita gaztetxeko zoruan ere, barikuan bizitakoaren froga fisiko kuestiona ezina izan zena. Aurkezpen motza izan zen eta disko berrikoak eta abesti zaharrak jo zituzten ondo irabazitako konfiantza batekin eta zale eta lagunen babesean.

Andoni Inurritegi, abeslaria, piztutako jarraitzaileen aurrean abesten. | JAGOBA DOMINGO

'Bide zuzenetik oker'

Azaroan kaleratu zuen Arrasateko laukoteak Mauka diskoetxearekin lan berria. Iluntz eta Dat tabernetan eskura daiteke dagoeneko 8 euroan.

Aurreko diskoaren jarraipen moduan uler daitekeela diote; *Bide zuzenetik oker*-en, baina, soinua eta mezua zuzenagoak eta aldi berean landuagoak dira. Aurreko diskoa gustatu zitzaionari ez dio hutsik egingo lan berriak.

Diskoaren azala.

ANDONI INURRITEGI
ABESLARIA

"Oraingoan kritika sozialean gehiago sakondu dugu"



NEVER SURRENDER

Zer kontatu nahi duzue 'Bide zuzenetik oker'-en?

Latorrizko dominak abestiaren letran aipatzen da *Bide zuzenetik oker* esaldia. Esaten du norberak ezartzen diola bere buruari domina eta ez digula balio kanpotik ipinitako urrezko domina batek, gure buruari jartzen diogun horrek baizik.

Aldaketa dator aurrekotik?

Aurrekoaren ildotik doan diskoa da baina musikalki bada aurrekoa baino zuzenagoa, kantuak motzagoak direlako, erritmo biziekin. Kantuak ere landuagoak dira baina aurrekoaren jarraipena da.

Mezuari dagokionez ere bai?

Mezua berez ez da aldatu baina hamar abesti berri dira eta lehenagoko tematiketan sakondu dugu. Gauza horiei buruz beste modu baten egin dugu berba. Aurreko diskoa agian pertsonalagoa zen eta oraingoan kritika soziala da gehien bat. Guk esku artean daukaguna da pribilegio bat, musika egitea, eta aukera ematen digu hamar abestiren bitartez jendeari hamar ideia helarazteko eta letrak horretarako baliatzen ditugu.

Ahotsak zergatik grabatu duzue lokalean?

Estudioko presioa kendu eta naturalen zaigun lekua delako lan egiteko. Gure habitata da lokala.



JOSETXO ARANTZABAL

'Kixi'-ren zinema bildumatxoa

Asier Altuna 'Kixi' zinemagile bergararrak zinema saio benetan berezia egin zuen atzo Bergarako gaztetxean. Filmetako bere sekuentzia faboritoekin bilduma egin eta zinema saio txikia egin zuen. Egungoak eta baita ere zinemaren historiako klasikoak aukeratu zituen atzoko saiorako: Fritz Lang, Angelopoulus, Fellini... Zinema ikastaro txiki bat izan zen Altunak prestatu zuena.

JOSETXO ARANTZABAL

Buztinezko artelanen erakusketa Aroztegin

Bergarako Buztinzale zeramika elkarteak prestatu duen erakusketa ikusteko aukera egon da asteburuan Bergarako Aroztegi aretoan. Barikuan zabaldu eta atzora arte egon zen irekita aipatutako erakusketa. Elkarteak urtean zehar egindako piezek osatu dute bilduma. Elkarteko kideen eskuen abilezia eta gustuaren froga ikusteko aukera izan da asteburuan egin dena. Urte amaieran Bergarako Beart elkartekoena izango da Aroztegiko txanda.

Mississippi Mass Choir, Amaia antzokian atzo. | JOSETXO ARANTZABAL

Amaia antzokia aldare bihurtuta, gospel kantu erlijiosoen hunkigarriena Mississippitik

Fedearen aldarri eztia egin zuten ahots sendo, samur eta ederrekin

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Meza benetan ederrak izan behar dute gospelez abestutakoek. Kristaua izan barik ere askotan egokitu izan zaigu hemengo elizkizun astunetara joatea eta alde ederra dago Mississippiko hauen "berri ona" zabaltzeko moduaren eta hemengo eliz kantuen artean. Ederra da gospela eta horregatik konkistatu du mundua, fede eta kultu kontuak gainditua. Arrasaten atzo izandako erakustaldia musika horrek duen poz, indar eta maitasunaren froga izan zen. Ia kide adina sari dauka abesbatzak, lehen mailako taldea, baina xume-xume agertu ziren oholtzara. Euren lema "Jainkoa zerbitzatzen, musikaren bidez" da eta horregatik bakarrik, agian bat baino gehiago konbertituko zuten atzo. Urtero moduan, Amaia antzokia goraino bete zen. Ez da, hain justu, talde honek Arrasaten abesten duen lehen aldia eta urtero egiten den Gabonetako gospel kontzertuetatik, hauek hartu dute ospe handiena bertako jarraitzaileen artean. Domekakoan ere ez zuten huts egin eta taldeka zein bakarlariek, bihotz gogorrena ere samurtu zuten kantu erlijiosoekin ekarri zuten euren fedearen aldarri eztia.

Fantasiazko domeka iluntzea izan zen haur zein nagusientzako

Bergaran kale antzerkia eta Aretxabaletan haurrentzako lan bat ikusteko aukera egon zen

'The Wolves', Bergarako kaleetatik. | JOSETXO ARANTZABAL

J.B. | ARRASATE

Antzerkiaren arratsaldea izan zen atzokoa. Aretxabaletan, aretokoa eta Bergaran, kalekoa.

Amets, ametsetan

Zapatetatik makina bat ipuinetarako istorioak atera izan dira eta Patata Tropikala antzerki taldeak domekan Aretxabaletara ekarritakoa askoren nahasketa da, emaitza berri batekin. Ausarta eta sentibera denak soilik jantzi ditzakeen zapaten istorioa kontatzen da *Zapata gorriak* lanean. Amets neskatoa da protagonista eta, hain zuzen, ametsen mundua galbidetik salbatu behar du heroinak gaiztoen mehatxutik. Lo aztia aurkitu behar du Ametsek gizaki guztiak irudimena galdu eta makina bihurtu baino lehen. Abentura eta fantasia lantzen dituen haurrentzako antzezlan entretenigarria da *Zapata gorriak*.

Fantasia kalean

Bergaran, aldiz, irudimena eta ameskeria kalera atera zuen Deabru Beltzak taldeak. Horien kasuan ere kontakizun aski ezagun bat oinarri hartuta, *Hamelingo flauta jotzailea*, kalejira benetan ikusgarria egin zuten Bergarako kaleetatik. *The Wolves* (Otsoak) ikuskizuna 19:00etan hasi eta herriko kaleak hartu zituen. Otso hezurdura erraldoi itxurako txotxongiloak manipulatuta, musikarekin ibilaldia egin zuten baina istorio bat kontatuz, desfile hutsa izan barik. Hamelingo flauta jotzailearen mendekua da desfilean agertzen dena, herria behin eta berriz salbatu eta gero, berriz ere kasu ez egiteagatik, hartzen duen mendekua.

Zapata gorriak, Arkupe aretoan. | JOSETXO ARANTZABAL

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, %100ean SUBENTZIONATUAK

FABRIKAZIO MEKANIKO		
IKASTAROEN IZENAK	**ORDUAK**	**DATAK**
UF0991: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOAREN PROZESU KOSTUEN KALKULUA	40	2013/01/21 - 2013/02/18
UF0878: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO LANETARAKO MAKINA ETA ERREMINTEN PRESTAKUNTZA	80	2013/02/19 - 2013/04/16
UF0877 LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA	30	2013/02/04 - 2013/02/28
UF0880 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOAN FABRIKAZIO PROZESUEN ERAGIKETA OSAGARRIAK	70	2013/04/17 - 2013/06/04
UF0454: CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ FABRIKAZIO MEKANIKORAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA	90	2013/01/28 - 2013/03/26
UF1623: XAFLAZ ESTALITAKO ELEKTRODO BIDEZKO ETA KARBONO ALTZAIRUZKO PROFILAK RUTILO ELEKTRODOEN BIDEZ SOLDATZEA	90	2013/01/28 - 2013/03/25
UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUEN EGIAZTAPENA (Tridimentsionala)	30	2013/02/04 - 2013/02/28
UF0576: FUNDIZIO ETA FORJARAKO MOLDE ETA EREDUEN DISEINURAKO MATERIALAK ETA BIDERAGARRITASUNA IKERTZEA	70	2013/01/14 - 2013/03/07
UF1009: URRADURA, ELEKTRO HIGADURA ETA PROZEDURA BEREZIEN BIDEZKO PIEZEN FABRIKAZIORAKO CNC PROGRAMEN SORTZEA (Sarpen bidez/hari bidez).	80	2013/04/08 - 2013/05/29
ELEKTRIZITATEA		
IKASTAROEN IZENAK	**ORDUAK**	**DATAK**
UF0889 AUTOMATISMO ELEKTRIKOEN MUNTAIA ETA KONPONKETA	60	2013/02/04 - 2013/03/21
UF0890: INSTALAZIO AUTOMATIZATUEN MUNTAIA	90	2013/03/18 - 2013/05/23
UF0884: ERAIKUNTZETAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MUNTAIA	60	2013/04/08 - 2013/05/13
UF0885: ETXEBIZITZETAKO TENTSIO BAXUKO INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MUNTAIA ETA MANTENIMENDUA	80	2013/02/04 - 2013/03/26
OINARRIZKO ELEKTRIZITATEA	40	2013/01/09 - 2013/01/31
IKUSPEN ARTIFIZIALA (HASIERAKO MAILA)	30	2013/02/18 - 2013/03/07
OINARRIZKO ELEKTRONIKA	50	2013/02/04 - 2013/03/14
ADMINISTRAZIOA ETA INFORMATIKA		
IKASTAROEN IZENAK	**ORDUAK**	**DATAK**
UF0319: SISTEMA OPERATIBOA, INFORMAZIOA BILATZEA: INTERNETA/INTRANETA ETA POSTA ELEKTRONIKOA	30	Zehaztu gabe
UF0322: DATU-BASE ERLAZIONALEN APLIKAZIO INFORMATIKOAK (Access)	50	2013/01/14 - 2013/02/18
UF0321 KALKULU ORRIEN APLIKAZIO INFORMATIKOAK (Excel)	50	2013/03/04 - 2013/03/26
UF0323: AURKEZPENERAKO APLIKAZIO INFORMATIKOA: INFORMAZIO GRAFIKOAK (Power Point)	30	2013/04/08 - 2013/04/25
UF0343: SOLDATAK, KOTIZATZEA ETA DIRU-BILKETAK	90	2013/01/14 - 2013/03/21
UF0314: KUDEAKETA KONTABLEA	90	2013/03/11 - 2013/05/16
BESTE BATZUK		
IKASTAROEN IZENAK	**ORDUAK**	**DATAK**
ORGA JASOTZAILEEN ERABILERA	23	2013/03/11 - 2013/03/21
ZUBI-GARABIEN ERABILERA	17	2013/02/18 - 2013/02/27
HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZESUEN DISEINUA I eta II	40	2013/03/11 - 2013/04/18
HOTZEKO ESTANPAZIOKO MAKINEN DOIKUNTZA	30	2013/04/15 - 2013/04/30
FORGE AURRERATUA. ERREMINTEN ANALISIA	20	2013/04/08 - 2013/04/17

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILA
HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49
ikastaroak@imaltuna.com
www. imaltuna.com

GURE MUSIKA TALDEAK

NO HOPE

No Hope taldeko gaur egungo formazioa lanerako prest. | MIREIA AKER

"Diskoan punk-rock musikaren orbitan dauden estilo ezberdinak daude"

- Morris bateria-jole berriak aste betean ikasi behar izan zituen kantuak
- 'Corrupción' kantuaren hitzekin tira-birak izan genituen udalarekin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Ez dago itxaropenik, No Hope taldeak *Kale Ustelak* deitzen den lehen lan luzea kaleratu berri du duela aste batzuk. Plastikoan punk eta rock and roll-a hitz zuzen eta ziztatzaileekin aurkituko dugu. Aretxabaletako taldeaz eta diskoaz gehiago jakin nahian, *Morris* eta *Jawer* taldekideekin egon gara eta disko-jogailuan The Beatles entzun bitartean grabagailua piztu dugu.

Nola hasi zen No Hope?

Aspaldi hasi ginen taldearekin, 2008. urtean gutxi gora behera. No Hope, Los Rechazados taldearen errautsetatik jaio zela esan dezakegu. Los Rechazados-en ibilbidea bukatu zen, bi taldekidek jotzeari utzi ziotelako baina beste hirurok [Arruti, Potras eta Jawer] ez genuen musika alde batera utzi behar. Beraz taldearen izena aldatu, beste lagun batzuekin kontaktuan jarri eta aurrera jarraitzea erabaki genuen.

Zer aurkitu dugu *Kale Ustelak* diskoan?

Punk-rock musikaren orbitan dauden estilo ezberdinak hitz zuzen eta kritikoekin. 8 kantu grabatu ditugu, 7 abesti propio eta *Esan Ezetz*, Roots&Boots talde malaisiarraren kantu bat, gure hitzekin moldatuta. Horrez gain, diskoan Los Rechazados taldearen hiru abesti daude, hor ikusi daiteke bi taldeen arteko lotura. Hala ere, zaila egiten zaigu geure diskoa deskribatzea.

Diskoa grabatzen urte bete eman duzue, zer dela eta?

Desertuan zehar ibilaldi luze bat izan da! Estudioan 2011ko uztailean sartu ginen eta bertatik 2012ko martxoan irten ginen.

> **"Hitz zuzen eta kritikoak dira abestien ardatz nagusia "**

Ondoren, diskoaren diseinuarekin beste hainbeste luzatu ginen, beraz abenduan kaleratu dugu lehen lana. Tartean mila ustekabe jasan genituen eta guzti horrek dinamika apurtu zuen, grabazio guztia aste gutxi batzuetan egin beharrean hilabete batzuk behar izan ditugu. Adibidez, gure bateria ohia, Morenito, istilu bat tarteko, besoa apurtu zuen, beraz imajinatzen duzun bezala, berau osatu artean geldi egon ginen. Disko osoan hiru bateria ezberdin daudela aipatzearekin, gure odisea ulertu daitekeela uste dugu. Baina ustekabe hauek alde batera utziz, oso esperientzia ona izan da, etxean bezala sentitu gara grabatu bitartean.

Kantu bat aukeratu beharrez gero zein izango zen?

Diskoari izena ematen dion *Kale ustelak* edo *Sua* aukeratuko nituzke, baina momentu bakoitzak kantu ezberdin bat eskatzen du. Adibidez, jende dezentek aipatu digu erdaraz egindako kantuak puntu makarrago bat dutela eta euskaraz egindakoak ordea, melodikoagoak direla, landuagoak. Entzuleak erabaki dezala zein de diskoaren kanta onena!

Kolaborazio asko izan dituzue diskoan ezta?

Bai, urtebetean lagun askorekin hitz egiteko denbora dago! Egia esan kantuek koru asko dituzte eta indarra ematen die. Kolaboratzaileen artean, Aggressive Combat-eko *Mara*; Material Rechazado-ko Aitor; Neallta Fola -ko *Kanu* eta *Karlote* edota egun gure bateria-jolea den *Morris* daude.

Horrez gain kolaborazio berezi bat izan duzue.

Oi!, Arrutiren txakurraren zaunkak *Sua* kantuan entzun daitezke. Honen grabazioa benetan bitxia izan zen, Arruti txakurrarekin ahotsak grabatzeko kabinan zegoen hau zirikatzen zaunka egin zezan eta *Oi!*-ren zaunkak hiru nota ezberdin ziruditen.

Diskoa Teletetxo punk eta Oi! zigiluarekin atera duzue.

Gure soinuarekin bat egiten duen etxea dela uste dugu, eta diskoaren kopiak egin dizkigute. Hala ere banaketaren lan handiena guk egin beharko dugu. Batez ere kontzertuetan eta tabernetan jarriko dugu salgai diskoa, eta horrez gain, Musikooperatiba ekimenean murgilduta dagoen lagun batek Donostia aldean diskoa banatzen lagunduko digu.

Eta hemendik aurrera zer?

Diskoa ahalik eta leku gehienetan aurkeztea da gure nahia eta bitartean kantu berrietan lanean jarraitzea. Momentu honetan, bi kanta berri prestatzen dihardugu, *Gipunkskoa* izeneko bilduma batean parte hartzeko. Horrez gain hainbat kontzertu ditugu datozen hilabeteetan, Algortan, Tarrasan eta Arrasateko gaztetxean Itxungi Rock irratiaren aldeko jaialdian besteak beste.

ZERTZELADA

KALE USTELAK

Estiloa: Punk.

Egilea: No Hope.

Argitaletxea: Teletetxo Rekords.

Iraupena: 21 minutu.

Esperantza ezaren aurrean, punk amorratua

Bazen ordua bailarako hainbat hormatan idatzitako taldearen izenari soinu banda jartzeko. Aretxabaletako taldeak lehenengo lana kaleratu du, zortzi kantuz osatutakoa. Hope edo esperantzarik ez dago atxabaltarren ustetan (etorkizunik ere ez dagoela gehitu dezakegu) eta hitz ezkor eta kritikoak idatzi dituzte. Horrez gain, musikalki ere atzera begiratzen dute: euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz abestutako zortzi kantutan 80ko hamarkadako punk amorratua eta Ingalaterrako punk-Oi!a nagusitzen dira. Horrez gain, baina, badira La Perrera talde aitzindariak ezagutzera eman zuen 'Te mataré' zuzena edo koadrilan, lagun artean, abesteko 'Esan ezetz' pieza itsaskorra ere.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Matienan pisua salgai. Gela bi, egongela, bainu-gela eta sukaldea. Altzariz hornitua. Berogailua gas naturalarekin. 682-43 93 23 (9:30-13:00/ /15:30-20:00).

Almeria. 80m2-ko etxebizitza salgai. 2 logela handi, komun bat, balkoi bat, sukaldea eskegitokiarekin. Igerilekua eta hondartzatik 50 metrotara. Guztiz jantzi barik eta estreinatu barik. Oso argitsua. Prezioa: 110.000 euro. 608-19 73 17.

Aramaio. Hiru logela, sukaldea, jangela, egongela, bi komun, despentsa, terraza eta garaje itxiko etxebizitza salgai. Kalean. 660-57 40 66.

Aretxabaleta. 61 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela egongela zabala, sukaldea eta komuna. 2006an egina. Kiroldegitik gertu. Bizitzera sartzeko gertu. 115.000 euro. 629-42 01 10.

Arrasate. San Andresko Leintzibar kalean 80 m2ko etxebizitza salgai. Hiru logela eta egongela, igogailua eta berokuntza indibiduala. Denak kanpo aldera ematen du. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. Prezio interesgarria. 649-20 99 97.

Asturias. Asturias-en bi pisuko etxea eta lur saila salgai. Deitu 649-40 26 22 telefonora.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647-77 73 92.

Cuzcurrieta del rio Tiron (Errioxa). Hiru logela, garagea eta igerilekua eta lorategia komunitarioak. Prezioa: 100.000 €. Deitu 692-99 43 51 telefono zenbakira..

Durango. 86 m2-ko etxebizitza salgai, Murueta Torre 7n. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, ganbara eta garajea. Solairua: 5. Prezioa: 270.000 €. 688-64 26 43 (Jaione).

Durango. Askatasun etorbidean pisua salgai. Dena hegoaldera, oso eguzkitsua egun osoan, 83m2 erabilgarri, 3 logela, 2 komun, 2 garaje handi, trasteroa, igogailua garajeraino, oso ondo zaindua eta modernoa. Deitu 652-75 54 46 telefonora.

Durango. San Ignazio auzunean pisua salgai. Gela bikoa, argitsua eta lasaia. Prezioa: 155.000 euro. Deitu 686-21 77 01 zenbakira.

Elorrio. Elorrio erdigunean estreinatu gabeko etxea salgai. 77m2, 3 logela, 2 bainu eta garajea, altzariekin. Prezioa, 230.000euro. Deitu 634-45 72 01 telefonora.

Garai. Oarbeaskoa baserria salgai.10.000 m2-ko lursaila. Garaiko San Migel auzoa, 6. 8.500 m2-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m2ko baratza, frutalak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Toki lasaia, hegoaldera begira. Erreabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Udaletxea, frontoia, kultur etxea, osakidetza kontsulta, jatetxeak(2) eta bus geltokitik 150 metrotara. Durangotik 10 minutura. Ap-8 autopistatik 5 minutara. Tel: 639-83 34 89 Telefonoa: 639-83 34 89. Posta: jo.amantegi@gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriaundin, Iurretan. 66.000 euro. Deitu 685-72 80 42 telefono zenbakira.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela haundi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 112m2 azalera eraikituak. Aukera bikaina. 695-77 31 41.

Otxandio. Otxandion apartamentua salgai. Trastelekua eta igogailuarekin. eitu telefono honetara: 675-71 72 83

Puerto Rico (Kanariar irlak). Neguan Kanariar irletan apartamentu bat alokagai, Puerto Rico herrian. Bista onak. Deitu 600 -46 44 11 zenbakira.

Sakana. Interesa duzuenek hots egin 678- 23 40 91 telefono zenbakira.

Santo Domingo de la Calzada (Errioxa). Pisu berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. Deitu telefono honetara: 657-77 26 13.

Zigoitia. Etxeak 12 urte ditu eta oso egoera onean dago. Sukaldea (13m2) eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela, tximiniadun txokoa, beiratedun terraza (28m2) eta egongela (30m2) ditu. Hegoalderantz orientatuta dagoenez, oso eguzkitsua da. Partzelak 850m2 ditu. Garajean bi kotxe sartzen dira. Interesatuek 693 -24 37 12 telefono zenbakira deitu dezakete edota maricarmen.vitoriagasteiz@gmail.com helbidera idatzi.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 600 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: www.euskalnet.net/aguirre 630 60 47 75

Atxondo. Apatan, lau logela, komun bi, egongela eta sukaldea duen pisu berria salgai edo alokairuan. Garajea aukeran. Interesatuok 679-29 08 96 telefono zenbakira.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Igogailutik gertu. Bi logelakoa. Oso argitsua. Leiho berriekin. Berokuntza zentrala. 665-73 98 32.

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Donostian, Antiguo auzoan bertan. Persona bat edo bintzako egokitua, bi planta dauzka. Eguskitzua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609-48 11 24.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. Interesatuok deitu telefono zenbakira arratsaldez: 630-76 18 28.

Durango. Durangoko erdigunean logela biko etxea alokagai. Guztiz berritua. Deitu 695-78 75 35 telefonora.

Elorrio. Elorrion pisu bat alokagai. 3 logela, altzariz jantzia. Bizitzeko prest. Prezioa 500 euro. 94-658 20 18.

Elorrio. Apartamentua alokagai herrigunean: logela bat, sukaldea-egongela eta bainugela ditu. Altzariekin, berogailua-gasa. Deitu 94-682 04 38 telefono zenbakira gauez.

Elorrio. 50 m2-ko atiko berria alokagai Elorrion. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. Deitu 606-04 38 35 telefono zenbakira.

Eskoriatza. 50 m2ko etxebizitza ematen da errentan Intxaurtxuetan. 450 euro; hilean. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea izateko aukera. Deitu 688-66 71 56 telefonora.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasateko neska arduratsuak etxea hartuko luke errentan. Aukeran apartamentua edo etxebizitza txikia. 676-47 41 55.

Arrasate. Bikote gazte batek 2 edo 3 logelako etxebizitza hartuko luke errentan. Erguin, San Andres edo Musakola inguruetan. 943-77 13 02.

Bergara. Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. 696-70 55 09.

Bergara. Pisua hartuko nuke errentan, pertsona euskalduna. Deitu 635-74 61 45 telefono zenbakira.

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Prezio onean. Deitu 671-84 71 71 telefono zenbakira.

Oñati. Etxebizitza behar dugu errentan emakume eta ume batentzat. Hilean 500-550 euro ordaindu ahal izango nuke. Deitu 628-08 85 98 telefono zenbakia.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
- Barrenkale 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
- San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€. PREZIO JEITSIERAREKIN
- Zubiaurre 56 m². 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalategi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalategin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Bidekurutzeta 147 m². Igogailuarekin. 180.000€.
- Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
- Matxiategi 60 m². 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.
- Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Domingo Iturbe 90 m², 4 logela. 126.212 . Prezio jeitsierarekin.
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

105. ETXEAK OSATU

Abadiño. Logela bat alokatzen dut Muntsaratz auzoan. Pisu berria, eguzkitsua eta merke. 679-61 71 54.

Arrasate. Bi logelako etxebizitza bat osatzeko lagun bat behar da, Nafarroa etorbidean. 635-70 79 69.

Arrasate. Logela ematen da errentan, etxeko gune komunak erabiltzeko aukerarekin. Bikotearentzako moduko ohearekin. Egoera oso onean. 200 euro hilean. 634-41 90 51.

Arrasate. Etxea osatzeko bi pertsona behar dira. Langile giroa. Errenta gastua: 185 euro gehi pisuko gastuak. 699-11 45 14.

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Wifiarekin. 670-85 86 68.

Berriz. Berrizen bi pisukide hirugarren baten bila. Tren geltokitik eta autobus paradatik gertu. 662-92 69 11.

Durango. Durangon logela bat alokatzen dut. Madalenoste kalean, autobus geltokiaren ondoan. 650-73 87 24.

Durango. Bi pertsona 3. Baten bila tabiran behe pisu bat konpartitzeko. 3 logela, 2 komun. 637-29 24 65

Mutriku. Logela bat alokatzen da mutrikun. Etxe eguzkitsua eta lasaia. Itxasoari eta mendiari begira. Tno: 649-51 88 15.

Durangaldea. Durangon, Alluitz kalean, pisua partekatzeko lagun baten bila nabil. Prezio onean. Neska gurago, mutila baino. 688-67 86 90.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Durango. Durangon Fray Juan de Zumarraga kalean (Euskaltel dendaren azpian), garaje/trastero itxia salgai. 629-41 43 63.

Durango. Fray Juan de Zumarraga kalean, 8m2-ko trasteroa alokatu edo saltzen da. 629-41 94 11.

Durango. Durangon partzela bat salgai, Antso Estegiz kalean. Motorretarako eta atoietarako. 666-33 35 72.

Elorrio. Berrio-otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! 658-75 92 64.

Otxandio. Bi garaje salgai, bat itxia. 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Burdinaten garaje itxia ematen da errentan. 943 -76 06 60.

Durango. Ezkurdi inguruan kokatuta dagoen garajea errentan. Tel: 629-24 07 23.

Durango. Garaje itxia errentan Durangon, erdigunean kokatua. 629-24 07 23.

Durango. Muruetatorre auzoan garajea alokatzen dugu 60 euroan. 679-31 00 83.

Elorrio. Garajea alokatzen dugu Elorrion. Kiroldegiko lehen solairuan. 40 € hilean. 94-623 14 02.

Garajea alokagai. Durangon, Herriko gudarien kalean garajea alokatzen dugu. 40 euro hilean. 635-73 70 77.

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

ARETXABALETA
Martxan dagoen gozoki denda salgai.
Plazan, zinema parean.
620 43 85 30

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Sukaldaria, esperientziaduna, lan egiteko prest. Lorea. Deitu 677-64 84 82 / 943-53 34 24 telefono zenbakietara.

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. 699-54 17 27.

Arrasate. Eskoriatza eta Aretxabaletan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. Interesatuok deitu 600-39 47 77 telefono zenbakira.

Arrasate. Edo Bergaran. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaitzen eta garbitasun lanetan. Erreferentziaduna. 636 -47 64 92.

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. 682-31 97 37.

Arrasate. Neska gazte, euskaldun eta arduratsua haurrak zaindutzeko prest. Irakasle tituluduna eta haurrekin lan esperientziaduna. Gidatzeko baimena eta autoarekin. 617-73 87 46, 943-79 46 13.

Bergara. Ikaslea naiz eta 15:30etik aurrera umeak zainduko nituzke. 669-17 22 56.

Bergara. 19 urteko mutil euskalduna ostiral arratsalde, astebukaera eta jaiegunetan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu 627-36 83 70 telefono zenbakira.

Bergara. Bergaran pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuek deitu 19:00etatik 21:00etara. 654-05 91 77.

Bergara. Neska tituluduna gertu nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. 680-77 06 46.

Debagoiena. Neska gertu etxean laguntzeko, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan jarduteko. Dendari ere bai. 630-20 12 03.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Tituluduna. 680-77 06 46.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Garbiketan zein nagusi edo umeak zaintzen. Legezko paperak ditut. 672-96 08 22.

Debagoiena. Mutila gertu harategian lan egiteko. Baita sukaldari edo zerbitzari jardunteko ere. Nagusiak zaintzen ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647-15 18 23.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: harategi laguntzaile eta sukaldean lagundu edo garbiketak egiten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610-91 33 40.

Debagoiena. Mutila lan bila asteburuetarako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636-60 48 51.

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, garbiketa lanak, etxean bertan nagusiak zaintzen... Fatna. 638-26 98 40.

Debagoeina. Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634 -12 56 87.

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu lanerako: etxe zein lokalen garbiketa, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 633-28 81 24.

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu lanetarako: sukaldean lagundu, garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Arduratsua eta berehala hasteko moduan. 665-70 36 37.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, denetariko garbiketak egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburutan. Esperientziaduna. 626-91 49 04.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943-25 02 96, 662-58 96 11.

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. 672-70 71 25.

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943-25 02 96, 688-80 27 01

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 943-25 05 72 / 658-70 56 94.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin, plantxa zein plater eta abarrak garbitzeko. Baita atari garbiketak egiteko ere. 686 -40 42 03.

Debagoiena. Mutil euskalduna, erizaintza tekniko osagarrietako tituluduna eta esperientziaduna, etxetan nahiz baserrietan dauden nagusiak zaintzeko edo paseoan ateratzeko gertu. German. 619-08 40 08.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Orduka lan egiteko gertu eta pertsona nagusiak pasioan ateratzeko. 695-73 87 95.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut. 672-96 08 22.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke egunez zein gauez. Baita ospitaletan ere. Gainera, atari, taberna eta abarren garbitasun lanak egiteko ere gertu nago. 699-60 91 90.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, sukaldea eta garbitasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 -99 70 46.

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu, arratsaldez, gauez edo astebukaeretan. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 630-99 11 85.

Durangaldea. Emakume arduratsua lan bila. 24 orduz, egunez zein orduka aritzeko prest. Nagusiak edo umeak zaintzen edo etxeko lanetan. 631-24 26 07.

Durangaldea. Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko zein zaintzan aritzeko lan bila dabil. 24 orduz, egunez zein orduka aritzeko prest. 628-17 55 31.

Durangaldea. Sei urteko esperientziadun neska euskalduna naiz eta eskola partikularrak emateko prest nago. Hezkuntza berezian eta hizkuntza arazoetan espezialista naiz. Zure seme -alabek laguntza behar badute edo eskolako lanak egiteko norbaiten bila bazabiltza, deitu inolako konpromisoik gabe 615 -73 53 85 telefono zenbakira.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta errefentziaduna lan bila. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile lanetan aritzeko. 24 orduz, egunez edo orduka. 608-65 90 55/ 602-80 53 85.

Durangaldea. 24 orduz edo egunez, orduka zein gauez, portaleak garbitzeko lan bila. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 626-69 77 23.

Durangaldea. 24 orduz edo egunez, orduka zein gauez, portaleak garbitzeko lan bila. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-35 01 10 .

Durangaldea. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zein etxeko lanak egiteko lan prest. Lansaio osoan edo erdian, baita asteburu edo gauetan ere. 644-20 03 70.

Durangaldea. Emakume euskalduna Durangaldean eta egunean bi-hiru orduz, nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 618 -40 58 79 (Izaskun).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 24 orduz edo egunez. 631-24 26 07.

Durangaldea. Orduka zein gauez pertsona nagusiak zen umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633-93 41 06.

Durangaldea. Neska euskaldunak pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketarako eskaintzen du bere burua. Asteburuetan edo astegunetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652-72 02 29.

Durangaldea. Asteburuetan, 24 orduz edo egunez pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 690 -68 73 95.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 644-63 51 45.

Durangaldea. Durangaldean pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631-02 29 32.

Durangaldea. Durangaldean 24 orduz pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-12 22 45.

Durangaldea. Durangaldean garbiketan, umeak, nagusiak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652-13 00 41.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 631-25 09 98.

Durangaldea. 24 orduz nagusiak zaintzeko lan bila. Esperientziarekin eta papelekin. 679-53 01 60.

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzeko edota garbiketarako prest. Paperekin eta erreferentziekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620-82 85 79.

Durangaldea. Esperientziadun neska lan bila. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzen edo garbiketan. Paperekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-81 12 63.

Durangaldea. Neska zaintzan edo dendari lez lan egiteko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. 618-01 61 99.

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduko lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu 608-12 22 45 edo 632 -86 92 82 zenbakietara.

Durangaldea. Emakumea garbiketan, ume zein nagusien zaintzan lan egiteko eskaintzen da. 24 orduz edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672-92 40 83.

Durangaldea. Umeak edo edadeko pertsonak zaintzeko edo garbiketarako lan bila. 632 -55 69 95.

Durangaldea. Bolibiako neska, 24 orduz umeak edo nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko prest. Erreferentziak. 692-57 18 71.

Durangaldea. Neska arduratsua nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Tel: 682-40 57 91.

Durangaldea. Neska arduratsua, nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. 602-07 29 28.

Durangaldea. 29 urteko neska edozein lan egiteko prest. Goizeko edozein ordutatik 12:00ak arte, eta 15:30etik edozein ordura arte, gauak barne. Umeekin, ezindu psikiko eta fisikoekin, eta nagusiekin esperientzia handikoa. Kotxe propioa. 690-99 66 18.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko lan bila. 686-19 00 24.

Durangaldea. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. 24 orduz, egunez edo orduka. 632-05 16 65.

Durangaldea. Esperientziadun emakumea asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketan. Erreferentziaduna. 666-75 21 47.

Durangaldea. Emakume arduratsua arratsaldetan zein gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-75 35 30.

Durangaldea. 24 orduz pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602-12 22 45.

Durangaldea. Durangaldean pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz. 603-43 63 23.

Durangaldea. Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko lan bila, 24 orduz, egunez edo orduka aritzeko prest. 631-13 22 91.

Durango. Emakume euskalduna eta esperientziaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. 699-74 57 23.

Durango. Garbiketan, ume zein pertsona nagusien zaintzan edo ostalaritzan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Egunez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600-05 51 17.

Durango. Durangon, nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Gauez zein egunez aritzeko prest. 678 -23 02 66.

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Google SketchUp -eko hastapen mailako eskola partikularrak jaso nahi nituzke. Interesatuok deitu telefono honetara: 652 55 88 31

502. EMAN

Biolina. jotzen ikasi nahi duzula? Metodo erraz eta dibertigarria. Asteburuetan. Merke. Interesatuok deitu telefono honetara: 679 74 00 61

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675-00 79 19 edo idatzi: egorrono@gmail.com

Durango. Irakasle euskalduna, Magisteritzan diplomatua, klase partikularrak emateko prest Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Edozein galdera egiteko, deitu: 618-06 87 49.

Durango. Ingeleseko eskola partikularrak emateko prest Durangon. Hizkuntza Eskolako tituludun irakaslea. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637-29 24 65.

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. Telefonoa: 675-00 79 19 emaila: egorrono@gmail.com

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsaldez haurrak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04. 5. Irakaskuntza

Durangaldea. Erizaintzako ikasle egaduna LH eta DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest. Ingeleseko titulua ateratzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 -75 86 48.

Durangaldea. Magisteritza ikasketak bukatuta dituen neska euskaldun baten bila, DBH-ko klaseak emateko. Arratsaldez. 678-29 11 67.

Durangaldea. Gazte euskalduna Durangaldean eskola partikularrak emoteko prest. Lehen Hezkuntza, DBH zein batxilergoko ikasgaiak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-90 06 53 (Jon).

Durangaldea. Haur eta Lehen Hezkuntzako magisteritzan diplomatua eskola partikularrak emateko prest. Durangaldean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679-73 97 85.

6. MOTORRA

601. SALDU

Rover 45 comfort 1.4 gasolina. Rover 45 comfort 1.4 gasolina. 4 ate. Alarma, abs, airbag, pioneer 4x40w irrati -cda, lapurreten kontrako inmobilizadorea. Tomtom one bat opari. Probatu ezazu konpromezurik gabe. Transferentzia nire kontura. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607 -15 24 03.

Furgoneta vw multivan t4 tdi 2.5. Furgoneta vw multivan t4 tdi 2.5 salgai daukat. Kanbio automatikoa. 102 zaldi dauzka kondizio honean dago. Kanpinarako prestatuta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609-48 11 24.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Armotxenako Dobermannak. Ar bi beltzak eta bat marroia, azkenak dira. Aita eslobeniar txapelduna, eta ama hd-a, ipo ii. Biak erakusketetako lehen postuetan eta "rci" lanetan. Kirolarientzako edo zeozer egin nahi dutenentzako baldintza bereziak. 2012-10-15 jaiotakoak. 656-79 10 27.

Katu pertsak. Hiru hilabetekoak. Katu pertsak. Hiru hilabetekoak. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. 620-60 73 40.

703. EMAN

Artzai txakurrak. Artzai arrazako txakurkumeak ematen ditut opari. Interesatuok deitu telefono honetara: 685 75 86 49

Artzai txakurrak. Artzai txakurkumeak eskaintzen dira. 616-93 63 51.

Katuak opari. Katuak oparitzen ditugu. 606-70 91 18.

8. DENETARIK

801. SALDU

1.280m karratuko lursaila salgai . Puttobioki kalean, Etxarri Aranatzen. Prezioa 72.000 euro. Hots egin 618-50 89 48 telefonora.

Acer Aspire One eramangarria. Acer Aspire One d250 -Odqk ordeangailu eramangarria saltzen dut. Egoera oso onean dago, oso gutxi erabilia. Aukera bikaina. Zorroa opari. Prezioa: 160 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 -52 58 74.

Aretxabaleta. Gellaon lursaila salgai. Fruta arbolak, tantaka bidezko ureztatze sistemarekin. Txabolatxoa. Ur manantiala. Aretxabaletatik 5 minutura eta eskoriatzatik 10era. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605-77 27 69.

Akaroen aurkako xurgagailua salgai. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 -62 02 49.

Altzariak salgai. Ohea eta mahaitxo bi, diseinu modernoa eta berria, 360 euroan. Koltxoi berria 1,50x1,90cm; 60 euroan. Idazmahaia kaxoi zuriekin, 55 euroan. Sinfonierra kaxoiekin, 65 euroan. Mahai bat, 60 euroan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610-41 55 11.

Autorako umeen aulkia salgai. Autorako umeen aulkia salgai. 0 urtetik 10 urtera. BMW marka, Ixofix sistemarekin. Egoera onean: ondo zainduta eta gutxi erabilita. Merkea. Jabi. 679-17 43 67.

Bernedo. Lursail eraikigarria urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

Bikiendako ume-karroa . Matrix etxekoa; mclaren etxeko bikiendako aulki grisa; sehaska txiki bat izara eta guzti; bidaiarako bi sehaska. 600 euro. Bergara. Txari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605-77 49 97.

Bizikleta salgai. Bizikleta estatikoa salgai. Prezioa 65 €. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610-41 55 11.

Concord neo trio. Condord neo 2009 aulkia, kapazoa eta maxicosia salgai. Oso gutxi erabilia. Berria bezala. Poltsa, euritarako plastikoa, eguzkitakoa eta aterki euskarria opari. 250 euro. 610-99 26 40.

Durango. Partzela bat saltzen da etxea egiteko Durangoko zentroan urbanizazio berri batean, Ezkurdiko plazatik 200 metrora. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 -75 54 46.

Ebook. Ebook archos 70 ereader saltzen dut. Egoera oso onean dago, berri-berria eta oso gutxi erabilia. Aukera ezin hobea da. Prezioa: 49 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670-52 58 74.

Egurrezko mahaia eta sei aulki. Mahaiaren neurriak: itxita 1,50m eta zabalik 2,20m. Egoera oso onean. Aulkiaren jarlekuak urdinak dira. Dena 250 euro. Interesatuok deitu telefono honetara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 -72 08 01.

Etxetresnak. Ontzi- garbigailua, arropa- garbigailua, hozkailua, labea eta bitrozeramikazko plaka salgai. 800 euro. Mahaiak eta aulkiak oparitzen dira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697-90 52 47.

Furgonetarako altzariak salgai. Furgonetarako altzariak salgai, Opel Vivaro, Renault Traffic edo Nissan Primastarretarako. Altzaria eta koltxonetak ere barne. Bi bider ibilita bakarrik. Aukera paregabea! 659-42 58 90/ 699-09 75 36 aotxotorena@yahoo.es.

Maxi cosiaren zaku saltzen da. Maxi cosiaren zaku saltzen da. Zaku erabili gabe dago. Marca: kid zone, urdin iluna da. Posta: yolandahospitala@gmail.com.

Mendirako GPSa. GPSa, Garmin Oregon 550t , kamaraz guztiz, oso gutxitan erabilia, dendetan 350 euro. Iñigo. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629-81 88 14.

Mini kuma. Umeendako mini kuma eta izarek salgai debagoienean. 606-19 89 56.

Mutsy urban rider karroa. Mutsy urban rider karroa. Traveller aulki eta osagai guztiekin. Prezio oso onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656-74 94 40.

Musika ekipoa salgai. Eclerc mac 90 nahasketa mahaia salgai, prezioa 150 euro. Yamaha cdx 397 cd irakugailua salgai, prezioa 50 euro. Technics ekualizagailua 50 euro-an salgai. Dena egoera onean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-26 62 44.

Orbea orca gold 2012 bizikleta. 55 neurriko koadroa, estreinatzeke. Shimano ultegra errobera berriak, karbonozkoak, vh-rs 80 erreferetnziakoak. Fsa k-force eskulekua, karbonozkoa. Shimano dura-ace taldekoa. Jokin. 629-37 37 12.

Sofa ohe futoia. Haiku Futon etxekoa. Material oso onekoa koltxoi zein somierrean. 140x190 neurriko ohea. Zuria eta beltza, estanpatua. 250 euro. 617 89 41 03,

Telebista. Samsung etxekoa, 42 hazbetekoa. 200 euro. 617 89 41 03

Ume bizikleta salgai. Umeentzako bizikleta salgai. Sei urtera arte. Merkea. 679-17 43 67.

Umeak mendira eroateko motxila. "Red castle sport" umeak mendira eramateko motxila, ia erabili gabe. Boltsa handia eta poltsikoak barne, pisu ezberdineko umeak lotzeko egokia, hainbat gorpuzkerarako loturak eroalearentzat, eguzkitako kengarria eguzki edo eurirako. 90 euro. 653-71 24 70.

Umeendako karroa. Mutsy 4 rider modeloa. Beltza. Euritarako plastikoarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-52 56 27.

Umeendako karroa. Bugaboo etxeko karroa salgai debagoienean. Beltza. Deitu zenbaki honetara: 606-19 89 56.

Umeentzako 4 gurpilun aulkitxoa salgai. Salgai umeentzako Quinny Buzz 4 gurpildun aulkitxoa. Kolore gris eta beltza. Aulkitxoarekin batera, kapazoa (beltza), silla (udarako eta neguko fundarekin, grisa), bandeja eta bere zorrotxoa doaz. Egoera onean daude. 659-42 58 90 aotxotorena@yahoo.es.

Umeentzako hamaka saltzen da. Umeentzako hamaka saltzen da, ia erabili gabe dago. Marca: chico sdraietta. Posta: yolandahospitala@ gmail.com.

Umeentzako osagarriak salgai. Quinny markako hiru erruberadun ume kapota eta silla, 195 euroan. Barbie markako bizikleta larrosa, 50 euroan. Umeentzako koloretako mahai biribila eta aulkia, 53 euroan. Taka-taka musikagaz, 30 euroan. 610-41 55 11.

Umeentzeko buzo bat saltzen da. Negukoa da. Kolorea urdin argia da. Erabili gabe dago. Marka: mayoral new born, 3m, 62 cm yolandahospitala@ gmail.com.

Vaporeto unitekno c101 saltzen da. Vaporeto unitekno c101 saltzen da, estreinatzeko dago. Opari bat izan zen, ez dut inoiz erabili. yolandahospitala@ gmail.com

Zaldibar. Zaldibarren 13.500m2-ko lur saila salgai. Argia eta ura partzelan bertan. Oso eguzkitsua eta bista ederrekin. 629-41 43 63.

802. EROSI

Antzinako gauzak jaso edo erosi. Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina... Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailez edo watsapp bidez argazkia bidali edo deitu 678-47 43 54.

Klarinetea erosi nahiko nuke. Klarinetea erosi nahiko nuke. 626-43 25 03.

Trikitixa erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 70 87 73

Trikitixa. Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke, Deitu zenbaki honetara: 606 66 18 69

Zilarrezko gauzak. Zilarrezko edozer gauza erosten dut, kuberteriak, jarroiak, bandejak, txanponak eta abar. Deitu 657-70 43 16 edo bidali mezua e-postaz numipega@gmail.com helbidera eta harremanetan jarriko gara.

806. GALDU

Eskularruak galdu Aretxabaletan. Balio sentimental handiko larruzko eskularru beltzak galdu nituen aurreko ostiralean Aretxabaletan. Aurkitu badituzu deitu mesedez telefono honetara. Saria eskainiko dizut. 672 76 89 09 edo 943 79 10 07

808. BESTELAKOAK

Bergaratik Donostiara. Donostiako Arantzazuko Amaren erresidentziara lanera joateko kotxea partekatu nahiko nuke. Miren. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 46 34 93

Eskoriatzatik Durangora. Egunero, Durangora joan beharra daukat 8:15etarako. Norbait ordu horretarako baldin badoa, gustora partekatuko nituzke kotxeko gastuak. Izan daiteke, Eskoriatzatik, Aretxabaletatik edo Arrasatetik. Interesatuok deitu 656 73 80 92 telefono zenbakira.

Durangoko Salabarriren parte izateko bazkide bila. Bazkide berrien bila gabiltza Txoko Salabarriren parte izateko (Mendizabal auzunean). Interesatuek deitu 650-49 90 74 telefonora. Kopuru mugatua!!!

Etxebila higierinak
943-44 61 66
ALOKAIRUAN
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Parking pribatua. 690€
AMARA: 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. Oso ederra. 780€
AMARA: Azkena. Terraza ederra. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 700€
ERRENTERIA: Estudio polita. Logela-sukaldea-egongela, bainugela. 450€
EGIA: Loft polita, kalera. Logela-sukaldea-egongela, bainugela. 450€
BIDEBIETA LA PAZ: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 640€
BIDEBIETA LA PAZ: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 550€
ZENTROA: Artzain Onean. 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. 850€
ZENTROA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 700€
TRINTXERPE: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Hutsa. 600€
SALGAI
AMARA ZAHARRA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 170.000€
AMARA: Madrid hiribidea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 217.000€
AMARA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Hegoa. 198.000€
AMARA: Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Sartzeko. 160.000€
AMARA: Guztiz kanpora. 3 logela, sukaldea, egongela iskinan, 2 bainugela. Sartzeko: 279.000€
AMARA: 85m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Garajea. Hegoa. 260.000€
MARTUTENE: Dena kanpora. 65m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua. Eguzkitsua. 126.000€
ALDE ZAHARRA: Igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 270.000€
GROS: 80m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Igogailua. 330.000€
EGIA: Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. 217.000€
EGIA: Mandasko dukea. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 237.400€
ASTIGARRAGA: Kale Nagusia. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 119.000€
PASAI ANTXO: Zumardian. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena berria. 187.000€
www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com
Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak
Aia. Baserria berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000 m2. 50.000.000 pezeta.
Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 28.500.000 pezeta.
Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldea, berokuntza sistema gasarekin. **150.000 euro!.**
Bergara. San Lorentzo auzoan. Duplex bat, estreinatzeko, garaje plaza eta guzti. 45.000.000 pezeta.
Prezio Berria!!
Donostia. Amara-Amezketa kalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.
Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua.
Prezio berria: 35.000.000 pezeta.
Getaria. Herrerieta kalean. 3 logela eta 2 bainugelako etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onean.
Oso prezio onean. 39.000.000 pezeta.
Zarautz. Itxasmendi. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta terraza. Argitsua. Prezio berria:
46.000.000 pezeta.
Zarautz. Azken Portu. 92 m2 ditu. 4 logela, Terraza, Trastelekua eta Igogailua. Erreforma behar du. Prezio Berria.
54.000.000 Ptas.
Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, Terraza, Trastelekua eta Garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.
Bizkaia kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef.: 943-01 07 00 • Mug.: 665- 71 85 96

Google Now asistentearekin asmatu egin dute oraingoan

Siri-ren konpetentziak oso harrera ona izan du Google bilatzailea guztiz integratzen duelako

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Laguntzaile pertsonalaren lanak betetzen dituen aplikazioa da Google Now eta ematen duenez asmatu egin dute oraingoan, oihartzunarengatik eta jasotzen dabiltzan kritika onengatik, batez ere. Apple-en Siri aplikazioaren konpetentzia da baina ezaugarri gehiago ere baditu Google-en proposamenak, eta askoz ere zarata gutxiago aterata, sekulako harrera ona izan du Android-en erabiltzaileen artean.

Bilaketak, barruan

Sistemarekin integrazio erabatekoa dakar Now-ek Google bilaketa motorearen abantaila guztiez baliatuta. Erabiltzailearen jarduera ohikoenak erregistratu eta automatizatu egiten ditu aplikazioak eta bilatzailetik atera dezakeen informazioa gehitu, adibidez, autobus ordutegiak eta agenda integratuta. Agenda bera eta GMail koordinatzen ditu eta idazkaritza lanak egin, esate baterako.



Aplikazioaren irudi bat. ENGADGET

SMS-engatik, isun historikoa Espainiako operadoreei

Telefonica, Vodafone eta Orange konpainiak 120 milioi euroko isuna ordaindu beharko dute

J.B. | ARRASATE

120 milioi euroko isuna ordaindu beharko dute Telefonica, Vodafone eta Orange operadoreek SMSen tarifa garestiei eusteagatik. Espainian alor honetan inoiz ezarritako bigarren zigor ekonomikorik altuena izan da. Hiru operadore horiek daukate, gainera, merkatuaren kontrol ia osoa Espainian.

Komunikazioen Batzorde Nazionalaren (CNC) arabera, hiru operadoreek monopolio egoera bati eusten diote eta, deien prezioek azken urteetan oso modu nabarian behera egin duten moduan, SMSen kasuan lehengo tarifekin jarraitu da azaldutako egoera hori medio. 2000 eta 2009 urteen arteko epea aztertu du Batzordeak eta ondorioztatu SMSen prezioa modu librean zehaztu dutela konpainia horiek eta "prezio oso altuei" beren beregi eutsi dietela. Horrekin batera, prezio altuei eutsita operadore mugikor birtualei merkatuan sartzea zaildu dietela ere azaltzen da Batzordeak zabaldutako zigor txostenean.

Operadoreak ez daude ados

Isuna jakinarazi eta berehala errekurritu dute erabakia operadoreek. Telefonicak "erabat bidegabekoa" dela dio eta analisi partziala egin duela, SMS -ena negozio independentea izango balitz bezala. Argumentu moduan erabili dute eurena ez dela monopolio jarrera izan, inondik inora, bestela ez delako ulertzen Yoigo bezalako operadore birtualek izandako hazkunderako garapena.

Momentuz ez Europar Batzordetik eta ezta ere Telekomunikazioen Merkatu Batzordetik ez dute ezer esan eta organo horietatik erregulatzen da, hain zuzen ere, merkatu horren lehia. Konpainiek eskatu dute teknologia horrek duen kostua ere aintzat hartzeko.

Argazkirik ez dutela salduko argitu dute Instagram-ekoek

Erabilera arauak eta pribatutasun politika, hala ere, aldatu egingo dituzte urtarrilaren 16an

J.B. | ARRASATE

Erabilera arauak eta pribatutasun politika berrikusiko zituztela iragarri bezain laster harrotu ziren hautsak eta milaka erabiltzaile berehala asaldatu ziren. Azkenean, Instagrametik bertatik azaldu dutenez, eurek emandako azalpenen ulermen okerrak eta erabilitako hizkuntza nahaskorrak ez ziren gauzak ulertzera eraman ei ditu erabiltzaileak eta argitu dute argazkiak saltzeko asmorik ez daukatela. Izan ere, pribatutasun politikaren aldaketan ulertzera ematen zen erabiltzaileari lehenago jakinarazi barik argazkiak saldu ala publizitaterako erabiltzeko eskubidea izango zutela aurrerantzean Instagramekoek, soilik zerbitzua erabiltzeagatik. Orain gezurtatu egin dute hori esanez hizkuntza juridikoa zaila dela ulertzen eta hortik zetozela gaizki ulertuak. Emandako esplikazioekin baina, asko ez dira gustura geratu.

Publizitatean gakoa

Gutxiagorako ere ez da, hala ere, Facebook baita orain Instagramen jabea eta sare sozial erraldoiaren jabetzaren pean daude 5.000 milioi argazki baino gehiago. Erabiltzaileak ere milioika dira mundu guztian zehar.

Aldaketak egon badaude, baina, nahiz eta argazkiak salduko dituztela gezurtatu. Publizitatea sartuko dute aurrerantzean Instagrameko orrietan, Facebookeko destakatuen modura eta edukietan ere aldaketak egongo dira. Hala produktu ala marka baten jarraitzaile egitean erabiltzaile horren izena markaren jarraitzaile moduan agertuko da, adibidez, Facebooken gertatzen den moduan. Urtarrilaren 16an sartuko da indarrean politika berria eta adi irakurtzea komeni da pribatutasuna zaintzeko. Urtarrilaren 16a baino lehen baja emanez gero, neurri berriek ez lukete eraginik izango.

Mugikorretan Microsoften oldarraldiaren urtea izango ei da datorrena, adituek esaten dutenez

J.B. | ARRASATE

Mugikorren alorra aztertu du Juniper Research enpresak eta aurreikuspen oso baikorrak atera dituzte emaitza moduan Microsoftentzat. Gates-en teknologiaren zabalkunde eta sozializazioak Microsoft-en ekosistemaren loratzea ekarriko duela iragarri dute, orain arte lortu ez eta borrokan ibili dira, hain zuen, Microsoftekoak urte askoan. Windows Phone sistemaren zabalkunde handia espero da 2013an.

Zeresana emango duten beste gailuak betaurreko inteligenteak dira eta horiekin batera pantaila bat baino gehiago erabiltzea ahalbidetzen duten sistemak, baita, gailu mota ezberdinen artean ere.

Social gaming

Joeren artean 2013 urtea mugikorraren zentraltasunaren urtea izango da eta mahaigaineko ordenagailua barik, telefono mugikorra izango da ekosistema pertsonalaren zutabe nagusia. Sare sozialei dagokienez, social gaming ala jokoetara bideratutako sareak izango ei dira joera nagusia.

Windows Phone sistemaren pantaila irudi bat. | GLOBAL2NET

Txioak deskargatzeko aukera ipini du Twitter-ek

Urtea amaitu baino lehen egingo zutela eta hala izan da, Twitter-eko mezuak deskargatu ahal izango dira aurrerantzean. Ezarpenen barruan aurki daiteke aukera berria baina soilik webguneko bertsioan. Momentuz bakarrik erabiltzaile jakin batzuei emango zaie aukera baina zabaltzen joango da. E-postan HTML fitxategi konprimitu bat jasoko dute hala nahi dutenez. Azken 3.500 txioak soilik berreskuratu ahalko dira, hala ere.

Arrakasta betea Google Maps-ek iOSerako bertsio berrian

iOS sistemara itzule ezin arrakastatsuagoa egin du Google -en Maps aplikazioak eta iPhone eta iPadeko erabiltzaileek garbi utzi dute nahiago dutela eta interesgarriagoa zaiela kasu honetan Google Apple baino. Bi egunetan hamar milioi deskargatik gora izan zituen aplikazioak eta Google-etik ez dute itxaroan euren poztasuna agertzeko. Gaur egun Google Maps da Apple-en dendako aplikazio jaitsienen zerrendan lehen postua betetzen duena.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO

Beti berdin!

Gobernuak joan gobernuak etorri eta batzuek ez dute aldaketarik igartzen. Gabon gaua da gaur eta TVEk 50 urteak atzean utzi dituen arren betiko formularekin jarraituko du.

Ederto (kasu batzuetan gehiegi) jan ostean batzuk kalera irtengo dira eta besteek telebista piztuko dute. Bigarren multzo honetako askok ez dute sorpresa handirik aurkituko izan ere PSOEk zein PPk klasiko bera erabiltzen dute, Raphael!!!

Berak *Yo soy aquel* kantatzen duen bitartean, beste batzuk "Bada aldatzeko garaia", baina berak betiko keinuekin jarraituko du bere artista koadrilarekin gabon gaua alaitzen... Ez dakit inoiz lortu duen. Klasikoekin jarraituz, *El club de la comendia*-n lan egin dezakeen JuanCar dago, honek urtero bere monologoan milaka gomendio ematen dizkigu eta gero berak kontrakoa egiten du, hori bai komediante ona!!!

Amaitzeko, eta itxuraz, edo oraingoz, mundua ez denez pikutara joango, telebista alde batera utzi eta familiaz gozatu!!! Kasu askotan, ziur baz-karietan ikuskizun ederrak edukiko dituzuela. Hurrengo urtera arte.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 24

Olentzero & Co.

Bergarak Olentzerori egindako omenaldia da Olentzero & Co musikala, euskaraz egin den lehena. | **21:43**

12:00 Jaiak: Santamasak
12:45 28.Klip
13:13 Onein
13:51 Gipuzkoa kultura
14:21 Ekogune
14:52 Zorion Agurrak
14:57 Magazinea
15:57 Zorion Agurrak
16:02 AsteON
16:42 Hitzaldia
17:48 Zorion Agurrak
17:53 Beranduegi.tv
18:13 Onein
18:43 Magazinea
19:43 Beranduegi.tv
20:03 Ekogune
20:30 Goierri Creation Center
21:01 Jokoz Mintzo
21:43 Olentzero & Co. musikala
23:23 Leteaz kantuberbetan
00:33 AsteON

MARTITZENA 25

Tobera

Bergarak Arrasateko herria auzitara eraman zuen Debagoieneko Toberaren aurreneko edizioan. | **21:25**

10:00 Olentzero & Co. musikala
11:00 Zorion Agurrak
12:00 Jaiak: Santamasak
12:45 Ekogune
13:18 Zorion Agurrak
13:23 AsteON
13:53 Onein
14:31 Ikusmira
14:55 Olentzero & Co. musikala
16:35 Esatea libre
17:50 Lekeitioko zine eta bideo bilera
18:50 Gipuzkoa kultura
19:15 Leteaz kantuberbetan
20:25 Gipuzkoa kultura
20:55 Ekogune
21:25 Tobera herri-antzerkia
23:05 Lekeitioko zine eta bideo bilera
00:05 Beranduegi.tv
00:25 Goierri Creation Center

ASTEAZKENA 26

Bertso saioa

Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Igor Elortza eta Amaia Agirre bertsolarien saioa emango dugu. | **19:45**

12:00 Jaiak: Santamasak
12:45 Lekeitioko zine eta bideo bilera
13:45 Jokoz Mintzo
14:27 Beranduegi.tv
14:47 Berriak
15:02 Eguraldia
15:05 Hamaika.bit
15:38 Onein
16:01 Ikusmira
16:34 Berriak
16:49 Eguraldia
16:51 Goierri Creation Center
17:22 Zorion Agurrak
17:25 Bertso saioa
19:25 Zorion Agurrak
19:27 Berriak
19:42 Eguraldia
19:45 Jaiak: Santamasak
20:30 Bertso saioa
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:45 Eguraldia
22:50 Hitzaldia
23:50 Gipuzkoa kultura
00:20 Berriak
00:25 Eguraldia

EGUENA 27

Kantuberbetan

Jon Sarasuak Xabier Lete omentzeko 'Leteaz Kantuberbetan' izeneko saioa ikusgai. | **19:52**

12:00 Bertso saioa
13:30 Hamaika.bit
14:05 Onein
14:28 Beranduegi.tv
14:48 Berriak
15:03 Eguraldia
15:06 Hamaika.bit
15:39 AsteON
16:19 Txuleta festa
16:45 Zorion Agurrak
16:50 Berriak
17:05 Eguraldia
17:08 Txuleta festa
17:34 Hamaika.bit
18:07 Hitzaldia
19:30 Zorion Agurrak
19:35 Berriak
19:50 Eguraldia
19:52 Leteaz kantuberbetan
21:32 Berriak
21:47 Eguraldia
21:50 Bertso saioa
23:20 Berbetan
23:53 Berriak
00:08 Eguraldia

EGUBAKOITZA 28

Beranduegi.tv

Gaurkotasuneko gaiak era ironiko eta umoretsuan ematen dituen albistegia da Beranduegi.tv. | **21:21**

12:00 Berbetan
12:33 Txuleta festa
12:59 Zorion Agurrak
13:04 Ikusmira
13:37 Onein
14:07 Ur eta lur
14:47 Berriak
15:02 Eguraldia
15:05 Ikusmira
15:29 Jokoz Mintzo
16:11 Ekogune
16:41 Beranduegi.tv
17:01 Zorion Agurrak
17:05 Berriak
17:20 Eguraldia
17:23 Bertso saioa
18:53 Txuleta festa
19:19 Beranduegi.tv
19:43 Zorion Agurrak
19:47 Berriak
20:02 Eguraldia
20:05 Jaiak: Santamasak
20:50 Goierri Creation Center
21:21 Beranduegi.tv
21:39 Berriak
21:54 Eguraldia
21:57 Lekeitioko zine eta bideo bilera
22:57 Hitzaldia
00:22 Berriak
00:37 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Datorren urtean itzuliko gara antenara zuzeneko saioekin

Zapatuko Santamas eguneko emanaldiarekin, Arrasate Irratiko *Igo Autobusera!* saioak garajeko ateak itxi ditu datorren urtera arte. Gabonak amaitu ondoren bueltan itzuliko gara FMko 107.7an, berritasunez beteriko zuzeneko irratsaioekin. Bitartean, gozatu egun berezi hauek.

24 orduz musika izango da entzungai Arrasate Irratian

Abenduaren 23tik urtarrilaren 7a arte, *Igo Autobusera* eta *Asteko Gainbegiratua* saioek atsedenaldia izango dute. Hori bai, FMko 107.7an 24 orduz atzoko eta gaurko Euskal Herriko musikarik onena entzuteko aukera izango da, eta 2013an gure programazioan berritasunak izango ditugu.

Oporretatik bueltan diskoak zozketatuko ditugu Arrasate Irratian

Urtarrilaren 7tik aurrera, Igo Autobusera saioa berriz ere uhinetara itzuliko da eta, astero, ikuskizunetarako sarrerak, musika diskoak eta beste hainbat gauza zozketatzen jarraituko dugu. Urtarrilaren 7tik 11rako astean, Kooltur Ostegunak ekimenerako sarrerak eta Los Cretinos-en disko berria zozketatuko ditugu.

TELE-ALBISTEAK

Santamas bertso jaialdia, Tobera eta Peter Pan Gabonetako telebista programazioan

Debagoienean egongo diren hiru ikuskizun emitituko ditugu Goiena telebistan

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Goiena telebistak Gabonetan emisio berezia izango du: abenduaren 26an, 27an eta 28an eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an albistegia eskainiko dizuegu eta, baita ere, Santamasetako bertso jaialdia, Debagoieneko Tobera eta Peter Pan musikala.

Santamaserako bertso jaialdia. | GOIENA

Santamasetako bertso jaialdia

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Amaia Agirre arituko dira AEDk antolatutako Santamaseko bertso jaialdian. Bertso saio hori abenduaren 26an, eguaztena, arratsaldeko 20:30ean ikusteko aukera izango duzue.

Oñatin hilaren 28an egingo den Tobera, berriz, urtarrilaren 3an, eguena, arratsaldeko 20:30ean emitituko dugu.

Peter Pan musikala

Abenduaren 29an eta 30ean Bergarako musika eskolak antolatuta, Peter Pan musikalaren hiru emanaldi eskainiko dituzte Bergarako pilotalekuan eta urtarrilaren 5ean, 20:10ean, Goiena telebistan ikusgai izango da.

'Goiena.net' atarian Gabonei eskainitako atal berezia izango dugu

Gabonetako hitzorduak eta hauekin lotutako berriak, gaurtik urtarrilaren 7ra bitartean

A.M./G.A. | ARRASATE

Gabonetako egunetan izango diren hitzorduen berri izateko, leku ezin aproposagoa izango da *Goiena.net* ataria. Gabonak deituriko atalean, egitarau osoa jaso dugu, egunez egun: kirol hitzorduak, ume eta gaztetxoei zuzendutakoak, musika kontzertuak, antzerki emanaldiak... guzti-guztiak aurkituko dituzu bertan. Eta ez hori, bakarrik: "Urte berri on!" modu berezi batean nola esan jakin nahi izanez gero, edo sormena garatzen duten jostailuen berri izan, urtean zehar kanpoan bizi eta Gabonetarako etxera itzultzen direnen istorioak ezagutu nahiz menurako ideiak hartu nahi izanez gero, *goiena.net*-en duzue horretarako aukera.

Goienaren ataria. | GOIENA

'Goiena.net' 24 orduetan

Bertan aurkituko duzue Debagoieneko egunerokoa eta gurean gertatzen denaren berri, eguneko 24 orduetan; eta hitzordu bereziei arreta berezia eskainiko diegu.

ZORION AGURRAK

ARETXABALETA
Leire Oraá Zubizarreta
Urtarrilaren 3an, 2 urte. Zorionak, Leire! Muxu asko etxeko eta familia guztiaren partetik. Oso ondo pasatu eguna.

BERGARA
Paule Sanchez Eguren
Urtarrilaren 1ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Aurten mahatsak jan eta gero zure lehen urtebetetzea ospatuko dugu. Zorionak familia eta lagunen partetik. Muxu bat Juneren partetik ere.

BERGARA
Henar Lopez
Abenduaren 31n, 3 urte. Zorionak! Muxu handi-handi bat Ainara eta Julenen partetik.

BERGARA
Marisa Escobar
Abenduaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama! Egun politxa pasatzia espero dou! Pasteltxo batzuk ordainduko ditxuzu, ezta? Muxu asko. Etxekuak, Uxue eta bereziki Kenar.

OÑATI
Nagore Iñurritegi
Abenduaren 30ean, 15 urte. Nagore! Gure Madrileko printzeza. Ondo-ondo pasatu urtebetetzea. Zorionak etxeko guztien partetik.



OÑATI
Aratz Etxeberria Benito
Abenduaren 30ean, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako lagun eta familixako danon partetik! Ondo-ondo pasatu eguna! Patxo handi-handi bat!

BERGARA
Julen Lazkano
Abenduaren 29an, 4 urte. Zorionak! Muxu handi-handi bat danon partetik.

BERGARA
Unax Murgizu Rodriguez
Abenduaren 29an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta jaso besarkada eta muxu handi bat etxekoen eta, bereziki, Iraia eta Hodeiren partetik.

ARRASATE
Alvaro Rodriguez Cuenca
Abenduaren 29an, 28 urte. Zorionak, *Maki*! Zure lagunen partetik, kriston pertsona zarelako! Juerga ahaztezin batekin ospatukou!

ARRASATE
Ane Regodesebes Mendiaratz
Abenduaren 28an, 11 urte. Zorionak, poxpolina! Ondo hasi zenbaki barrixakin eta ondo ospatu. Patxo pila etxekoen partetik.

BERGARA
Elene Larrañaga Agirre
Abenduaren 28an, 6 urte. Zorionak, Elene! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo potolo bat Igor, aitatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
Beñat Osoro Agirre
Abenduaren 28an, urtebete. Zorionak, pitxin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Etxeko danen partetik patxo handi bat, bereziki Ibaik.



OÑATI
Eneko Aranburu Onaindia
Abenduaren 27an, 7 urte. Zorionak, *guapo*, eta ondo-ondo pasatu eguna. Muxu handi-handi bat danon partetik.



ESKORIATZA
Izaro Markaide
Abenduaren 26an, 9 urte. Zorionak, *piji*. Ondo pasatu eguna eta muxutxu bat familixaren partetik.



BERGARA
Ekhi Ormaetxea cid
Abenduaren 26an, 3 urte. Zorionak, Ekhi! Ondo pasatu zure egunian, Leire, Oier, Ane eta Aratzen partetik.

ARETXABALETA
Nerea Gastañaga
Abenduaren 28an, 18 urte. Zorionak eta urte askotarako, Nerea! Oso ondo pasatu zure egunean eta laztan bat.

ARRASATE
Lur Lamadrid Garcia
Abenduaren 24an, 6 urte. Zorinak, polita! Aita, ama eta Suaren partetik, ondo pasatu zure egunean.

BERGARA
Aner Arriola Gallastegi
Abenduaren 23an, 7 urte. Zorionak, Aner, etxekuen partetik. Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat, bereziki Julenek! Txapeldun!

ARRASATE
Ametz Zulueta Algorta
Abenduaren 22an, 4 urte. Santamas egunean urtebetetzea. Geure Anbotoko sorginari, moso handi bat eta zorionak!



ARETXABALETA
Arkaitz Ibabe Sillero
Abenduaren 21ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasa ezazu Andorran, eta elur pixka bat utzi besteei ere, eh! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

OÑATI
Xabier Abaunz
Abenduaren 2e1an, 10 urte. Egun zoragarria pasatu eta disfrutatu! Familia guztiaren partetik, muxu handi bat, Xabier!

ARETXABALETA
Mikel Gonzalez
Abenduaren 21ean, 12 urte. Hamabi urte betezen dituzu eta handitzen hasi zara. Zorionez ospatzea garrantzitsuena da. Muxu asko.



BERGARA
Igor Albeniz Arana
Abenduaren 20an, 9 urte. Zorionak, Igor! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik.

ARRASATE
Mirari Altuna Altuna
Abenduaren 20an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat zure aitapuntakoaren partetik.

OÑATI
Joselu Biain Agirre
Abenduaren 20an, 13 urte. Zorionak, Josulo. Ondo pasatu eta asko disfrutatu. Zure lagunak! Mikel eta Jazon!

OÑATI
Ane Maiztegi
Zorionak, Ane! Abenduaren 20an 8 urte beteko dittuzu! Ondo pasatu eguna eta muxu bat zure familixa danaren partetik. Ondo ibili guapa!

DEBAGOIENA
Leire Rajado eta Irati Aranguren
Antzuolako Iratik eta Bergarako Leirek abenduaren 19an betetzen dituzte urteak. Bi lehengusinek egun berean betetzen dituzte urteak, 9 urteko aldearekin. Zorionak biei, familia guztiaren partetik.

ARRASATE
Naroa eta Markel Urrutia Zubia
Zorionak, bikote! Naroak abenduaren 18an, 5 urte eta Markelek abenduaren 27an, 2 urte. Oso-oso ondo ospatu zuen urtebetetze egunak. Joango gare txokolatia txurruekin jatera. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

ARETXABALETA
Eider Zuazubizkar Rico
Abenduaren 18an. Zorionak, Eider! 4 urte jada! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu asko zure familixa danaren partetik! Guapaaaa!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Goreti Barandiaran Urdiziain

Leintz Gatzaga. Abenduaren 19a. Gurasoak: Jon eta Sonia. Argazkian, Goreti amarekin.

Gari Azpiazu Botello

Oñati. 2,990 kilo. Abenduaren 14a. Gurasoak: Maialen eta Josu. Argazkian, Gari gurasoekin.

Laia Mugarza Askondo

Elorrio. 3,960 kilo. Abenduaren 15a. Gurasoak: Itsaso eta Ibai. Argazkian, Laia jaioberria sehaskan.

Mikel Tena Coma

Antzuola. 3,860 kilo. Abenduaren 16a. Gurasoak: Laura eta Serafin. Argazkian, Mikel jaioberria sehaskan.

Enara Santamaria Lopez

Aretxabaleta. 4,860 kilo. Abenduaren 17a. Gurasoak: Itziar eta Rufino. Argazkian, Enara jaioberria sehaskan.

Jon Arabiourrutia Nogales

Arrasate. 4,100 kilo. Abenduaren 19a. Gurasoak: Gemma eta Aritz. Argazkian, Jon amamaren besoetan.

Eider Galdos Pombar

Oñati. 2,800 kilo. Abenduaren 17a. Gurasoak: Kris eta Andoni. Argazkian, Eider jaioberria aittaittarekin.

Enara Lohitzune Viaga Azkarate

Bergara. 2,950 kilo. Abenduaren 18a. Gurasoak: Izaskun eta Iban. Argazkian, Enara gurasoekin.

Lur eta Manex Zuazubiskar

Arrasate. 3,400 eta 3,600 kilo. Abenduaren 19a. Gurasoak: Leire eta Aimar. Argazkian, Lur eta Manex sehaskan.

Izar Diaz Agirregabiria

Oñati. 4 klo. Abenduaren 20a. Gurasoak: Edurne eta Anton. Argazkian, Izar jaioberria sehaskan.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	* Gaika biltzeko hondakinak		Toka, ditut	Ezkorrak	
	Atseginak		Keinuak	Gipuzkoako herria	
	Ugatza				
	Landare mota				
Eleberria		Pl., zuhaitz mota			
Napalgo hiria		Garmin			
				Oxigenoa	
				Amildegi	
Beiruteko					
Mehatxua					
				Kontso. bikoitza	
				Anno Domini	
51		Landare mota			
Egitekoak		Bokala			
			Ez ... hamairu		

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	O	D	■	K	A	N	A	L
A	R	A	K	A	■	I	L	■
R	R	■	A	I	A	M	E	Z
R	A	T	U	R	I	E	B	■
O	■	A	R	A	H	K	O	P
K	A	I	E	Z	I	■	N	■
A	I	T	I	T	■			
K	I	A	A	L	A	■		
U	■	D	■	A	■			

E	O	L	O	K	J	E	I	T
E	M	A	O	N	U	S	T	E
A	■	I	D	E	U	S	■	M
A	I	A	N	O	T	E	L	■	K	A
U	O	I	A	N	O	T	S	E
B	C	U	R	E	O	Z	T	E
K	A	T	E	U	Z	H	X	B
I	A	I	G	E	V	R	O	N
H	G	L	L	S	U	R	R	E

1	4	2	8	5	6	7	9	3
7	3	6	9	2	4	8	1	5
8	5	9	1	7	3	2	4	6
2	6	4	7	3	5	9	8	1
5	7	8	2	1	9	6	3	4
3	9	1	4	6	8	5	2	7
9	8	3	5	4	7	1	6	2
4	2	5	6	8	1	3	7	9
6	1	7	3	9	2	4	5	8



Hieroglifikoa: harresia.

SUDOKUA

	1					4	5	
	2						7	9
	8				7		6	
3			4			5	2	
		8	2			6		4
			7					
					3			
7				2				
			8		6		9	3

HIZKI SALDA

Topa itzazu Iparraldeko Europako bost herrialde.

E	R	R	U	S	L	L	G	H
N	O	R	V	E	G	I	A	I
B	X	H	Z	U	E	T	A	K
E	T	Z	O	E	R	U	C	B
E	S	T	O	N	I	A	O	U
A	K	L	E	T	O	N	I	A
A	M	S	U	E	D	I	A	A
E	T	S	U	N	O	A	M	E
T	I	E	J	K	O	L	O	E

HIEROGLIFIKOA

Gazteluaren inguruan.



AI, ENE!

Tradizioarekin hautsi, baina ez guztiz

Gabonetan, gutxi izango dira zuhaitza jarri barik izango duten etxeak. Betikoarekin aspertuta zaudela? Buelta eman, eta listo!
www.sarda.es

AHOBERO

"Turistan bidaiatzea ez da Auzitegi Nagusiko presidentearentzat irudirik onena" .

GONZALO MOLINER | AUZITEGI NAGUSIKO PRESIDENTEA

Esaldi honen aurrean, bi galdera: batetik, ez al da alderantziz izango? Hau da, boterea dutenek denon diruarekin erantzukizunez jokatzen duen seinale? Eta bestetik, Moliner zer joaten da kaletik, bere kargua lau haizetara aldarrikatzen?
RNE irratia

EGURALDIA

Max. 18º
Min. 10º

Hodeiak saretuta eta epeltasunari eutsiz. Hego haizea indartu egingo da.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA

goiena

2012-12-24

HAMARREKOA

Edurne Pasaban Zortzimilako denak zapaltzen lehen emakumeak *Objetivo: confianza* liburua eta *Rope up* pelikula aurkeztu ditu, Everest mendia oxigeno gabe igotzeko iazko saiakera oinarri dutenak| **TXOMIN MADINA**

"Eduki dudan unibertsitaterik onena izan da mendia"

1. *Objetivo: confianza*-k gailurrera heldu ez zinen espedizio bat du oinarri. Porrotetatik gehiago ikasten da?
Guk nahi izanez gero bai. Uste dut porrotetatik ikasi egin behar dela; hori da liburuak erakusten duena: etxera heldu eta analisi bat egiteko gaitasuna izatea, ondo irten ez diren proiektuetatik ikastekoa.

2. Pelikula baterako ere eman du espedizio hark.
Bi helburu zituen espedizioak: Everest oxigeno gabe igotzea eta telebista saio bat egitea. Liburuarekin hastean pentsatu genuen, irudiak edukita eta hainbeste lan eginda, pelikula egitea.

3. Mendia, unibertsitate alternatiboa izan duzu?
Eduki dudan unibertsitaterik onena izan da. Asko irakatsi dit: umila izaten eta besteengan konfiantza izaten; nire autoestimua ere asko landu du mendiak.

4. Hamalaugarren zortzimilakoa igotzeko metro gutxi batzuk geratzen dira; zer duzu buruan?
Egindako bide guztia; galdutako lagun denak; eta baita ere bizitza bide batetik eroateko egin nuen apustua erabaki ona izan zela.

5. Heriotza, zein puntura arte dago presente espedizio baten?
Hor dago, errealitatea den gauza bat da. Gutxi hitz egiten den kontua da, armairu barruan daukazuna; baina badakizu hor dagoela.

EDURNE PASABAN

6. Kritiken aurrean, zer?
Kritikak gogorrak izan arren ondo arrazoituta badaude onartu egin behar dira, eta euretatik ikasi behar da. Kritikatzeagatik egiten diren kritikei ez diet kasurik egiten, baina mina ematen dute.

7. Hamalau zortzimilakoen artean, nondik dago paisaia politagoa?
K2-kotik. Berandu heldu ginen eta jaisten, eguzkia atzetik sartzen ari zela K2-ren itzala bailaran ikustean galdetu nuen: "Zer da hori?". Konturatu nintzen goitik bakarrik ikusi zitekeela hori.

8. Mendiko arropekin ez ezik, sarri ikusi zaitugu aldizkarietan dotore-dotore. Nola erosoago?
Mendikoekin! Aldizkarietan ateratzea ohitura kontua da, urteekin ez zait hainbeste kostatzen. Baina intimitatea ere badut; aldizkarietan, zuk ondo zainduz gero, zeuk nahi duzuna ateratzen da.

9. Oporretan, mendia ala hondartza?
Asko joaten naiz mendira, baina hondartza zalea ere banaiz. Donostian bizi naiz eta udan oso gustuko dut hondartza. Surfarekin hasi naiz, baina oso txarra naiz; hori ikastea da nire helburuetako bat!

10. Gabonetako jatorduak gainean ditugu. Tentazio askori esan beharko diezu ezetz?
Seguru! Baina aurreko urteetan, punta-puntan egonda, askori ezetz esan diet eta ez zait gehiegi kostatu; beraz, orain ere ez.

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Denbora gehiago izango nuke"

"Nire bizitzan aldatuko nukeena da nik neuk niretzako, lagunendako eta familiarentzako denbora gehiago izatea. Gizartean aldiz, egingo nuke jendea zintzoagoa izatea, ez izatea hainbeste inbidia eta elkarri bizitzen uztea: norberak bere bizitza egitea ondokoari begiratu gabe".

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA

Wert zerupean

Wertute askoko ministroa da Hezkuntzako Wert oilarra. Eta horietan handiena oilategian oilo, oilasko, oilanda, txita, azeri zein lapur, den -denak, bere kontra jartzea lortu izana. Makaleko oilozaina, mutila!

Werpiztailea ere bada Wert zakilikotea. Frankismoan ikasi behar izaten zen parte txarreko FEN (Formación del Espíritu Nacional) hura gogora ekartzen duen materia berri bat ezarriko ez du, ba, azken 50 urtean Eskolan lortutako aurrerapenez paso eginez?

Werdugoa du katalan hezkuntzak. Guretzat, berriz, usteak zein erdi duen ustel ziur-ziur dakien askojakina da. Wert-ek aitortu du Euskal Herrian indarrean den murgiltze-sistema duela gogoko Kataluniarako ere. Euskalduntze-sistemarekiko Wert-en amodioak ez gaitu, baina, ustegabean harrapatu hemen, izan ere, sistema horrek ez du balio, ikasketen bukaeran, ikasle guztiak euskaldun izan daitezen!

Wertek horixe nahi du Kataluniarako: "kataluniarrak –bere hitzak dira españoltzea".

Wravo, Wert!